

GOI - ARGI

Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldiak

Itzulpena: *Aita Villasante, O. F. M., Eushaltzaindikoak*

Apaingarriak: *J. L. Iriondo Anaiak, O. F. M.*



Arantzazu-n

1955

NIHIL OBSTAT

Fr. Petrus Aranguren

Censor Ordinis

IMPRIMI POTES

Sancti Sebastiani 23-VIII-54

Fr. Julius Eguíluz

Vic. Prov.

NIHIL OBSTAT

Dr. Ignatius Bereciartúa

IMPRIMATUR

Sancti Sebastiani 16-IX-54

Dr. Iosephus Sudupe

A T A R I

Itz bat zor dizut, irakurle, liburu kaxkar au zer dan ta nola antolatua izan dan jakin dezazun.

Goi-Argi izena jarri diot, baiña agiri denez, Ars-ko Erretore Santuaren Katezismu ospetsuak baizik eztezu bertan aurkituko. Santu aundi baten itza ta oiartzuna dituzu, beraz, Erakusaldiok, bere gogo goitarraren argi-izpi eta biotz-sutegiko txinpartak. Badakit nik illinti auei, txinparta auei, paperera aldatu ziranetik, eta are geiago, beste izkuntza batera biurtzen diranetik, nai ta naiez, berezko bizitasun ura ta jatorrizko barne-indar berezi ori, asko edo gutxi joaten zaizkiela, urritzen eta moteltzen zaizkiela. Ala ere, beti gelditzen dira Santu aundi baten otsa ta oiartzuna. Eta Santuen itzak, esan bearrik eztago, berebiziko indarra izan oi du, betiere, animak argitzeko ta berotzeko eta Jainko-bideetan gora bultzatzeko ta eragiteko.

Ain zuzen ere, gure kristautasunak ez ote du orretxen premia? Ikusiko dituzu makiña bat kristau, aginduetako eginbide nagusiak gordetzen saiatzen diranak, baiña ortik aurrera eztakite geiago zer egin. **"Aita, nik eztet iñor il, eztet ostu, nere burua pekatu mortaletik gordetzen saiatu naiz..."** Bapo. Baiña, or bukatzen ote dira kristauren eginbearrak? Ez, ta milla bider ez. Pekatua ebitatzeaz gaiñera, goi aldeetara ere jo bear du kristauak, santutasun-gaillurrera, alegia. Orra Jesusen erakutsia: **"Es-tote perfecti sicut et Pater vester coelestis perfectus est"** (Mt. 5, 48). **Izan zaitzte oso-osoak, egin-egifñekoak, zuen Aita zerukoa oso-osoak dan bezela.** Santutasunaren eta perfekzioaren lurralde zoragarria, argierri doatsua, zabal-

du ta agertu nai izan digu, beraz, Jesusek. Kristau izenaz izana ere gorde nai dunak, ezin dei oni ezetzik eman.

Oker ezpanago, eskuetan dituzun Erakusaldi auek sekulakoak aurkituko dituzu, irakurle, gure loa astindu, eta gorako bultza eragikorra ezur-mamitan sar-arazteko. Gorako yoran, gose-egarri ta urduritasun ori piztutzero datozkizu, bada. Kristau txepel, motel, gutxi-gorabera-koak, asko ikusten dira; Kristok, ordea, bestelakoak nai: bikain, oso, gartsu, jainkotiar, goiko su bizia dariotenak. Alakoak izaten, ordea, nun ikasi? Santuen eskolan, beraien aldamenean. Pozik izango nintzake, eta nere asmoak beteak izango lirake —bai orixe!—, baldin Santu aundi onen Erakusaldiak ontan mesederik egingo balizukete.

Liburu au euskeratzeko asmoa, nori zor diodan ere, aitor-bearra dizut, ezpaita asmo ori enegan sortua. 1952 ko udaran, Frantzira joan-etorri bat egin nun, eta bertan euskaldun jaun batekin alkar topo eginik, ezagutu ezezik, adiskidetu ere egin gihan oso. Berakin solas gozo eginaz, alako batean, liburu frantzes bat azaldu zidan: zaarra, dana agiri zan, burutik burura, marra gorritz eta zirriborroz josia. Ederki asko ikusten zan, maiz erabillia, ausnartua, miazkatua, eta arras maitatua ere, bazuala, Jaun ark, liburu ura: **Catéchismes du Saint Curé d'Ars** zan beronen titulua. “**Aita**, —esan zidan Jaun prestu ark—, **liburu au iñork euskeraz jarriko balu, neronek lagunduko nioke argitaratzen...**” Ateraldiak biotzean ikutu niñun. Euskalerriari mesede egin nai ark, eta ortarako, etzun liburu egokiagorik ikusten. Eskatu nion, bada, onera ekarri nun, eta beraren mami baliotsuaz konturatu nintzanekoxe, lanari lotu nintzakion... eta, ara non dezun, orain, liburu ura euskeraz jarririk.

Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldietatik, ordea, ez titut emen danak argitaratzen. Oberen, ederren, eta egokien iduri izan zaizkitanak bakarrik berezi ta autatu di-

tut. Erakusaldi oien jatorrizko textua iñork ikuskatu nai izan ezkerok, jo dezala onako bi liburu auetara:

1. **Esprit du Curé d'Ars... dans ses Catéchismes...** par l'abbé Monnin, 29 édit., Paris 1926.

2. **Catéchismes du saint curé d'Ars...** par Mgr. H. Convert, nouvelle édition, Lyon 1927.

Eskerrak eman bearrean aurkitzen naiz, gañfiera, lana egiten lagundu didaten guztiei, eta batez ere Altubetar Seber jaun euskaltzale jakintsuari. Lan oni azken esku ta orraztua berak eman dio-ta, atsegin aundiz ta pozarren agertzen diot nere eskerrona.

Erakusaldiok, gure kristau-ikasbidearen gisan ordenatuak dijoaz. Edozeiñek daki, lau zatitan partitua dagola umetan ikasi gendun kristau dotriña: **Zer Siñistu, Zer Eskatu, Zer Egin, Zer Artu**, au da: Siñisgaiak, Otoitzgaiak, Aginduak, Sakramentuak. Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldiak, bada, eredu orren arauz mordoskatu ditut. Laurden batetik bestera igarotzean, edergarri bat jarri degu, mugarri antzo.

Bedeinka ditzala Arantzazuko Amak, Ars-ko Loretxo auk. Munduan ainbeste on egiñak zeraten Loretxoak, zoazte gure Euskalerrian barrena, euskeraz jantzirik, zabaldu zaitezte, Jainkoaren eskuak eraman zaitzaten txoko-bazterretara. Zoazte, eta Berak bakarrik dakizkin biotz-anima eta lur autatuetan erne ta loretuaz, ekarri dezazutela alea ugari.

Arantzazun, 1954-ko Epaillaren 25-an, Jainkoaren Semea gizon egin eta goi-bizitza ekartzera etorri zitzaiguneko jaiean.





Vianney Santua, Ars-ko Erretorea

Ars-ko Erretore Santuaz

Berri laburra

Erakusaldi oien egilleaz zerbait jakitea on litzakela-ta, itz bitan egiten dizut beronen bizitz-laburpena; Trochu-k idatziz zuanetik artuta.

Jean-Marie Vianney (ala zuen izena) 1786 gn. urtean, orrillaren 8-an jaio zan, Dardilly izeneko urian, Frantzian. Bere gurasoak kristau sutsu jainkotiarrak ziran. Baita bera ere: txiki-txikitatik Jainko-maitasunean eta kristau legearen araura azia baitzan, eta asieratik berebiziko joera agertu baitzun santutasun-biderontz.

Zerbait koskortu zanezkoxe, artzai-eginbearretan jarri zuten. Txit maite zuan gure Santuak artzai-bizibidea; Jainkoari otoitz egiteko, eta norbere animako gauzak gogoratzeko, bizi-modu orrek astia franko uzten ziola-ta. Nekazaritzan ere aritu zan, eta bere soro-lanok Jainkoari eskeintzen zizkion beti.

Barruak, ordea, besterik agintzen zion: an, biotzondoan, zekarren gogorapen ezkutu bat, nai bizi bat: apaiz izateko ametsa, alegia. Jainkoaren otsa zan. Frantziko Reboluzioak umezurtz utzi zitun kristauak: ainbeste erri apaizik gabe, ainbeste aur kristau dotriña entzun eta ikasi gabeak... min ematen zion orrek gure mutillari.

Emeretzi urtekoa zala, bada, gurasoen etxea, artzaintza, ta nekazaritza utzirik, apaizgai sartu zan. Ikasleen artean zaarrena. Eguneroko gorabera ta zeregiñetarako buru erne ta trebea bazun ere, Gramatika-gaiok, ordea, gogor, zail, ta al-dapatsu egiten omen zitzaizkion. Bein baiño geiagotan egin zioten irri ta iseka bere lagunek. Ala ere, pizkaka ta nekearen nekez, egin zitun aurrerapenak bere ikasteetan.

Ogei urtekin konfirmazioko sakramentua eman zioten, eta San Juan Bautista zaindaritzat aukeratu zun: ordudunik Jean-Baptiste izango da bere izena.

Nola edo ala latin-urteak bukatu zitun, baiña Filosofira iritxi zanean, ura nekea! Bere alegin ta saiaketa guztiak —aplikazioan apartekoa baitzan— alperrik izan ziran. Esan zioten, bada, etzegola ezer egiterik, eta etxera bialdu zuten mutila. Au izan zun, bere bizitzan, oker eta probarik gogorrenetakoa. Ark, ordea, pazientzi eta egonarri aundienaz eraman.

Gero, berriz, mutil ark Jainko-gauzetarako zuen joera eta bere biotz ederreko birtute sakonak kontuan arturik, berriro ametitu zuten. Eta Teologian aurrerapen nabarmenak egin omen zitun. Ogeita bederatzi urteko zalarik, aინbeste izerdi-lan ondoren, apaiztu zan. Orra bere ametsak iritxi; 1815 gn. urtea zan.

* * *

Ecully-ko parrokian, apaiz-lagun edo koadjutore jarri zuten, eta iru urte geroago, 1818 garrengoan, Ars-ko erreto-re izendatua izan zan. Ars elizbarrutiko parrokirik atzenena zan, 230 laguneko auzo kaxkarra. Berrogeita bat urtetan egon bearko zun, emen, gure Santuak, Parroku bezela. Ta emen santutu ere egin zan. Berari eskerrak, Ars-en izena mundu osoan, da, gaur, aipatua. Lyon-etik iparralderontz 35 kilometrora aurkitzen da Ars-ko auzo ori. Bakartadean galdutako errixka. Nekazaritzan irabazten zuten ogia bertako gizonek.

Lenago —XVIII gn. mendean— benetako kristau sutsuak izanak. Gero, ordea, Frantziko Matxinada aundiaren ondore ta txipristiñak Ars-era ere iritxi ziran, nonbait. Vianney Santua bertaratu zanean, kristautasuna zearo galduta ta lur joa zegonik eztut esango, baiña bai auldua, itzalia, eta asko eroria zegola. Argi ta garbi jakin-arazi zioten ori gure Santuari, bere izendapen berria eman ziotenean: “Jainkoaren maitasunik gutxi aurkituko dezu an; zerorrek saiatu bearko dezu sartzen”.

Kristautasun aula, eskasa. Jende otza, eliz-eginbideetarako ajolagabeak. Igande-jaietan etziran mezatara joaten, eta bai lanera, premiarik gabe ere. Biraoak esateko oitura zikiña

—inpernuko pekatu beltz idor ori—, gizon, gazte ta aurren artean ere zabaldurik zegon. Lau taberna ziran auzoan, morkorti xamar askoren zulo ta kabi. Gau beranduraino aritzen ziran gazteak dantzan, ta ortik, pekatu larri askoren iturri zetorrela esanik dago onezkero. Gaiñeratu dezagun eskolarik eza: irakurtzen zekitenek, oso gutxi. Negu-denboran irikitzen zan eskola, edo eskola-itxurazko zerbait; baiña sasoi oneko jende elduarentzat bakarrik. Aurrek etzuten batere instruziorik, eta kalez-kale ibiltzen ziran zer egin etzekitela. Itz batean esateko, Jainko-maitasuna falta zun erri ark: eta jakiña, ori eztagonean, gure amets-ardurak lur ontara zuzentzea, naitanaiezkoa izaten da. Orra or gure erretorearen baratza, arloa. Zer egin ote dezake, orrelako tokian, apaiz batek? Baiña Vianney Santuak Jainkoa zekarren berekin.

Apaiz santu onek, erri ura aldatzeko, berotzeko, ta santutzeko egin zun guztia, ezin emen apaitu. Baiña onako au beintzat esan-bearrekoa degu: urte gutxi barru, erria zearo aldatu zula, alegia. Nola, zergatik, edo zer moduz iritxi ote zan mirari ori? Artzai on ark, erri artakoengatik, otoitz eta penitentzi egiten zulako; bere lan guztiak, aien animak salbatzeko egiten zitulako; iñortxo ere gogor artzen etzulako; guztiei goxo-goxo itzegiñaz, aien konfiantza beraganatu zulako; eta bere igesi zebiltzenei, beren etxeetan (kanpoan ziralako aitzakirik jarri ezin zutenean) bisitatzen zitulako; beartsuenai, naiz berak ezer ez izan, nondik edo andik, limosna ixilpean egiten zietelako. Gero, erraztasun aundiak ematen zizkielako, garai jakiñetan meza emanaz; konfesionarioan, egunoro, garai jakiñetan egonaz; umeai dotriña, egunoro erakutsiaz; eta abar ta abar.

Baiña Ars, esi estu-mearra zan, orren santu aundiarentzat. Laister zabaldu zan beronen santutasun-ots ta aomena, eta alde orotatik asi zan jendea, erruz erromerian etortzen. Jende xea, erri xume-arrunta, leenbizi; aundizki, jakintsu, ta mailla guzietakoak, gero.

Ezjakiña zala, esan izan da. Bere ikastaldiak, neke askoren erdian, asko kostata, burutu zitula, egia da; Jakiña, ogei ur-

tera arte, libururik eskutan artu gabea zan mutilla, eta atzerapen ori ezagun zitzaion. Baiña bere apaiz-denboran, etzion estudiatzeari utzi, eta apaiz-ikasteetan, jakitate sakon-edatua-
ren jabe izateraiño iritxi zan. Eta ortaz gaiñera, zeruak eta Espiritu Santuak, santuei ematen dien goi-jakinduria zeukan.

Kartujo joateko ametsa sarri-asototan erabilli zun, baiña, ez, auzo txiki artan zegoan, Jainkoak beretzat autatutako sail-
lla. Aita San Frantziskoren Irugarren Ordenan ere, 1848 gn. urtean sartua zan, eta bere parroko onenak, bide ontan ja-
rraitu zioten.

* * *

Aurten —1954 ko urte onetan, alegia— betetzen, dira eun urte, Erromako Aita Santuak Andre Mariaren Konzezio or-
bangabea, kristau fedeko dogmatzat jarri zuanetik. Eun-
urteko ori dala-ta, Andre Mariaren urtea ospatzen ari da Eliza Katoliko osoa. Ain zuzen ere, Pio IX garrenak ger-
taera zoragarri ori zertu zuanean, lur ontan bizi zan oraindik gure Vianney Santua. Eta bere bizitzak dionez, egundoko jai aundiak egin omen ziran Ars-ko auzoan, gertakizun ori ospatzeko. Ars-ko erretore jaunak, beñolako poz-intziri eta alaitasun-agiriak adierazi omen zitun egun artan. Ars-ko agu-
re zaarrak eriotz-egunera arte ekarri omen zuten, biotzean gorderik, egun gogoangarri aren oroitzapen gozoa. Konze-
zio-aurreko egunetan, erretorea sermoe egiten ari zala, alako sastada ta otz-ikara sentitu omen zuten entzuleek ezur-ma-
miñetan: izlariak etzitun, ba, itzaldi bitartean, itz oek jaulki: “Ama Birjiñari zerbait emateko, neronen burua saltzea al balitz, saldu egingo nuke...”?

Bizitza osoan, zeruko gure Amari aparteko debozioa zio-
la, esan bearrik eztago. Benetan, biotz-ukigarri izaten zan gure erretorearen sermoia aditzea, Andre Mariaz ari zanean. Berebiziko su, gogo bero ta garra nabari baitzun, aren san-
tutasunaz, esku aundiaz ta maitasunaz itzegitean. Baiña 1854 ko Abenduaren 8-an, Pio IX garrenak Konzezioko dog-
ma jarri zuaneko artan, gure Santuaren poz-alaitasunak gai-
ñez egin zun. “Au zoriona! au zoriona! zion, gure erretoreak,

egun artako elizkizunean. Beti uste izan det, egi katolikoen sorta dizdiratsuan, utsune ori, argi-erraiñu orren falta nabari zala. Ziñez, betebearrekoa genun utsune au, gure erligioan”.

Egun gogoangarri artan, Ars-ko kanpaitxoak, jo ta jo ari ziran amaigabeko dandara luzean. Eta izan ere, ain luzea izan zan dandara ura, ze, alboerrietakoak, su-kanpaia zala-koan, laguntzera etorri omen ziran...

* * *

Oso nabarmena izaten zan *Ars-ko Erretorea*, bere sermoe ta erakusaldietan. Beste mundutik zetorren santua, edo Testamentu Zaarreko Profeta berpiztua, zirudian. Konparazioz ta adibidez jositako izkera-modua zerabillen. Egunoroko lan, gertakizun ta goraberek ematen zioten oin, ari ta bide, zeru ta animako gauzak argitzeko ta aditzera emateko. Ederki-asko agiri dute ori esku artean dituzun Erakusaldiok. Baiña ez uste, irakurle, erakusaldiokin gure *Ars-ko erreto-reak* libururen bat osatu ta argitara eman zuenik. Bai zera, etzun ark ezer argitaratzeko idatzi. Beraz, erakusaldiok, entzuleek artu zizkioten araura dijoaz.

Ars-ko erretore Santua, 1859 gn. urtean il zan, agostua-ren 4-an. Pio X garrenak 1905 urtean, Beato izendatu zun; Pio XI garrenak, berriz 1925 garrenean, kanonizatu, edo Santu deklaratu. Azkenik, apaiz-erretore denentzat, ispillu ta zaindari bezela jarria izan da.

Ars-ko Erretore orrek, gutzaz erregutu!





I Atala, Zer Siñistu

Kristau ikasbidearen premiaz

Ez uste, ene seme-alabak, Jainkoaren itza aditzea ardura gutxiko gauza danik. Kristo gure Jaunak bere Apostoluei esandako leen-itzak onako aukerak izan ziran: *Zoazte eta irakatsi ezazute...*

Beraz, kristau dotriña jakitea beste edozein gauza baino bearrago da.

Zerk ematen ote digu gure erligio santuarekiko argia eta jakitea? Aditu izan ditugun erakusaldiek. Nondik ote datorrigu pekaturako lotsa eta izua... zerk jakin-arazten ote digu birtutearen ederra... nondik ote dator zeru-min edo ioran bizi ori gure biotzetan sentitzea? erakusaldietatik. Zerk eza-gut-arazten dizkie gurasoei semeekiko dituzten eginbearrak, eta seme-alabei gurasoekiko eginbideak? Erakusaldiek.

Zergatik ote dira asko eta asko orren itsu eta orren ez-jakin? Jainkoaren itzaz batere konturik egiten ezdutelako. Ba-dira or amaikatxo, Aitagure edo Agur-Mari bat bera ere esango ezdutenak, Jainkoaren itza ongi aditzeko gracia lortzeko asmoarekin, eta andik onura zerbait ateratzeko mese-dea irixtearren.

Ene seme-alabak, orra zer uste dedan nik: Jainkoaren itza bear dan bezela entzuten eztuan kristaua, eztala zerurako, ezpaitaki ara joateko bear danaren berri. Ikasia dan kris-

tauarekin, ordea, beti izan diteke itxaropen. Naiz eta bide txarretan galdurik ibilli, goizago edo beranduago onduko dalako ezperantza izan diteke; besterik ezpada, eriotzako orduan. Kristau-ikasbidea eztakiana, berriz, gaixorik dagoan gizonaren antzeko da, il-zorian ezaguera gabe aurkitzen dan gaixoa bezelakoxea: ez pekatuaren gaiztakeria, ez animaren edertasuna, ez birtutearen balioa, ezer ere ezpaitu ezagutzen. Eztaki ezeren berri, eta ala, pekatutik pekatura ibilliko da, beti lokatzartean, narras darabilgun trapu zaarra bezelaxe.

Begira zazute Kristo gure Jaunak noraiñoko jaso aunditan duen Jainkoaren itza. Emakume batek onako oiu au egin zion: *“Zoriontsuak zuri ugatza eman zizuten bularrak eta Zu ekarri ziñun sabela”*. Jesusek ordea, gisa onetara erantzun zion: *“Zoriontsuagoak Jainkoaren itza entzun eta begiratzen dutenak”*.

Egi utsa dan Kristo gure Jaunak eztu bere itzaz bere gortutzaz baiño kontu gutxiago egiten. Eztakit nik zer dan okerrago: meza-bitartean ala erakusaldietan distrakzioak izatea; ezpaitut alderik ikusten. Meza-bitarteko distrakzioekin Kristo gure Jaunaren Eriotz eta Pasioko merezimenduak alperrik galtzen dira; erakusaldietako distrakzioekin, berriz, bere itza alperrik galtzen da, eta Kristoren itza Kristo berbera da. Agustín Santuak dionez, konsagrazio-ondoko kaliza artu eta oinpera isuri bezin gaiztakeri aundia da ori.

Meza uts-egiteko kezka izaten dezute, kulpaz uts egiñ ez-kero pekatu astuna egiten dala-ta; baiña erakusaldia uts-egitiñagatik eztute askok batere kezkarik izaten. Utsegite orrekin ere pekatu larria egin ditekela eztute asko gogoratzen. Juizio-ko egunean, zuek danok nere aldamenean zaudetelarik, Jainkoaren esan au entzun bearko dezute: *“Eman Neri, entzundako eta entzun zenitzaketen erakusaldi guztien kontu zorrotza”*. Orduan ez dituzute gauzak orain bezelako ajolagabekeriaz ar-tuko.

Sermoi-bitartean batzuk elizatik kanpora ateratzen dira, beste batzuk parrari emanaz edo entzun gabe egoten dira, beste batzuk jakintsuegi jotzen dute beren burua eta eztute do-

triñara etorri nai... Zer uste dezute, ene semeak, gauza oiek orrela geratuko dirala? Ez orixe! Jainko on-zuzenak konponduko ditu bidegabekeri oiek.

Begira, au bai dala tamalgarri! Ikusiko dituzute aita-amak dotriña-bitartean kanpoan egoten. Oiek, ordea, beren aurrak irakasteko eginbide zorrotza dute, baiña zer edo nola erakutsiko ote diete, berberak ezpaitute ikasten? Alakoak inpernurako bidean dabilta... Tamala bai auxe!

Beste gauza onezaz ere oartu naiz, alegia, eztagola logura aundiago sentitzen dan aldirik, dotriñakoa baiño. Esango didazute: "*Baiña, jauna, oso logura izaten naiz*". Violin bat eskuetan artuko banu, lo egiteko gogorik ez luke iñork izango; danak ernai, urduri ta ezin egonaz bezela izango zifiateke.

Apaizen artetik ere gogoko zaizkigunak entzungo ditugu, besteak parregarri erabilliaz. Ori oso gaizki dagoela esan bearrik eztago. Gauzari etzaio azaletik begiratu bear. Apaiza, nornai dala, beti da Jainkoak aren bitartez bere itz santua zabaltzeko artu duan zerbitzaria. Bota edari bat ontzi batera: ontzi ura naiz urrezko naiz tupikizko izan, edaria, ona baldin bada, ona gelditzen da gero ere.

Ba-dira bazterretan onako esamesa auek zabaltzen dituztenak: "*Apaizek, berai gogoak ematen diena esaten dute*". Ez, ene seme-alabak, apaizek eztute esaten berai gogoak ematen diena, Ebanjelioan dagoena baizik... Gure aurretik etorritako apaizek guk orain esaten deguna esan zuten, eta gure ondoren etorri ditezinak ere orixe bera esango dute. Oker dagoan gauzarik esango bagendu, Apezpiku jaunak laster asko eragotziko liguke sermoi egitea. Kristo gure Jaunak irakatsitakoa besterik eztegu guk esaten.

Ejenplu-adibide bat aipatzera noakizute, apaizek esaten dutena ez sinisteak zer ondore dakarken erakusteko. Bi soldadu, Mixioa zegoan toki batetik igaro ziran. Batak Mixiora joateko itza aitatu zion besteari, eta joan ziran biak. Aita mixiolaria inpernuaz ari zan sermoi egiten. "*Siñesten al duk ik apaiz orrek esaten duana?*" galdegin zion onenak besteari.

—Bai zera, erantzun zion onek, oiek astakeriak dituk, munduari bildurra sar-arazteko.

—Ba nik siñisten diat; eta siñisten dedala probatzeko, soldadutza utzirik, konbentu batean sartzera niak.

—Oa, nai dekan lekura. Ni nere bideari narraiok.

Baiña bere bideari darraikola, orra non gaixotu eta il egiten dan. Konbentuan zegoan beste laguna, bere eriotzaren berri jakitean, otoitzean jartzen da, nolako egoeran il ote dan jakin naiez. Egun batean, otoitzean ari zala, laguna agertu zitzaion. Ezagutu zuanekoxe galdetzen dio:

—Non aiz i?

—Inpernuan, kondenatua natxeok!

—Zorigaiztoko! Siñesten al dek orain mixiolariak esandakoa?


—Bai, siñisten diat. Mixiolariak auxe ditek oben bakarra: emen eramaten diran oiñazeen laurdenik ere ez tutelatuta esaten, alegia.

Sarritan etortzen zait gogora auxe: inpernuratzen diran kristaurik geienak, dotriña-ezaren erruz kondenatzen dirala... Askok oker entenditzen baitute erligioa. Emagun, adibidetzat, egunero, lanera joan bear duen lagun bat. Gizon onek penitentzi aundi-izugarriak egiteko asmoa artzen du: gauaren erdia otoitzetan igarotzea, ta abar. Bear bezelako kristau ikasbidea baluke, ordea, esango lioke bere buruari: “Ez, ori eztago ongi, penitentzi oiekin biarko nere eginbearrak betetzeko ez naiz gauza izango-ta. Logura izango naiz, eta gauzarik txikienak asarre-eraziko nau; egun osoan amorratu ta asperturik ibilliko naiz, ez naiz izango ezertarako on, eta gauaz lo egiñik egingo nuen lanaren erdia ere ezin izango det egin; beraz, ori ezlegoke ongi...”

Beste ejenplu bat oraindik: morroi bati barau egitea ematen dio gogoak, baiña egun osoa aitzurketan edo nekazari-lanetan eman bear du. Morroi ori ongi eskolatua bada, ara zer esango duan: “Baiña barau egiñaz, ezin izango det nere jabeen borondatea bete”. Zer egingo du, beraz? Barau egin bearrean, beste penitentzi-mota batzuekin mortifikatu-

ko du bere burua. Ona emen labur begien aurrean izan bear degun asmoa: Jainko onari aintzarik geiena nola biurtzen zaion, orixe egin.

Beste bat, gurasoei ostutakoaz joango zaizute bear gorrian aurkitzen danari laguntzera. Ostu bearrean, eskatu egin bear luke alakoak. Gurasoek ezezkoa ematen badiote, orduan otoitz egin Jainkoari, nola edo ala ari laguntza bialdu dezaion. Persona ikasiak bi gidari ditu, eta oiek aurretik dijoazkiote betiere: iñoren iritzia eskatzea eta bere nagusiek esandakoa egitea, au da, kontsejua ta obedientzia.



II

Animaren salbazioa

Kristau asko aurkituko dituzute, mundura zertarako etorri diran eztakitela.

—Ene Jainko on orrek, zertarako ekarri ote nazu mundura?

—Salba zaitzadan.

—Eta zergatik nai nazu salbatu?

—Maite zaitudalako.

Maite gaitulako kreatu eta munduan jarri gaitu Jainko onak. Maite gaitulako salbatu nai gaitu. Salbazioa iristeko, ordea, Jainkoa ezagutu, maitatu eta zerbitzatu egin bear da. Au betebear eder-aundia!... Jainkoa ezagutzea, maitatzea eta zerbitzatzea: au eginkizun zoragarria! Eztegu mundu one-tan beste egitekorik auxe baiño. Onezaz kanpo egin dezakegun guztia, denpora alperrik galtzea besterik ezta. Gure egite guztiak Jainkoagatik egiñak bear dute izan, gure lan guztiak aren eskuetan bear dira jarri... Esnatu bezin laister, ona emen zer esan bear genuken: *“Gaurko nere lan-izerdi guztiak zuretzat, ene Jainko ori! Zuk bidaliko didazun guztia, Zugandik bailetor artu eta eramango det. Nere burua oparitzat eskeintzen dizut. Baiña, ene Jainko ori, nik Zugabe ezin dezaket ezertxo ere: lagun zaidazu, arren!”*

Eriotzako une artan, zer atsekabe izango degun, baldin atsegiñetan, alperrikako berriketa eta atsedenean denpora eman badegu! Penitentziari, otoi tzari, obra onei, gure ezerez

* Esprit. pág. 58

ta itsuskeria gogoratzeari, eta pekatuakatik negar-egiteari zor genuen denpora, alperrik galdu! Orduan bai ikusiko degula ederki-asko eztegula ezer egin zerurako!

Tamala auxe! Kristaurik geienak, lautatik iru beintzat, eztira arduratzen gorputz ustelkor oni atsegin ematen baizik, auri lurrean usteldu bear dun gorputzari gusto ematen baizik. Eta bitartean anima gaisoaz, beti-betiko zorioneko ala zorigaiztoko izateko sortua dan animaz, eztute batere konturik egiten, ez ajolik artzen. Zentzua eta sena falta zaie alakoei. Egitan edonori bildur emateko gauza da au.

Orra gizon arro bat, milla arazotan sartua: zeinbat joan-etorri, zalapart, ots eta zarata! Denen gain agindu nai luke, zerbait badala uste du, eguzkiari ere onako au esan nai liokela ematen du: *"Ken adi ortik. Utzi akidak toki ori, neronek argituko diat mundua ire lekuan..."* Etorriko da egun bat, eta gizon arroputz ori ona zer biurtuko dan: eskubete errauts; ibaiez ibai, ondarra antzo, itxasoraiño eramana dan auts-mordoska, ta besterik ez.

Askotan bururatu zait auxe: bide-bazterretan aizeak biltzen dituan ondar-metatxoan iduriko gerala gu. Begi itxi-iriki batean jasotzen dira, eta azkar desegin ta ezereztu ere...

Ba-ditugu guk, noski, ildako anai-arrebak. Ain zuzen ere, zer biurtu ote dira oiek? Esan deguna, autsa, besterik ez.

Anima salbamenduko bidetik eramatea gauza zailla ta gaitza dala esaten dute mundutarrek. Ez orixe. Eztago gauza samurragorik: Jainkoaren eta Elizaren aginduak bete eta zazpi pekatu nagusietatik iges egin; edo, nai badezute, ongia egin ta gaizkia utzi, eztago auxe beste eginbearrik.


Kristau jatorrak, beren animen salbazioagatik alegintzen diranak, beti argi, arrai, zoriontsu ta pozez gainezka ibiltzen dira. Zeruko atsegiñak alde-zurretik gozatzen dituzte oiek; eta betikotasun guztian ere zorioneko izango dira. Kristau gaiztoak, inpernuko bidetik dijoaztenak, aldiz, errukarriak dira oso; beti erausian, beti illun eta triste, zorigaiztoko dira, *arriak bezelatsu*, baita izango ere betikotasun guztian. Ikusi nolako aldea!

Ona emen ondo bizitzeko erregla on bat: Jainko onari eskeñi ditekena baizik ez egitea. Jainko onari, bada, ezin eskeñi genezazioke ez maxiatze, ez lagun urkoaren izen onari ezarritako gezurrik, ez zuzen kontra egindako gauzarik, ez aserre, gorroto, birao, lizunkeri, jolas zikiñik... Ala ta guziz ere ezta munduan orixe baizik egiten.

Dantzai buruz ona emen San Frantzisko Saleskoak esandakoa: *"Ziza-perretxikoen pare dirala, alegia; eta oien antzera, onenek ere eztutela ezer balio..."* Amek esaten dute batzuetan: *"A, nik zaintzen ditut nere alabak"*. Bai, kanpoko apaindura zaintzen dute; biotz-barrena, ordea, ezin zaindu. Beren etxeetan dantzak ipintzen dituztenek ikaragarritzko errua bizkarreratzen dute Jainkoaren aurrean, an egin ditezten pekatu danak berai zor baitzaizkie. Ainbeste gogorapen eta esan gaizto, bekaizkeri, gorroto, mendeku...! A! erru onen aundia balekite, elukete inola ere alako jolasik jarriko. Beste orrenbeste diot irakurgai gaizto eta irudi txarrak egiten dituztenekatik ere: liburu eta irudi oik egiten duten kalte dana, egillleei errutzat egotziko zaie... Bildur emateko gauza, auxe!

Gogora dezagun, ene seme-alabak, anima bakar bat degula salbatzeko, eta gure zai dagoela betikotasuna. Mundua, ondasunak, atsegiñak, aundikeriak aguro joango dira; zerua eta inpernua, berriz, bein ere eztira igaroko. Egon gaitezen, bada, ernai!

Santuak etziran danak ongi asi, baiña dandanek egin zuten bukaera on bat. Gu oker asiak bagera ere, egin dezagun bukaera ona, eta egun batean aekin elkartuko gera zeruan.



III

Jainkoaren maitasunaz

Gure gorputza ustelkerizko ontzi bat besterik ezta. Eriotzaren ta arren janari, besterik ez!... Ala ta guztiz ere, arduraz aundiago ipiñi oi degu gorputz oni atsegin ematen; anima zeruko ondasunez apaintzen baiño geiago, noski. Gure anima au baiño aundiago ta bikaiñagorik, ordeaz, ezin asma ez pentsa diteke. Ez orixe, ez, ta milla aldiz ez, anima baiño gauza aundiagorik eztago. Izan ere, Jainkoak, bere maitasun gartsuak eragiñik, ez gaitu abereen antzeko kreatu nai izan; aitzitik, bere irudi-antzeraz egin gaitu. Ikusi, bada, gizonaren bikaintasuna!

Maitasunak ekarri zun gizona mundura, eta orregatik gizona ezin diteke maitatugabe bizi. Bietatik bat: edo Jainkoa, edo bere burua eta munduko gauzak, maite izango ditu. Ots, ene semeak, fedea falta zaigu... Federik eztagonean, itsu gera. Ikusterik eztuenak, ezin ezagutu; ezagutzen eztuenak, berriz, ezin maitatu; eta Jainkoa maite ez duenak, naita-naiez, bere burua ta beroni dagozkion atsegiñak maite izango ditu. Kea bezela dijoazten gauzei lotzen die onak biotza. Alakoak ezin ezagun dezake ez egia, ezta edozein onik ere; gezurra bakar-bakarrik, argirik eztu-ta; laiño artean aurkitzen baita. Argia balu, ikusiko luke ederki-asko maite dituen gauza guztiak

* *Esprit*, p. 64.

betiko eriotza besterik ezta karkiotela. Egoitza triste au inpernuko atari ta asiera bezela da.

Jainkoaz kanpora, ezta mundu ontan gauza iraunkorrik. Ez bizitza, bereala igarotzen baita. Ez ondasunak, uste gabeen lur jotzen baitute. Ez osasuna, gutxien uste degunean galtzen eta ondatzen baita. Ez izen ona, au ere gabetik goizera kentzen baitigute. Eta gu gerok ere aizea bezela goaz. Lur ontako zer guztiak abiadura aundiz laisterka dijoaz, denak ezerezean amiltzen dira. Ai ene Jainkoa, ene Jainko on! zeñen errukarri diran gauza igeskor oietan biotza ipintzen dutenak... Bere burua geiegi maitatzeak egiten du ori, ortik dator biotza izaki oietan jartzea. Maitasun ori, ordea, ezta bide dan bezelakoa; munduko maitasun berekoa izan oi da, eta ala, Jainkoa billatu bearrean, nor-bere buruaren eta munduko creaturen atzetik joaten da. Eta orregatik alakoak bein ere eztaude pozik ez lasai; betiere artaga, urduri, kezkatu ta asalaturik.

Antziña garailariek, gudu batean garaipena irixten zutenek, gurdi apain-dotore batean egin oi zuten errian sarre-ra. Kristau onak ere, nere begitan, alaxe egin oi du mundu ontako aldia, garaipen-gurdi-gaiñean eseririk dijoala, alegia. Gurdi ori aingeruek eramana da, eta zuzendari edo gidaria gure Jaun berbera degu. Pekatari gaisoa, berriz, bizitz-gurdiari uztarturik eta loturik aurkitzen da; gurdi orren eser-tokian etsai-deabru berbera dijoa, eta onek akuillu zorrotz-mingarriz ziztatzen eta nekatzen du bere menpeko doakabea.

Siñismen, itxaropen ta karidadeko iru egiñenek osatzen dute gizonaren zorion guztia. Siñismenaz Jainkoak agindutakoa siñisten degu; au da, egunen batean Jainko berbera ikusteko gaudela, gure-gurea izango degula, eta berarekin batean zeruan betiko zoriontsu izango gerala. Itxaropen bitartez agintza oiek beteko dirala uste degu, gure egite on guztien saria emango zaigula; Jainkoak pentsamentu on baten kontu ta ardura ere badu-ta. Ba ote degu geiagoren bearrik, zoriontsu izateko?

Zeruan ez siñismenik ez itxaropenik eztegu izango, emen gure lainoak, adimena illuntzen duten lainoak, ara ezkerotutseratuak eta kenduak izango baitira. Bee ontan guretzat estalita daude anitz gauza, an, berriz, beroien argitasuna emango zaigu. Ez gera geiago ezereen zai egongo, danaren jabe izatera etorri geran ezkerot. Eztu iñork altxor baten itxaropen izaten, altxor ura bereganatu duanean...

Karidade edo maitasunaz, ordea, a! artaz bai izango gerala zeruan aseak, itoak, jainkozko maitasunaren baztergabeko osiñean murgilduak izateraño; eta Jesusen Biotzaren azkengabeko maitasun ortan desegiñak izateraño!... Orra or nola karidadeak zerua aldezturirik ematen digun; zeru ederraren aor lurrera dakarkigun birtute bat da. Birtute orren berri bagenekik —sakonki, ordea, jakin—, eta aen gozotasuna jasoko bagenu, orduan bai izango giñakela zoriontsu! Jainkoa ez maitatzeak egiten gaitu zorizaiztoko.

Sarritan esan oi ditugu onako itz auk: *Ene Jainko ori, nik siñisten det biotz-biotzetik, zalantzarik gabe, ezbaizpitorik gabe...* Zorionekoak gu, itz oek adierazten dutena egiten badegu. Ona emen itz oek barnean dakarten muin guztia: *“Siñisten det biotzetik toki guztietan zaudela, ikusten nazula, zure begipean nagoela, egunen batean zeran bezelakoxea ikusi bear zaitudala, eta Zuk neri agindutako ondasun guztiekin aberats izango naizela!... Ene Jainko ori, itxaropen bizi-bizia det zagan. Zuri atsegin ematearren nik egiten dedan guziaren saria emango didazula ba-dakit!... Ene Jainko ori, maite zaitut! Badet biotz bat Zu maite izateko!...”*

Naiko genuke fedeko egintza au (fedekoa ezezik, maitasunekoa ere bada-ta) beste otoitz-motarik ez egiñarren... Jainkoa maite izateko eskua! Eskubide au izatea zer zoriona dan bagenekik, zirkiñik ere egin gabe iraungo genuke etengabeko zoraldi bete-bete, zerao lilluratu eta kordegabeturik...

Emagun errege edo aundizkiren batek menpeko bat bere aurrera erakarri, eta onela itzegiten diola. *“Nik zoriontsu egin nai zinduzket. Nere ondoan ta aldamenen biziko zera, nere*

*ondasun danak zureak izango dituzu. Bakar-bakarrik ardura
auxe izango dezu: neri naigabe edo atsekaberik ez ematea,
besterik ez". Nork esan gizon orrek ipiñiko luken ajola, erre-
geri atsegin ematen? Ain zuzen ere, orixe bera egiten du Jain-
koak gurekin... eta aren adiskidetasunaz iñork ajolik artu ez!
Aren aginduezaz iñork konturik egin ez!... Gezurra dala esan
diteke!*



IV

ZERUAZ

Gure etorkizunaren ederra

Biotzak maite duen gauzara izan oi du, maizenik, bere joera: arroak omenezko gauzetara, diruzaleak bere ondasun-tegira, aserrekorrak asperkundera, loiak lizunkerira. Kristau onak, berriz, nora izango ote du bere ametsa, bere joera? Zerura, antxe baitago bere altxorra dan Jainkoa... Etorkizun ederra, izan ere, gizonaren etorkizuna! Jainkoa ikusi, maite, bedeinkatu, kontenplatu, eta ori betikotasun guztian!

Beñola santa bat bizi omen zan. Santa onek anai bat zeukan. Anai ori bere arreba martiri izango ote zan jakin miñez zebillen. Esan zion, bada, arrebari:

—“Arreba, Jainkoak ain kutun zaituan ezkeru, galde zaiozu martiri izatera etorriko ote zeran...”

—“Biar esango dizut”, erantzun zuen berak.

Urrengo gabeen esaten dio Jainkoari:

—“Jauna, jakiñarazi zadazu neretzat gorderik daukazu etorkizuna”.

Orduan Jainkoak erakusten dio eskillara aundi bat. Eskillara-bean erensuge izugarri bat aurkitzen zan. Iñork eskillarako leen-maillara iritxi nai baldin bazuen, aurrena eren-

* Catéchismes, p. 162.

sugea pasatu bear, nai ta naiez. Eskillara orren goian, berriz, artzai bat zegoan.

Ain zuzen ere, eskillara orrek zerura darania. Erensuge ura mundua da, eta mundu ori ostikopean erabili eta garaitu bear da. Artzaia, berriz, Jesus da, animen artzai zerutarra. Zerua, a zein sari baliotsua! Sari onen truke pozik igaro ditezke neke-lan guztiak...

Zerura joateko, ordea, zer bear ote da?

Biotzeko garbitasuna, mundua ostikopetu eta Jainkoa maitatu.

Oi! Anima garbia bai dala Jainkoaren gogoko, eta Jesusen Biotzaren atsegin! Biotz-garbidunak, Jainkoaren maitatzailleak, zoriontsu dira izan ere!

Ba-zan Apezpiku Jainkotiar bat, bai animako begiak eta bai gorputzekoak ere, etengabe zerura begira izaten zituana. Bein batean bere otordua egiten ari zan bitartean, ingurumarian zeudenek esan zioten elkarri: "Ara... jan dezagun guk platerean daukana, eta jandakoaren orde bestea gauza bat jarriko diogu". Esan eta egin. Ura etzan batere konturatu. Zirkiñik ere egiten etzuela ikusirik:

—“Jan beza berorrek”, esaten diote.

—“A! Baiña nik uste nun bukatu nuela aspaldi”, erantzun zuen berak.

Izan ere, gogoaz zeruan izan ezker, lurra aintzat artu al ditzake gero?

Teresa Doatsuak, zerura ibillaldiak egin zituanetik, lurreko zerik ezin ikusi izaten zuan. Munduko edertasunen bat erakusten baldin bazioten, auxe esaten zuan: “*Bai zera, ori ezten ezer, ori zikiña besterik ezten!...*”

Ken ditzagun gure biotzak lurretik. Kristau on bat ezin dagoke gustora mundu onetan; mundua nardagarri egiten zaio. Beraz, miñetan bezela aurkitzen da alakoa ludian, etengabe ioran batean bizi da, Jainkoagana joateko ordu zorioneko ori noiz etorriko zai.

Iru-lau urteko aurra elizan balego eta ama, berriz, korian, eliz goi-aldean, aurrak besotxoak luzatuko lizkioke amari. Eta ama dagoan tokira joateko gauza ezpada, laguntza eskatuko dio berari, eta eztu pakean utziko arik eta aren altzo gozoan lasai egon arte. Anaiak, egin dezagun guk ere beste ainbeste, oporrik gabe lanari ekinaz. Zerua zabalik degu or, goi-aldean: eskillaran gora igo besterik eztago. Esan dezaio-gun bein da berriz gure aingeru zaindariari ez gaitzala utzi bakarrik, lagun gaitzala.

Zerua irabazteko baizik ez gaude lurrean. Atzo emen izan genitun Kartujo aiak bezela. Aiak dana utzi dute zerua billatzearren. Oietatik bat jakitun-jakituna da; munduan ospe ta entzute aundikoa zan: zorionekoa bera, uskeri oiek ezertan artu ez ditulako! Bi orduko loa baizik eztu egiten gauoro, gainontzeko aldia gure Jaunaren aurrean maitasun-malko gozoak ixuriaz ematen duelarik... Oiek, orde, gu bezelakoxe gizonak ditugute. Baiña, ori bai, Jainkoa guk baiño geiago maite dute: orra or alde bakarra.

Auxe esan zion bein Jainkoak Teresa Doatsuari: *“Luze egiten zait mundua bukatu arte itxaroten egotea; zuk noraiño maite nazun munduari esateko, irrikitzen baitnago”*.

Kristau on bat joan zan Palestinako bazter beneragarri aiak ikustera. Jaunaren Jaiotza ta Eriotzaren oroimenaz santututako tokietan ibilli ondoren, Jesus zerura igo zaneke mendira eldu zan, ipiñi zun bere oiña gure Salbatzailearen aztarna tink ezarririk daukan arri artan, eta esan zun: *“Ene Jainkoa, etengabe zure ondoren ibillia nazu, tokiz toki jarraitu natzaizu; orain, beraz, ez al zait zillegi izango, Zuri zerura jarraitzea?”* Eta maitasunaren indarrak bizia kendu zion. Bularra erantzi zioten, eta orra aren biotz-gaiñean idatzita zegona: *“Oi Jesus, ene maitea!”*

Zeruko Zoriona

Zeruan, Jainkoa maitatuz, zorion-osin batean murgildurik bezela egongo gera. Ez gure ez iñoren ajolik eztugu an izango, Jainkoa soil-soilik izango da an gure jarduna. Arriturik

egongo gera. Jaiotzatik itsu izandako bat eraman zuten San Martiñen illobira eta erabat argitu zitzaizkion begiak. Zeru-lurretako edergarriak ikusi zituanekoxe, lilluraturik gelditu zan. Begi argitu-berriok ezin inola ere egon, edergarri oietan bazkatu ta ase gabe. Zeruarekiko, berriz, itsu orren pare gera gu... Teresa doatsuak, zeruan ia zer ikusi ote zun galdetu ziotenean, etzekian auxe besterik esaten: "*Oi! nik ikusi... nik ikusi... ezin, ordea, eman nik ikusitakoren berri...*"

Zeruan *tronuetan* (errege-aukietan) izango omen gera. Tronu oiek Jainkoaren maitasunak egiñak dira, zeruan ez paitago besterik: *Tronuak* esan oi da, gu aundi ta ospetsu izango gerala aditzera ematearren. Jainkoaren maitasunak beteko du gure anima, gaiñez egiteraño.

Bazan bein praille bat. Onek uste zun zeruan denpora luzeegi egingo zitzaiola. Jainkoak ederki-asko erakutsi zion ezetz. Egun batean praille ori basoan zebillela, txori txiki bat ikusi zun abarrez-abar atxintxika. Zeinbat eta geiago begiak arengan ipiñi, gero ta ederrago iruditzen zitzaion. Ain ederra zan izan ere! Azkenik bere begiak arengandik kendu ezinda gelditu zan... Abitu zan txoriaren atzetik, ura arrapatu naiean. Ibilli ta ibilli, baiña alperrik. Jirabira askoren buruan utzi zion ibiltzeari, arrezkero ordu-erdiren bat pasatua izango zulakoan. Bere konbenturatu zan, baiña arrituta geratu zan gure praillea atean arrotz-itxurako bat, eta etxean ere aurpegi berri-ezezagunak baizik ikusi etzituanean! Komunidadeko artxibuan, paper zaarretan, asi ziran ikuska, eta atzenik andik atera zuten argitasun au: ba-zitula praille arek eun urte bere konbentutik kanpo... Onekin Jainkoak ikustera eman zion zeruan denpora ez tala luze erizten.



V

FEDEAZ

Ba-da siñistu nai ez duenik. Ezta arritzeko: itsu batek koloreak nola ikusiko ditu ba? Federik ezdutenak itsu baititira, begi gabekoak baiño itsuago.

Fede bizi bat izango bagenu, Sagrario-aurrera azaltzen geran bakoitzean edo Jesus Sakramentatua gugan dakargun guztietan, ez al giñake murgilduak eta lilluratuak bezela egongo? Baiña mesedeak mesedeen gain artu ondoren, sorgor ta aazkor biurtu oi gera...

Gure Jauna egiaz ta benetan Aldareko Sakramentuan aurkitzen dala siñisten dun anima, ezta bein ere gogaituko elizan egoten. An ikusiko dezue anima ori zirkiñik egiten eztula, bere Jainkoaren aurrean galdurik... Ostegun Santuz joan zan protestante bat elizara, aldaretik monumenturako prozesioa egiterakoan. Apaizgai gazte bat aurkitzen zan elizan, eta Gure Jaunaren aurrean otoitz berotan zegoan, guztiz lilluraturik. Ura ikusita, biotzean ukitu bat sentitu zun, eta ba-diotso bere emazteari: *"Ots, gazte orrek bai siñisten dua-la aldareko gure Jaunagan"*, eta fede katolikora biurtu zan.

Fede bizirik ez duten kristauak, usarioa dalata beste zeri gabe otoitz egiten dutenak (eta ezpain-muturrakin soil-soilik egin ere, gaiñera) oiek aurki nekatzen dira elizan, eta elizkizunak beti luze erizten zaizkie.

* Catéchismes, p. 168.

Elizara etortzerakoan, Jainkoa gure aurrean degula bi-
ziro siñistuko bagenu, Jainko ori adoratu egingo genuke eta
fedeko begiakin ikusi ere bai. Ala egiten zun arako aur ark,
Gure Jauna agirian jartzekoan Jesus Aurra ikusten zuan ark.
Ikusketa ura irudipena ote zan jakin nairik, apaizak oiur au
egin zun:

—“Zein da or?”

—“Jainkoa!”, erantzun zun hostia santutik zetorren ots
batek.

Batzuk sartzen dira elizan plaza batean bezelaxe, an dau-
den lagunei ta bazter guziei begiratur. Meza zutik entzuten
dute, edo esertokian etzanda. Beste batzuk, belaun bat lu-
rrean dutela eta bestea aidean. Au Jainkoari iseka egitea
da... A, egia esateko, bildurra ematen didate neri gauza oiek!
Jainkoaren aurrean belauniko jartzen ezipagera, noren au-
rrean jarriko ote gera, bada?... Ai, ene semeak, fedea degu
eskas. Alegiñak egin ditzagun fedea gugandik aldendu ez
dedin, emendik iges egiñaz itxasoz beste aldera joan ez de-
din. Eskatu dezaigun Jaunari otoitz sutu-bitartez begiratu
dezaigula. Fedea galtzera etorriko bagiña, ondo zorigaizto-
koak izango giñake-ta.

Ekarri dezagun beti biotzean ondo sartuta auxe: Jain-
koa aurkitzen dala an, elizan, gorputz-animaz... Santu askok
ikusten zuten Jainkoa, beronen gizatasun beneragarria, gor-
putz-anima ta guzti. Jainkoa ta biok soil-soilik aurkitzen ge-
rala an: ona emen biotz-ondoan ondo sarturik ekarri bear
degun ustea.

Ara, gu lurtarrak gera oso, eta gure fede eskasak era-
kusten dizkigun egiak, oso urruti agertzen zaizkigu, Jainkoa
itxasoz beste aldera balego bezela; fede bizi bat izango ba-
genu, ordea, guk ikusi egingo genuke animako begiakin, an,
Aldareko Sakramentuan, antxe baitago. Ba-dira mezako Opa-
ri Santuan Jesus egunoro ikusten duten apaizak.

Fede ta biotz garbi baten jabe dan anima, betiere da zoriontsu, baita Jainkoak gurutze samitiak bialtzen dizkionean ere. Samin oetatik ezin esan-alako gozo atsegin bere moduko bat jasotzen baitu. Ara! gurutzeak arantza-sorta bat bezela dira: arantzok erre, eta auts gozo biurtzen zaizkitzu... Oi! fede eragillea duan animaren ederra!... Gurutze astuna bizkarrean dakarren kristauak, baldin Jainkoaren laguntza berekin badu, eta Onen presentzia biotzaren erdian sarturik badaduka, itxasoko ur aundietan lasai ta bere gogara dabillen arraia dirudi.

Siñistea ezta naiko salbatua izateko. Siñistu, deabrukek ere egiten dute, baiño, ori gorabera, inpernuratuak izan ziran. Fedeak erakusten duanaren arauaz bear da bizi, gaiñera, asmo zuzen-garbi batekin, Jainko onaren begipean, gure lanak egiñaz. Auxe bai dala zoragarri: Jainkoari atsegin emateagatik dana egitea! Begira, ene semeak, dana bear zaio Jainkoari eskeiñi: norbere lan, urrats, atsedeen-aldiak, oro! Ari eskeiñi gabeko lanak galduak baitira. Asmo bikaiña auxe: dana Jainkoarekin batean egitea!

Tira! ene anima ori, konsola zaitetz, Jainkoa lagun dezula, ari zera otoitzean ta lanean! Lan egin, zerorrek egingo dezu, baiña Jainkoak zure lan ori bedeinkatu egingo du. Joan-etorriak, arat-unatak egingo dituzu, baiña Goikoak onetsiko ditu zure oinkadak. Gudukatu, sufritu, dana egingo dezu Berarekin batean...

Auxe bai pozgarri: dana Jainkoaren laguntzarekin ta be-ronen begipean egitea! Berak dana ikusten eta aintzat artzen dula jakitea! Egin dezagun, beraz, goizero kontu au: "*Zer egin bear det nik gaur? Dana, beintzat, Zuri atsegin ematearren, oi ene Jainko ori! Nere egite guztiak Zurekin!*" Eta ala, zure lan guztiak aintzat artuak izango dira. Zure begiai begiratu bat ukatu badiezu, zirkin bat edo atsegin bat zure bu-ruari kendu badiozu, dan-dana izango da kontuan artua.

Fedea dun animarentzat, Jainkoagan gogoa ipintzea, zein konsolagarri dan! Alkar arturik dauden bi adiskide dirudite. Otoitzean ezta beññere aspertzen, orduak minutu bailiran iga-rotzen dira. Labur esateko: zeruko atarian bizi da alakoa.

Fede bizia bagenu, Jainkoa aldarean dagola egitan sifist bageneza, izango al genuke biotzik Jainko ori ofenditzeko? Ez, noski. Epaitu bear gaitunaren begipean, nork dezake pekatu egiteko adorerik?... Bizi gaitezen, ba, betiere Jainkoaren begipean.

Gorputzari dagokion janaria artzen dezuenean, animari zor zaiona ere gogoan euki bear dezue.

Eskerronak erakutsi dezaizkiogun Jainkoari, gure animen salbaziorako egin dunaren ordainetan, bere graziak ain ugari eman dizkigu-ta. Eskerrak batez ere, piztiengandik berezitu gaitulako, eta, Bataio santu bitartez, guretzat antolatu dun etorkizun ederragatik. Zeinbat eta zeinbat fedegabeko ea jentil, Jainkoa eta aren maitagarritasun azkengabeak eza-gutzeke!

Aiek eta gu berdiñak gera gauza atsekabezkoetan, ez ordea pozgarrietan, gure pozak betikotasun guztian iraungo baitu.

Jainkoari eskerrak biurtu bearrean gaude, gaiñera, ainbeste barkapen-indulgentzi eman digulako. Indulgentzi oiekin, pekatuz guganatu ditugun neke-zigorrak, gugandik uxatu egiten dira. Baiña, tamala! eztegu oiezaz konturik egiten. Oinpetan erabiltzen ditugu indulgentziok, eztugu batere ajolik artzen irabaztearren.

Begira: zazpi urte ta zazpi berrogeiko barkapena, dotriñara etortzearren; ireureun egun, Ama Birgiñaren edo Jesusen Izen Santuaren Letaniak esatearren; *Agur Erregiñak*, *Agur Maria-k*, gaixoen bisitatzeak ere bereak dituzte... (1). Grazia graziaren gain ematen digu Jainkoak. Gure atzenegunean damutuko zaigu bai ainbeste laguntzaz baliatu ez izatea!

(1) Barkapen-kontu au asko aldatu da Vianney Santuaren egunetarik onera; aldi artan baiño ugariagoak ditugu gaur eguneon. Esate baterako dotrina ikasten naiz irakasten jarduteak ba-ditu orain bi barkapen oso illean, jakiñeko baldintzak bete ezkerro. Ama Birgiñaren eta Jesusen Izen Santuaren Letaniak berriez, zazpi urteko barkapena dituzte, eta osoa illeko, egunero erreza-tu ezkerro; ta abar ta abar.

VI

ESPIRITU SANTUAZ

Auxe bai zoragarri, ene semeak: Aita dugu Egille, Semea Erosle, Espiritu Santua, berriz, Eramale!...

Gizona, bere indar soillaz, ezer ere ezta. Espiritu Santuarekin ordea, asko dezake. Gizona lurkoa da oso, txit abeturirik dago; Espiritu Santuak bakar-bakarrik altxa dezake aren anima, eta goialdera jaso. Zergatik egoten ote ziran santuak lurretik ain askatuak? Beren burua Espiritu Santuaren eskuetan uzten zutelako, Beronek eraman zitzen. Espiritu Santuak zuzentzen ditunak, uste ta iritzi egoki-goitarrak izaten dituzte. Ona emen zergatik aurkitzen diran jakintsuek baiño askoz geiago dakiten ainbeste eskolagabe. Jakiña ba: Jainko indartsu-argidun batek eramaten bagaitu, eztago oker joateko bildurrik!

Espiritu Santua, bada, argi bat eta indar bat da. Berberak irakasten digu egia gezurretik, eta ona gaitzetik bereizten. Gauzak aundituta ikusteko, betaurreko batzuk nola egoten diran? Ba Espiritu Santuak ere ona ta gaitza, aundituta, geituta begietaratzen digu. Espiritu Santua gurekin degunean, guzia ikusten degu aundi: Jainkoagatik egindako lan kaxkarrenak, baita utsegite xume-txikienak ere, aundi azaltzen dira. Erloju-gille batek bere betaurreko oiekin erloju txikiaren gupil xume-tipitxoak nola nabaritzen dituan? Guk

(*) *Esprit* p. 77

ere, Espiritu Santuaren argiekin, alaxe nabaritzen ditugu gure bizitza kaxkar onen gorabera ta xehetasun guztiak. Orduan oker-utsegite txikienak ere, oso aundi ematen dute; pekatuak ariñenak izu-laborria sartzen digute.

Ain zuzen, arrazoi orrexegatik etzun Ama Birgiñak bein ere pekatuak egin. Espiritu Santuak aditzera ematen baitzion gaitzaren itsusikeria, eta utsegite txikienaren aurrean ere, ikaraz jartzen zan.

Norbere baitan Espiritu Santua daukana, ezta arroke-riaren menpean biziko. Jakiña ba, alakoak ondotox baidaki bere ziztriñaren berri! Espiritu Santurik ez dutenak, oiek xoilki dira arro.

Munduzaleek ez dute Espiritu Santurik, edota, baldin iñoiz izaten badute, iragaitzaz bezela etortzen zaie; egotez, ordea, ezto oiengan ostatu egiten. Munduko iskanbillak egotzarazten du.

Espiritu Santuaz eramana dan kristauak eztu lan aundirik izaten, mundu ontako ondasun-atsegiñak zeruko ondasunen aldera uzteko. Bai ba: lurreko ondasunetatik zerukoetara zein alde aundia dagoan argi ta garbi ikusten du-ta...

Munduko begiak eztu ikusten bizitza au besterik; urrutiago ezin ikusi. Aragizko nere begi auek ere, elizako atea itxirik dagoanean, pareta ura baiño urrutiago ikusten ez duten antzera. Kristauaren begia, ordea, betikotasunaren barreraiño irixten da.

Espiritu Santuaz eramana dan gizonarentzat, mundurik eztagola dirudi. Munduarentzat, berriz, eztagola Jainkorik... Beraz, zeiniek eramaten gaitun jakitea, orra or gora-bera guztia. Gure eramalea Espiritu Santua ezpada, esku-tartean dakarkigun egiteetan ezta izango ez onurarik ez gozorik. Espiritu Santua ba-da, ordea, gozotasun leun-berezi bat nabari arantza eta arri-koskorren erdian iraulka ibilli bear.

Espiritu Santuak gobernatu oi dituanek, zorion bete-betea sentitzen dute barrenean. Kristau doillor-gaitzoak, artean, arantza eta arri-koskoren erdian iraulka ibilli bear.

Espiritu Santuaren jabe dan anima, ezta bein ere asper-

tzen. Jainkoaren aurrean egoten, bere biotzetik maitasun-jario bat ateratzen da-ta.

Espiritu Santurik ezpaldin badugu, bide-bazterreko arri idor baten pare gera gu... Ar zazute esku batean esponja bat, urez ondo betea eta asetua; bestean, berriz, arrikosko bat; eta estutu ta ertsi itzazute bai bata ta bai bestea. Arrikoskotik eztezue ezertxo ere aterako, esponjatik, berriz, ura mara-mara irtengo zaizute. Esponja ori, Espiritu Santuaz betea dagoen anima da; arrikoskorra berriz, Espiritu Santurik gabe bizi diranen biotz idorra.

Espiritu Santuaren jabe dan animak, gozo bere moduko bat dastatzen du otoitzean. Gozo ori dala-ta, otoitzean ematen duen denpora, motx erizten zaio betiere. Jainkoaren presentzia santua eztu bein ere galtzen. Alako kristauaren biotza, Aldareko Sakramentu Santuaren ondoan aurkitzen danean, dolare-azpiko maatsa bezelakoxea izan oi da, eze gozoa mara-mara dariola.

Espiritu Santuak piztutzen eta sortzen ditu gogorapenak justuen biotzetan, eta auen ezpaiñetan itzak jarri ere bai... Espiritu Santua berengain dutenek, ezin dezakete ale txarrik ekarri, Espiritu Santuaren frutu danak on baitira.

Espiritu Santua gabe, dana da otz. Ain zuzen ere, gure animako garra aitu-urrien dijoala antzematen badegu, lenbailen Espiritu Santuari bederatziurrena egin dezaiogun, fedea ta maitasuna Ari eskatuaz... Begira: bakarraldi edo gogojardunak egin ondoren, asmo eta naikunde onak franko izaten ditugu. Asmo on oiek Espiritu Santuaren arnasa dira. Bai ba; gure animan-zear igaro, eta dana erraberritu baitu.

Aize beroak ere alaxe izotza urtu, eta udaberria erakarrri oi du... Zuek, santu aundien maillako ez izanarren, sentitzen dituzute sarri-askotan otoitzaren eta Jainko-presentziaren gozotasunak: ots, Espiritu Santuaren agertze batzuk dira oiek. Espiritu Santua degunean, biotza zabaldu, edatu, Jainkozko maitasunean murgildu egiten da. Arraiñak izan al du iñoz atsekaberik, ur-geiegi duela-ta? Kristau onak ere eztu erabe Jainkoarekin luzaro egoteko. Ba-da or bazterretan er-

lijioa gogoalkarri jotzen duenik: Espiritu Santurik ezdufela-ko gertatzen zaie ori.

Inpernukoai galdera au egingo balitzakie, alegia: "*Zergatik al zaudete or inpernuan?*", onako auxe erantzungo luteke: "*Espiritu Santuari gogor egin geniolako*". Santuei, berriz, beste galdera au egingo bagenie: "*Zergatik al zaudete zeruan?*", denak, ao batez, auxe esango ligukete: "*Espiritu Santua aintzat artu genulako...*" Gogorapen onak etortzen zazkigunean, Espiritu Santuak ikustaldi egiten digulako seiñale da.

Espiritu Santua indar bat da. Espiritu Santuak eusten zion Simeon Estilitari kolumna-gaiñean iraun zezan. Martiriai ere Berberak eusten zien. Espiritu Santuaren laguntza gabe, martiriak zuaitz-ostoak bezin samur eroriko lirake. Su aundi-ikaragarriak piztutzen ziran Martirien kontra: Espiritu Santuak, ordea, su oien beroa goi-maitasunaren galdaz utsera ekartzen zuan.

Emagun errege aundi bat. Errege onek bere aldameneko ministru bati onako agindu au ematen dio: bere mendeko gizon bat bere kontura ar dezala, eta itz auker esaten dizkio: "*Gizon orri alde guzitara lagunduko diozu, eta gero berriz ere onik biurtuko didazu*". Ain zuzen ere, orixe egin du Jainkoak Espiritu Santua gugana bialtzean. Au bai zoriona, ene semeak, Espiritu Santuak guri laguntzea! Gidari on eta tre-bea, orraitio!... Eta gidari oni jarraitu nai ez! Gezurra dirudi!...

Ona emen beste adibide-konparazio bat, Espiritu Santua nor edo nolako degun aditzera emateko. Gizon batek kotxe bat dauka zaldi bikain batekin, eta Paris-era eraman nai ginduzke. Guk baietz esan eta barrura igo beste zeregiñik ez genuke... Lan aundia ote da, gero, baietz esateko lan ori?... Aor, ba-da, Espiritu Santuak zerura eraman nai gaitu: baietz esan, eta Berak eraman gaitzala utzi, beste eginkizunik eztegu.

Espiritu Santua, gure animako loretegian, lore-zaintzan

ari dan lore-zaia bezela degu,... Espiritu Santua gure etxetiarra da...

Or dezu eskopeta bat. Ernatzen dezu (kargatzen)..., ordea tiroa ezta berez ateratzen, norbaitek disparatu bear... Era berean, on egiteko gaiak, izan, ba-dira gugan... Baiña sua jarri, eta egite onak atera, Espiritu Santuak egiten du.

Espiritu Santuak anima justuetan atseden gozo artzen du, usoak bere kabian antzo. Anima garbi baten asmo onak berotzen ditu, usoak bere umeak berotzen dituan bezelaxe.

Espiritu Santuak eramaten eta gidatzen gaitu, ama batek bi urteko bere aurra, eskutik eutsita, eramaten dun antzera..., ikusmena dun lagun batek itsuari bidea erakusten dion bezela.

Gure Jaunak jarritako Sakramentuek ez ginduzkete salbatuko, Espiritu Santua gabe. Gure Jaunaren eriotza bera ere alperrikakoa genuke, Ura gabe. Ain zuzen ere, orrexe-gatik esan zien Jesusek Apostoluei: *"Komeni zaizue ni joate; Ni joango ezpanitza, Pozgillea ez litzazueke etorriko-ta..."*

Espiritu Santua bearreko zan, Jesusek ereindako grazimordo ura, alea ekartzeraiaño etor zedin. Orixe gertatzen da galgarauaz ere: egozten dezu lurrera; ongi!, ori ere nai ta naiezko eginbearra zan, baiña ortaz gaiñera, eguzki ta euria ere bear dira, erne ta azi dedin, eta galburu biurtu dedin.

On litzake goizero-goizero onako otoitz au esatea: *"Ene Jainkoa, bidali zadazu, arren, zure Espiritua, ni zer naizen, ta Zu zer zeran, aretxek ezagut-erazi dezaidan"*.



VII

ANDRE MARIAZ

Gogokoa zaio Aitari Birgiña txit Santuaren biotza, biotz ori Jainkoaren eskuetatik atera dan lanik bikaiñena baita. Guk ere ez al degu gure lana maite izaten, batez ere ongi egiña izan danean? Jainko Semeak bere amaren Biotz orrengan, iturri salbagarri bat ikusten du, gu erosi giñun odola eman dun iturria, alegia. Eta azkenik, Espiritu Santuarentzat, Ama Birgiña bere Templua bezela da.

Profetek Andre Mariaren bikaintasuna adierazi zuten, berau mundura etorri baiño leen; eguzkiarekin bekaldetu zuten. Izan ere, Ama Birgiñaren etorrera, ederki-asko konpara diteke laiño-egun bateko eguzki ederrarekin.

Andre Maria mundura etorri aurretik, Jainkoaren aserrea genun gure buruen gain zintzilika, gu erdibitzera dijoan ezpata antzo. Ama Birgiña lur-gaiñean agertu bezin laister, aserre ori baretu zan... Etzekian Ama Birgiñak, Jainkoaren Ama izateko aukeratua zegonik, eta ala, bere aurtzaroan, maiz esaten omen zuan: *"Noiz ikusiko ote det nik, Jainkoaren Ama izango dan ume zoragarria?"*

Birgiña Santuak bi aldiz sortu gaitu: bat, bere Semea gizon egin zanean, eta Gurutzaren oiñetan bestea. Geroztik, bi aldiz degu gure Ama.

Maiz konparatzen degu Birgiña Santua ama batekin;

(*) Esprit p. 86

baña, egia esateko, amarik oberena baiño askoz ohea da bera. Izan ere, amak (asma ditekenez onena izanda ere) noizik bein zigortu egiten du bere semetxoa, okerren bat egin diolako-edo; jo ta astindu ere bai. Eta ongi egiten dula uste du. Birgiña Santuak, ordea, ez du orrelakorik egiten: ark beti artzen gaitu maitekiro, eta ezgaitu bein ere zigortzen: ain da ona!

Ama on onen Biotza maitasun eta erruki utsa besterik ezta, gu zoriontsu ikusi beste ametsik ez du. Arengana laister egite utsarekin, ongi artuak izango gera...

Semeak justizia du, Amak, berriz maitasun utsa: besterik ez du.

Jainkoak gugatik iltzeraiño maite izan gaitu; ala ta gutiz ere, ordea, Gure Jaunaren Biotzean Zuzentasuna aurkitzen da, Justizia, au Jainkoaren "*tasun*" edo atributuetatik bat da. Ama Birgiñaren Biotzean, berriz, erruki utsa besterik ezta... Aren Semea pekatari bat kastigatzera dijoanean, Andre Maria urreratzen zaio, eta ezpata geldiarazten du, errudun gaisoarentzat barkazio eskatuaz. "*Ene Ama —esaten dio Kristok— Nik zuri ezin gauzarik ukatu. Inpernua damutzea posible balitz, baita ari berari ere iritxiko zenioke zuk grazia*".

Ama Birgiña bere Seme ta gure artean Bitarteko bezela jarrita dago. Zeinbat eta pekatariago izan, biotz-beratasun eta erruki geiago agertzen du Ark guretzat. Amak ere, bere semeetatik, zein maite izaten du geiena? Negar-malko geiago ixuri-arazi diona, noski. Izan ere, amak ez aldu beti seme gaisotiarengana joera izaten, gal-zorian dagoanarengana? Medikua gaisotegian, makalen daudenekin ez al da geiago arduratzen?

Lurreko ama danen biotzak pillatu, eta Andre Mariaren Biotzarekin konparatu: izotz-koskorra besterik ez tira, aren ondoan ipiñita. Ain samurra da guretzat Ama on orren Biotza!

Ara noraiñokoa dan Ama Birgiñaren ontasuna! Aren zerbitzari aundi Bernardo Santuak etengabe zekarzkian ez-

paiñetan itz auek: *Agur, Maria... Alako batean, Ama on onek gisa onetan erantzuten dio: Agur, ene seme Bernardo...*

Agur Maria: orra or bein ere aspertzen eztun otoitza.

Mundu ontako gauza guzietaz mintzo geranean (naiz sal-erosietako kontuak, naiz politikako goraberak), gogaitu egiten gera. Birgiña Santuaz itzegiten dezu, eta beti iruditzen zaizu berri.

Ama Birgiñaganako jaiera, leun-leun, ezti, gozo ta onura aundikoa da.

Santu danak izan dute Ama Birgiñaganako debozio berezia. Zerutik eztator grazirik, aren eskuetatik ezpada.

Ezta iñor etxe batean sartzen, ate-zaiari itza zuzendu gabe: ots! zeruko ate-zaia Ama Birgiña degu.

Gizon itzal aundiko bati opariren bat eskeiñi nai diogunean, opari ori, ark geien maite dun personaren bidez, egiten diogu, esku-erakutsia atsegiñago izan dakion. Gure otoitzak ere, Ama Birgiñak presentatuak badira, berarizko balio bat irabazten dute, indar bere moduko bat lotzen zaie. Bai ba, Ama Birgiña Jainkoa bein ere ofenditu eztun kreatura bakarra da-ta.

Ama Birgiñak soil-soilik bete izan du Lenengo Agindura: *Jainko bakar bat adoratu, eta biotz osoz maitatuko dezu.* Ark bete-betea egin izan du ori...! Semeak, Aitari eskatzen dion guzia, irixten du. Era berean, Amak Semeari edozer eskatu dezaiola, ta bereala izango zaio emana.

Gure eskuek, usai gozozko zerik aztatzen badute, usai gozodun bihurtzen dira, eta ikutzen duten edozeri zabaltzen diote gero kutsu gozo ori. Iragan-arazi ditzagun gure otoitzak Ama Birgiñaren eskuetatik: Ark erantsiko die usai ona.

Munduaren azkenean nik uste det Ama Birgiña lasai ta patxada onean geratuko dala, baiña munduak dirauan artean, danak ari zaizkio tiraka eta bultzaka, alde guzietatik... Ama Birgiña ume asko ditun andrearen irudiko baita. Etengabe diardu batengandik bestearengana, guzien ardura arturik.

VIII

ANDRE MARIAZ GEIAGO

Testamentu Zaarreko Profetek alde z aurretik eman zuten aditzera Mariaren bikaintasuna; berau sortu baiño leen, alegia. Andre Maria eguzki eder baten iduriko dala esaten digute Profeta oiek. Izan ere, Mariaren etorrera tajuz konpara diteke eguzki ederrarekin, edo egun lañotsuan jasotzen dan aize aundi batekin.

Sortzez garbia

Gaurko Ebangelioak (Seputagesima igandekoak) etxeko jauna goizean-goiz langille-billa joan zala esaten digu, bere maastirako langille-billa, alegia. Beraz, artean ez ote zan langillerik maasti onetan? Bai, orixe, an zegoan Andre Maria, maastian bertan jaioa baitzan. Eta maasti onek zer esan nai ote du? Grazia. Bai, Andre Maria graziazko izaeran jaio zan, pekatu gabe sortua da-ta. Gurekiko, berriz, gu ere deituak izan gera maastira, etxeko jauna gure billa etorri zan; baiña Andre Maria beti bizi izan da bertantxe... Au langille zoragarria! Guztiz garbia, orbangabea da bera. Jainkoak, nai izan balu, bere esku zuan egin duan baiño mundu ederragoa sortzea; Andre Maria baiño izaki oberik, ordean, etzezakean sortu. Orra adibide ziztrin bat: zuek badakizute

(*) Catéchismes p. 207

itxasoan izaten diran arrautza txatxar oien berri...: oietatik ateratzen dira gero arrai txiki batzuk, ur aundietan barrena izugarrizko abiaduraz ibiltzen diranak. Orobat Andre Maria, sortu izan zanezkoxe, graziaren ur aundietan igeri dabil, bizitza bete-betea berekin duela.

Ba ote da zuen artean, Ama Birgiñak guretzat izan duen maitasuna gaurko egun onetan (1) gogoratu duenik?... Bere semea baiño maiteago izan gaitu. Bearrezko zan bitatik bat: ala bere Semea iltzera utzi gure animen salbazioa irixteko, ala gizadia galtzera utzi, Semea beretzat gordetze-ko; baiña ark naiago izan zuan Semea gure salbazioagatik eman. Ain zuzen ere, gaur eskeintzen dio Seme ori Aita Jainkoari, gaur asten du Andre Mariak Kalbarioko bere Oparia.

Gure bitarteko

Arritu gaitezen Jainkoa zein ona dan ikusita, gu Beraganatzearren mirariak ugaritu egiten baititu. Orain dala urte gutxi, Ama Birgiña bidali du, eskuak zeruko ondasunez bete-beteak dauzkala, ondasun oiek lurrera zabaltzera. "*Zoaz, ene Ama, esan zion, erri gaixo orri ikutu zaiozu biotzean*". Banaka batzuk konbertitu dira; oso gutxi, ordea.

Geroxeago artzai pobre batzuei ere agertu zaie. Goibel, negarmalkoak dariola, eta Pasioko tresnak eskuetan ditula, gure biotza ukitzearren.

Gizona zerurako sortua zan; etsaiak, ordea, ara eramaten giñun eskillara, puskatu egin zun. Jesukristok, bere Pasioa dala bide, beste berri bat antolatu digu. Andre Maria eskillara onen goi-goian aurkitzen da. Bi eskuakin eskillara oraturik dauka, eta auxe esaten digu: "*Atozte! Atozte!*" Oi! Dei onen ederra...! Egin dezagun lan aspertzeke, zerua zabalik ikusten degu-ta. Eskillaran-gora joan besterik ezta-go. Otsegin dezaiozun Ama Birgiñari laguntza-eske: ez-tigu ezetzik esango, Beragana joatea nai du-ta.

(1) 1855'ko Kandelari egunean.

Etxe batera joan nai degunean, ate-zaiarengana joan bear lendabizi, atea zabal dezan. Ama Birgiña degu zeruko atezaia. Ezin zerura sartu, aren laguntza gabe.

Aberats bati gauzaren bat eskatzen diogunean, bere ondasunen ardura duenarengana joan oi gera. Ba-da, alabaiña, onako au esaten duenik: "*Santuengana joaten ibilli bearrean, nik naiago det Jainkoagana zuzen-zuzenean joan...*" Gaizki esana! Itzal aundiko gizon bati zerbait eskeiñi nai diogunean, ark maite duen lagunagana jotzen degu, era onetan esku-erakutsia atsegiñago izan dakion. Gure otoitzak ere alatsu: Andre Mariaren eskuz badijoaz, balio bere moduko bat euki daroe. Eta ezagun da zergatik: Ama Birgiña izan baita Jainkoa bein ere ofenditu eztuan kreatura bakarra. Semeak Aitari eskatu dezakion guztia, irixten du; Amak ere, orobat, Semeari eskatzen dion guztia.

Begira, ene semeak, ona emen Jainkoari oso atsegin zaion otoitz modu bat: erregutu zaiozute Ama Birgiñari, bere Seme maite odoldua eta urratua Aita Betikoari eskeiñi dezaiola, pekatarien bide oneratzea lortzeko asmoarekin. Orra egin ditekcan otoitzik onena.

Gure otoitz denak Andre Mariaren eskuetatik bear dute igaro, bere Seme maiteari atsegiñago izan dakizkion amoreagatik. Lore-sorta bat adiskide bati eskeiñi baño leen, beste bati, —onek usai gozoa geitu dezaion— eraman bagenez bezela, Andre Mariak gure otoitzei usai gozoa ipintzen baitie.

Santu batek — Leon Anaiak, alegia; ikus *Frantziskotarren Kronika*—, bi eskillara ikusi omen zitun: bata gorria zan, bestea, berriz, txuria. Gorrian-gora zijoaztenak, erori egiten ziran ia danak; txurian-gorakoak txit eroso eta azkar ziran erpiflean. Gure Jaunak esan zion: *Eskillara gorria neroni naiz; eskillara txuria, nere Ama da*". Izan ere, ezta posible Ama Birgiñaganako debozioa daukana zerura ez joatea, eta debozio ori gabe salbatzen danik, oso gutxi da.

Gazte batek Ama Birgiñari egunero-egunero otoitz batzuk egiteko oitura zuen. Jokuari lotu zan gero, eta diru-pilla galanta galdu zun. Orduan etsipenean sarturik, kutxillo batekin iru

ebaki egin zizkion bere buruari. Il-agiñean jarri zan. Ama-Birgiña oe-ondora etorri, eta esaten dio: "*Konbertituko al zifake...? Neronek iritxiko dizut grazia*". Ama Birgiñak sendatu egin zun eta kristau on-ona izatera etorri zan...

Andre Mariaren Biotz Santua

Gaur illaren atzen-eguna degu, Andre Mariaren Biotz Santuko jaia, alegia. (1)

Kristo Gure Jaunaren izenean jai asko egiten dira: Jainkoaren Semea gizon egin zanekoa, Jesusen Biotzarena, Aldareko Sakramentu Santuarena...

Ama Birgiñaz ere beste orrenbeste gertatzen da. Ala ospatzen ditugu bere Sorkunde orbangabea, bere Jaiotza, bere Biotz garbia: ain eder ta ona dan Biotz ori, alegia, Iruztasun Santuaren lanik bikaiñena, eta Jainkoak liluraturik bezela ikusten dun Biotz zoragarria.

Zer ikusten ote du Aitak Andre Mariagan? Bere eskuek egindako lan aundi-ederra. Norberak egindako lana beti izan oi da maitagarri, batez ere ongi egiña baldin bada. Semeak, berriz, bere Ama maitea ikusten du, eta Espiritu Santuak bere eliz-templua.

Ama Birgiñaren biotza ain da samur, ezen ama guztiak alkar jota izotz-puska bat baizik eztira aren ondoan.

Ama on onen biotza maitasun eta erruki utsa da. Beragana laister egin besterik eztago, ongi artua izateko. Gure zoriona beste ametsik eztu ark. Jainkoak gugatik iltzeraiño maite izan gaitu; ala ere, Jesusen Biotzean Zuzentasuna edo Justizia ere ba-dago, Jainkotasunari dagokion *tasun* bat, atributu bat baita au; Andre Mariaren Biotzean, berriz, errukia besterik ezta aurkitzen. Beraz, gure uste osoa Beragan bear degu jarri, eta Berari eten gabe dei egin.

Bein batean, Jesus pekatari bat zigortzera zijoan. Ama Birgiñak laster egiten du beragana, zigorra geldiarazten

(1) 1851'ko Orrillaren 31'an.

du eta grazia ezkatzen dio pekatari arentzat... “*Ene Ama —esaten dio Jesusek—, Nik Zuri ezin gauzarik ukatu. Inpernutarrak damutzea posible balitz, aiei ere zuk grazia iritxiko zenieke*”.

Andre Maria bere Seme eta gure artean bitarteko bezela jarririk dago. Zeinbat eta pekatariago izan gu, ainbat eta biotz beraago eta errukitsuago da ura guretzat. Negar-malkorik geiena kostatutako aurra, uraxe du amaren biotzak kuttunen. Ama ez al dijoa beti gaisotienagana? Medikuak, gaisotegian, ez al du ardura geiago artzen gaizkien aurkitzen dirakin?

Andre Maria aur asko ditun ama baten iduriko da; joan doa eta etorri dator ara ta onera, etengabe jardunean ari da. Pekatari bakar bat lurgaiñean dagoan artean, eztu Ark gelditzerik.

Ama Birgiñak bi aldiz sortu giñun: Enkarnazioko misterioan eta gurutzearen oiñetan.

Agur Maria-z

Aitagurea kenduezkero, Agur Maria da otoitzetan ederrrena.. Otoitz onek eztu bein ere aspertzen.

San Bernardo, Andre Mariaren zerbitzari aundia, *Agur erregiña* asmatu zuena, etengabe aritzen zan esaten: “*Agur Maria*”. Alako batean, Ama Birgiñak esaten dio ari: “*Agur, Bernardo, ene seme ori*”.

Domingo Santua eliza batean sermoi egiten ari zala, bere senide bat etorri zan elizara etxekoekin batean. Santuaren begitan ain itxusi azaldu zan senide orren anima, ezen Santua deadarka asi zan itxusitasun ori esaten. Bildurrak artu zun jende guztia: aren emazte, semeak, dan-danak igesari eman zioten. Domingo Santuak Errosarioa errezzatzeko esan zion. Eta errezzatzen ari zan bitartean, ingurumarian zeuzkan deaburu guztiak aienatu ziran.

Santu batek onela esaten zion betiere Ama Birgiñari:

“Andre Maria, erregutu zazu nere alde, orain eta nere erioztako orduan”. Ama Birgiñak esaten dio:

—“Nai al zenuke Nerekin zerura etorri?”.

—“Zerura, zerura!”. Oiu auxe egin eta beingoan illik gelditu zan. Uraxe bai eriotz eder eta opagarria!

Bein batean, praille bat mixio egiten ari zala, abogadu bat aurkeztu zitzaion, arren ta arren bere etxera etortzeko esanaz. Tximu bat zeukan gizon orrek, maia jantzi ta erantzi eta beste lan-mesede asko egiten zizkiona. Aita Praillea etxean sartu bezin laister, tximua oe-azpian gorde zan, eta nagusiak irtetzeko aginduarren, etzuan nai izan. Orduan Prailleak agindu zion: etorri zan, eta ona emen zer aitortu zun: jabeak egunoro *Agur Maria* errezatzen zuela-ta, otoitz ori esateari noiz utziko ote zion begira zegoala, egun artan bertan gizona arrapatu eta eramateko. Aita Prailleak agindu zion alde egiteko: orman zulo bat egin eta aienatu zan betiko.

Bein batean, lasaikerizko bizikera eramandako eri bat, illurren aurkitzen zan. Konbersioa aipatu zioten: etxeokoe arren ta arren, alkarren leian ekiten zioten Jainkoagana zedin; ark, ordea, ezer aditu nai ez. Orduan, bere adiskide batek esaten dio:

—“Illurren zaude... ta ez al dezu gerokoaren ajolik?”

—“Bizia nolako, eriotza alako”, erantzun zun berak.

—“Ala ere, —iardesten dio adiskide onek—, ez al dezu ba zuk egunean-egunean esan: “*Santa Maria, erregutu zazu gu pekatari gizagaixoen alde, orain ta gure erioztako orduan*”...?”

—“Bai, egia.. Eta zuk uste al dezu Ama Birgiñaren laguntza neregianatu dezakedala oraindik? Oi! ala bada, zoaz, ene lagun ori, eta ekarri onera apaiz bat”.

Ba-dijoa adiskidea, eta ba-dakar apaiz bat. Negar-malkotan aurkitzen dute gaixoa. Asmorik onenakin egin zun bere aitortza. Gaixoa, apaiza ta adiskidea, negar batean zeuden denak.

Andre Mariarekiko debozioaz

Ama Birgiñaganako jaiera-debozioa ezta da, gozoa. Ari otoitz egiten, bein ere ezin aspertu. Lur ontako berritsuketan —politikaz-edo...— ari geranean, gogaitu egiten gera; baiña Andre Mariaz mintza ezker, beti iruditzen zaigu berri, eta solasgaia, ezta bein ere akitzen.

Izan gaitezen iraunkor eta leial, Ama Birgiñaganako eginbearrak beti zintzo betetzen; eta Ari otoitz batzuk eguneroko oitura, ez dezagula bein ere galdu. Ba-zegoan etxe bat bide-bazterrean, eta etxe orren inguruan gizon bat aurkitzen zan. Gizon onek makillaz astintzen zitun bidean-zear zetozen lagunak. Santu batek alde artatik igaro bearrara zun; eta Jainkoaren izenean ia nor zan galdetu zion:

—“Inpernuak bidalia, erantzun zun ark, orra nor naizen: Begira nago berrogeita urte oitan, etxeko Jaunak Ama Birgiñari otoitz bat esateko oitura noiz uzten duan, beingoan arrapatu ta eramateko”.


Gure tentazio ta estu-aldietan, ez gaitezen gelditu Ama Birgiñari otoitz egin gabe, bildurgarri baita au etsaiarentzat. Gure otoitz ta eskariak bijoaz bere Biotz garbi-garbiaren bitartez. Santu batek galdetu zion bein ea zein zan, bere bikaintasunen artean, atsegiñen zaiona. Eta erantzun zuen: *“Nere garbitasun orbangabea. Berau da edozein gauza irixteko bidea”*.

Eskerrak erakutsi dezaizkiogun Jainkoari, Ama Birgiña pekatu gabe egin zuelako, orren aundi, orren eder ta zoragarri egin duelako; Jainkoaganako maitasunaz irakitzen dagoan Biotz gori batekin, sortu zuelako.

Kristau onak, Andre Mariaren Bikaintasunak ikusita, poztu egin bear du; poztu, guztiz ere, Ama Birgiña Jainkoaren gogokoa dala ikusita. Andre Mariaz kanpo, eztago Jainkoa benetan maite izan duenik; izan ere, ozta-oztan esan ditekete guk Jainkoa maite degula, pekatariak baitgera.

Andre Maria imitatu

Ba-dira Ama Birgiñari otoitz egin arren, otzik gelditzen diranak. Ama Birgiñari jarraitzeko asmorik ez izateak egiten du ori. Iñor benetan maite degunean, zorionez betetzen gera, baldin guk egiten ditugun gauza berberak, gure maiteak egiten ba ditu. Andre Mariak ere orixe nai du bere seme-alabengan ikusi. Au da: Berberak praktikatu zituan birtuteak, bere-seme-alabek praktika ditzatela, alegia, eta batez ere beraren garbitasun, apaltasun eta goi-maitasuna. Garbitasuna! Birtute eder onek egin du Ama Birgiña Jainkoaren gogoko, bere biotzaren kutun... Apaltasuna! Birtute au baskula baten antzera da: alde batetik zeinbat eta geiago beeratu, ainbat eta geiago goratzen da bestetik. Andre Mariak bezela, makur dezagun gure burua eta jasoak izango gera gu ere. Goi-maitasuna. Imita dezagun Jainkoarekiko izan zuan maitasun sutsu ura, otoitz egin dezaiogun, eta Berak lagunduko digu zerura.



IX

ELIZA ETA AITA SANTUAZ

Eliza, fededun guztien lagunarte edo batzarra da, Erromako Aita Santua guzion buru eta lokarri dalarik.

Oiñaze-Eliza deitzen zaio Garbitotiko animek osatzen duten batzarrari; garaipen-Eliza, berriz, zeruan santu guztien artean egindako billera edo elkargoari; eta azkenik, burrukalarien Eliza, gerok mundu osatzen degunari.

Gure otoitzak Aita Santuaren otoitzekin elkartu, eta dakinak bat eginik igotzen dira zerura.

Oitura txit ona izan oi da onako au, alegia; goizero iru edo bost Aitagure ta Agurmari esan, mundu guztiko kristauek egiten dituzten meza, jaunartze ta abarri elkartuta egoteko asmoarekin. Era onetara, otoitz guztietan parte izaten degu, baita besteek gure otoitzetan ere.

Ba-dakizute Erroman oraintsu gertatu dan mirariaren berri (1). Santa Veronikak Jesusen Aurpegi Santua zapi batekin nola txukatu zuan? Ba Kardenalek agirian jarri zuten zapi ori; irudia illundua; ia zearo desegina zegoan, urteen egitez. Eta orain Aurpegi Santu ura berriturik agertu izan da, oso-osorik, triste eta negarra dariola. Agertze onekin, eta negar-malko auen bitartez, auxe nai zun Jainkoak Kardenalei adieraztera eman: "*Non dezue nere seme maitea, zuen Aita? Kanpora egotzia izan da, non ote dago?*" Ama

(*) Catéchismes, p. 219


(1) 1849 urtean, Pio IX garrena, Gaeta-ra igesi joan zanekoa.

Birgiñak ere, Jesus ildakoan, San Pedrori orixe bera esaten zion: *"Non dezue zuen Aita ta ene Semea, ezpaitut geiago ikusten?"*.


Jainkoak negar-malkoak isuri ditu Aita Santuagatik, bere semea galdu duan aitaren antzera, emaztea galdu duan senarrak bezela. Mirari bat ere egin du Aita Santuaren alde. Aita Santuak bai bear duela santu izan!

Aita Santuari egindako limosna, gogokoa da Jainkoaren begietan. Pobreak beti izango dituzue zuen artean; baiña Aita Santuari emateko aukera, eztezue beti izango. Gaiñera, ari limosna egiñaz, parte izan oi gera bere otoitz santuetan.

Jaunak beti erakutsi izan du Aita Santuarekiko itzal ori. Asisko San Frantzisko-ri orra zer esan zion: *"Zoaz nere Ordezkoarengana, eskatu zaiozu barkapen ori (1), bera baita nere ondasun guztien zaitzallea"*. Beraz, Aita Santuagatik egin dezagun otoitz, itzuli dedin arte. Auxe da Jainkoak bere negar-malko alien bidez eskatzen diguna.



(*) Porziunkulako Barkapena, 1221 gn. urtean.



II Atala, Zer Eskatu

X

OTOITZAZ

Begira, ene semeak: kristau baten ondasuna, altxorra eztago lur-gaiñean, zeruan baizik. Beraz, gogo-biotzak ere ondasuna dagon tokian bear ditugu jarri.

Gizonak eginkizun eder bat du: otoitz egin eta maitatzeko eginkizuna, alegia... Otoitz egin eta maitatu: ona emen gizonaren zorion guztia, lurgain onetan bizi dan artean!

Otoitz, Jainkoarekin bat-egite ta alkantze bat besterik ezta. Biotza garbi eta Jainkoarekin bat-egiñik dagoanean, usai gozo bat sumatu oi da norberagan, zoratzen gaituan gozotasun bat, lilluratzten gaituan argi bat. Barren-barreneko bat-egite onetan, Jainkoa eta animak ba al dakizute zer diruditen? Urtu eta bat izatera etorri diran bi argizari-mutur; ezin bat-a besteagandik apartatu. Gauza zoragarria, benetan, Jainkoak bere kreatura txikiarekin egiten duen batasun au. Asmatu ere ezin ditekean zoriona baita.

Gure pekatuz, otoitzik ez egiteko kastigua irabazi genuen; Jainkoak, ordean, on utsa da-ta, Berarekin itz egiten uzten digu. Gure otoitza, Ark berarizko atsegiñaz artzen duen intsentsu bat bezela da.

Ene semeak, zuek biotz txiki-estu-mear baten jabe zerate, baiña otoitzak biotz ori zabaldu, aunditu eta Jainkoamaitatzeko gai biurtzen du... Otoitza, zerua alde-zurretik

(*) Esprit. p. 105

gaitu bein ere gozotasun gabe uzten. Ezti baten antzera da, animara jetxi, eta an dana eztatzen duen ezta bezela. Neke eta atsekabeak ere, otoitz ondo egiñaren aurrean, urtu egiten dira, elurra eguzki-aurrean antzo.

Otoitz-bitartean denbora aguro ta atsegiñez igarotzen da, konturatu ta sentitu ere egin gabe. Begira: *Bresse*-aldean nenbilen garaiean, ia apaiz danak gaixorik zeuden; ibillaldi aundiak egin bear izaten nitun; eta bideari ekiten nion artean otoitzean aritzen nintzan. Eta egia diozuet: denboraren luzea ez nuen sentitzen.

Ba-dira otoitzean galdu eta murgiltzen diranak, arraiña uretan galdu oi dan antzera. Jakiña, alakoak oso-osorik Jainkoarengan bizi dira. Oien biotzean ezta Jainkoak tarte edo zirristu eragotzirik. Nik bai maite ditudala orrelako anima bikain zindo-goitarrak!... Asisko Frantzisko Santuak eta Santa Koletak, gure Jauna ikusi egiten zuten, baita berarekin itzezin ere, guk alkarrekin itzegiten degun bezelaxe. Guri, berriz, zenbat aldiz gertatzen zaigun elizara joatea, ara zertara goazen eta an zer eskatu bear degun ere ezkagigula! Iñorenena joaten geranean, beti jakin oi degu zergatik edo zertarako goazen... Batzuk, otoitzean jartzen diranean, Jainkoari itz auek esateko itxura agertzen dute: "*Bi itz-erditxo esatera natorkizu, Zurekiko eginbear gogaikarriok erditik ken ditzadan*"...

Askotan etortzen zait gogora auxe: Gure Jaunari agur egitera gatozenean, nai genuken guztia eskuratuko genukela, alegia, baldin fede bizi-bizi eta biotz garbi-garbi batekin etorriko bagiña. Baiña, auxe tamala!... ez federik, ez ezperantzarik ez leia bizirik, ez maitasunik eztegu...

Gizona-rengan bi ots edo oi-u-mota aurkitzen dira: aingeru-otsa eta abere-otsa. Aingeru-otsa otoitza da; abere-otsa, berriz, pekatua da... Otoitzik egiten ez dutenak, lur-alderontz makurturik bizi dira; satorrak bere burua lurrean nola sartzen duan? Ba alaxe. Oiek zearo lurkoiak, guztiz astotuak izan oi dira, eta bizitza ontako gauzetaz baizik eztute gogoeta egiten... Oietako bat zan arako gizon zeken-diruzale ura. Elizakoak artzera zijoa. Zillarrezko gurutze bat —mun eman zezaien—

erakutsi zioten, eta orra zer esan zuen: “*Au gurutze ederra, amar ontza guxienez izango ditu bai onek!*”.

Zeruan, adorazio gabeko egun bat bakarra balego, ez legoke an geiago zerurik; eta inpernuan dauden errukarriak, beren oiñaze gorriak gora-bera, adora balezateke, ezlitzake geiago inpernurik! Ai! Zorigaiztoko oiek ba-zuten biotz bat Jainkoa maitatzeko eta mingain bat Ura bedeinkatzeko: ain zuzen ere, auxe izango zan aien etorkizuna... Orain, berriz, berek eraman dute beren burua Jainkoa betikotasun guztian madarikatzera. Minutu baten epea otoitz egiteko itxaron balezateke, leia biziz egongo lirake minutu orren zai, eta leia orrek gozatu egingo lituzke aien oiñaze guztiak.

* * *

Aita gurea, zeruetan zaudena:... Au zoriona, ene seme-alabak, aita bat zeruetan eukitzea!...


Betor zure erreinua!... Nik orain Jainkoa nere biotzaren errege ta nagusi bezela jartzen baldin badet, egunen batean arekin errege izango naiz zeruan.

Egin bedi zure borondatea!... Jainkoaren borondatea egi-tea baiño gozoagorik eztago, gauza oberik ere ezta... Gure lanak, ongi egiñik joan ditezen, Jainkoak nai duen arabera egiñak izan bear dute, Aren asmoen arabera egiñak, alegia.

Emaiguzu gure eguneroko ogia... Guk bi atal ditugu: anima eta gorputza. Gure gorputz gaixó onentzat janaria eskatzen diogu Jainkoari, eta eskari oni erantzunaz, Jainkoak lurretik sorrarazten du gure bizitzari eusteko bear dan guztia.. Baiñan guk anima degu gure zatirik ederrena, eta onentzat ere janaria eskatzen diogu. Lurra, ordea, txatxarra izan, gure anima asetzeko aiña ezin izan. Gure anima Jainkoaren gose da, eta Jainkoaz landara, beste iñork ezin bete dezake anima ori. Eta orregatik Jainkoak etzun uste geiegikeririk egiten zuanik, lur-gaiñera jetxi eta gorputz bat artu zuanean, gorputz ori gure animen janaritzat eman zigunean. “*Nere aragia* —Gure Jaunaren itzak dira— *bene-benetan janari bat da...*

probatze bat bezela da, paradisuko jario bat bezela. Otoitzak ez *Nere aragia: orra or zein dan munduaren bizitzarako Nik emango dedan ogia*".

Geroztik, animen bizigarria, Sagrarioan gorderik dago. Zer da, beraz, Sagrarioa? Kristauen janariak eukitzeko tokia, kutxa... Oi, zeñen eder dan ori, ene semeak! Apaizak hostia santua zuen aurrean jarri ta erakusten duanean, zure animak onela esan dezake: *Orra or nere janaria!*... A, ene semeak, gure zoriona geiegikoa da...! Eztegu au ongi jakingo zerura arte. Auxe tamala!!!...



XI

AITA GURE AZ

Otoitz oni onako itz auekin ematen zaio asiera: *Aita gurea, zeruetan zaudena!* Auek bai itz ederrak! Sarritan esan bear genituzke itz auek. Zein ote da, beraz, gure Aita? Jainkoa! Auxe bai gogoeta pozgarri eta kontsolagarria!

Betor gugana zure erreinua. Graziaren erreinua gure biotzetan: orra or, emen adierazten dan erreinua.

Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia. Bi janari-mota izan oi da: animarena eta gorputzarena. Gorputzaren jana, lurrak ematen du. Gure gorputzak, ustelkor izanik, lurretik jaso oi du bizigarria. Alde batetik begiratu ezkerro, giza-gorputza baiño gauza zatarragorrik eztagola esan genezake. Jarri itzazute alkarren ondoan abere il bat eta gizon ildako baten gorputza, bata ta bestea iru egunetan lurpean euki ondoren: abereak baiño kirats atsituagoa gizonak egotzi baietz!...

Animaren janaria, berriz, Jainkoaren gorputza eta odola da. Au janari zoragarria! Ba-dago emen, gogoratu ezkerro, betikotasun guztian zoraturik egoteko gaia. Jainkoa det nere janaria, Jainkoaren beraren Gorputz eta Odola! Au gizonaren zoriona! Jainkoa adonatu, maitatu eta errezipitzeko egiña izan baita! Komunion Jainkoarekin bat-egiten diran anima garbi

(*) Catéchismes p. 133

oiek, bai dirala zoriontsu! Zeruan dirdira berezi batekin jantzirik agertuko dira, diamante ederren antzera, Jainkoa ikusiko baita oiengan.

Pekatoriaren zorigaiztokoa, ainbeste maite gaituan Jainkoa, ezpaitu ark maite! Zeruan atsekaberik izatea al balitz, inoiz Jainkoagandik urruti bizi izan giñala- ta, orretzek eman-go liguke atsekabe. Jainkoa maite, Jainkoa artu eta Jainkoa zerbitzatuz bizi dan animaren bizitza, ura bai bizitza zorionekoa! Oi, ene anima ori, moraiñokoa dan zure zoriona! Jainkoaren gorputza janaritzat eta beraren odola edaritzat baitezu! Gogoratzera jarriko bagina, ba-da maitasun-osin onetan non ito.

Jainkoaren esana da: *“Zer ere eskatu dezazuten, ura guztia emango dizutet Nik”*. Baiño autatzea gure esku utzi izan balu, ezliguke inola ere gogoak emango ori eskatzea —Jainkoak bere burua eman dezaigula eskatzea, alegia—. Eta orra, gizonak asmatu ere etzezakeana, Jainko baten maitasunak egin izan du.

Ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen. Erabaki ederrak artu bai, baiña gero autsi egiten baditugu, nor bere buruaren uste geiegi izateak egiten du ori. Zeruko grazia guban etengabe geitu ta aunditzeko arazoa, ez degula bein ere aztu. Esan dezaigun maiz Jainkoari: *“Nik nerez ezin dezaket ezertxo ere. Zu maitatzeko dedan borondatu au, Zuri eman: orixe besterik ezin dezaket nik. Ar zazu, arren! Ene Jainko ori, entsi zadazu, eta egin zazu zerorrek dena”*.

Barka zaizkiguzu gure zorrak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela. Gure lagun urkoa, nola eztegu barkatu eta maitatuko, Jesusen Biotz ona ikusita? Lagun urkoarekiko gorrotoko asmoak izatea: orra Jesusi naigaberik aundiena emateko bidea. Kristau on batek bere anaien utsegiteak ez-ikusi egiten, eta barkatzen daki: nola ez ba, bere buruaren ezer-eza ta billautasuna begien aurrean izanda? Kristo gure Jauna San Agustini agertu, eta esan zion borrarokatik otoitz ta otoitz egon zala Bera, azote ikaragarri aiekin banatu zutenean.

* * *

Jainkoak noraiño maite gaituan bageneki atsegiñaren atsegiñaz il egingo giñake.

Jesusen biotza on-ona da, gu guziok maite gaitu, iñortxo ere utzi gabe: beraz, uste osoa bear diogu eman. Gauza bat eztu ark maite: Bildurra, konfiantzarik-eza, edo susmo gaiztoa.





III Atala, Zer Egin

XII

ANIMAKO GARBITASUNAZ

Anima garbia baiño ederragorik!... Edertasun onen berri kristauak baleki, ez luke iñola ere animako garbitasuna galduko. Anima garbia, lur ontako gauzetatik, eta bere bu-ruagandik ere askatua ta libre bizi da... Arrazoi onegatik egin oi zuten Santuek ain gogor eta zorrozkiro gorputzaren kontra. Arrazoi ori dala-ta, etzizkioten gorputzari ematen premiazko gauzak ere, ezta bost minutu beranduago oetik jaikitzea ere, ez gorputzari berogarririk eman, ez atsegin zaiguna jan... Ara: gorputzak galtzen duena, animak irabazten du; gorputzari ematen zaiona, berriz, animaren kaltetan izan oi da.

Garbitasuna zerutik dator; Jainkoari bear zaio eskatu. Eskatzen badiogu, emango zaigu. Baiña galdu ez dezagun kontu aundia izan bear degu. Gure biotza arrokeriari, lizunkeriari eta beste griña gaizto guztiai itxi egin bear diegu... etxean iñor sartzerik nai eztanean ate-leioak itxi oi diran bezelaxe.

Nolako poza Aingeru Zaindariaarena, anima garbi baten ardura duanean!... Anima bat garbi danean, zeru osoak maitekiro begiratzen dio!...

Anima garbiak gure Jaunaren aldamenean egongo dira. Zeinbat eta garbiago lurrean izan, Jainkoagandik aintbat gertuago zeruan.

(*) Esprit. p. 70

Biotza garbi baldin badago, ezin dagoke maitatu gabe, maitasunaren iturburua —au da, Jainkoa— aurkitu baitu. *Zorionekoak —dio gure Jaunak— biotz garbidunak, Jainkoa ikusiko dute-ta*".

Anima garbiak eskubide arrigarria du Jainkoaren gain, nik esan-ala baiño arrigarriagoa. Jainkoaren borondatea ark egin bearrean, Jainkoak arena egin oi duela esango nuke. Ikusi bestela Moises, anima garbi ura. Jainkoak judutarren erria zigorkatu nai izan zuanean, onela itzezin zion Moisesi: *"Ez Neri erregutu gero, oraingoan nere aserre sumiñak erri gaizto au ondatu bear du-ta"*. Jainkoaren esan ori gora-bera, asi zitzaion Moises erriaren alde erreguka, eta baita Jainkoak barkatu ere erriari. Ezin zion ezetzik eman, orren anima garbiaren otoitzari. Aren eskabide-aurrrean, Jainko berbera ere makurtu egiten zan. Ai, ene semeok! Pekatu lizun madarikatu orrezaz bein ere likistu eztan animak, nai dun guztia irixten du Jainko onarengandik.

Garbitasuna gordetzeko, iru bide edo laguntza ditugu, alegia: Jainkoaren presentzia, otoitza eta sakramentuak. Liburu onak irakurtzeko aukera ere ba-degu, gaiñera; irakurtze oiek animarentzat janaria bezela dira, anima azi eta sendotu egiten baitute.

Zein eder ta zoragarri dan anima! Gure Jaunak Katalin Santuari bat erakutsi zionean, onek, arriturik, zion: *"Jauna Jainko bakar bat baizik eztala ezpaneki, ori ere Jainko dala esango nuke"*. Ain zan eder ta ikusgarri! Eguzkiaren dirdirak nola uretan ñir-ñir egiten duen? Jainkoaren irudia ere alatsu agiri baita anima garbiagan, bere edertasun osoarekin.

Anima garbia Irutasun Santuko iru Personen pozgarri da. Aitak bere lan eder ori ikusita, auxe-edo esango bide-du: *"Ona emen Nik egindako izaki bikain-bikaiña"*! Semeak, berriz, bere Odolaz erositakoa ikusten du... Jainko Semearen Odola: Orra ba, gure animaren balioa. Eta, azkenik Espiritu Santua, eliza batean bezela, bizi da anima oien barren-barrean.

Beste bide bat ere ba-degu oraindik, gure animaren bi-

kaintasun ta balioa ezagutzeko, etsai deabruak ura galtzearen egin oi dituen saiaketa, ta artu oi dituen buru-austeak ikustea. Inpernu ta zeru osoak daude, elkarren leian, au aldez eta ura animaren kaltetan... Zeiñen aundi dan, beraz, anima!

Gure bikaintasun ori ekarri dezagun betiere biotzaren erdian, gogora gaitezen sarritan zeruaz, Kalbarioaz eta inpernuaz.

Jainkoaren semetzako izatea, zein gauza goratua dan bageneki, ezin izango genuke pekaturik egin, lur-gaiñean aingeruen irudiko izango giñake. Jainkoaren seme izatea! Gauza zoragarriagorrik!...

Ederra da, benetan, biotz baten jabe izatea, eta biotz orrekin Jainkoa maitatzeko eskubide eukitzea naiz ta biotz ori tixikia izan! Eta bai dala lotsagarri gizonarenzat, Jainkoak orren gora jarri, eta guk gure burua orren bera ipintzea!

Aingeruak Jainkoaren kontra altxa ziranean, Jainko onak, zerua betiko galdu zutela ikusirik (arako sortuak izanarren), gizona sortzea erabaki zun, eta gure begiakin ikusten degun mundu kaxkar au ere bai, giza gorputzak bere janaria nondik jaso izan zezan. Janaria, ordea, gorputzarentzat ezezik, animarentzat ere bear-bearreko du gizonak. Eta espiritu utsa dan animak, ezin janari ori ezerezetik sortutako izakien artean billatu. Ain zuzen ere, orregatik Jainkoak bere izate berbera eman zigun janaritzat.

Baiña auxe du gizonak txarren-txarrena: jainkozko janari orrezaz kontu gutxi egiten duela. Bizitz ontako basamortua igaro dezan, indargarria emana izan zaio, eta indargarri ori artzeko ajolik ez! Maia janariz bete-bete egon, eta goseak il bearrean bizi! Ba-dira amaikatxo, berrogeitamar ta irurogei urteetan ere beren animari jaten eman ez diotenak!

A, jasoko baluteke kristauak gure Jaunaren itz oen muin ezkutua: *Zure ezerez ori gorabera, Neretzat kreatu, zindudan, eta nere urko egin nai zaitut. Nizaz kanpo, ezta munduan anima ori bete ta ase dezakenik. Ikusi noraiño egin zaitudan*

bikain eta aundi! Nere gorputza izan ezik, eztago zuretzat aukerako janaririk: ain zera garbi eta goratua!"

Gure Jaunak anima-garbiak beti nabarmendu ta berezi izan ditu. Or dezue, esaterako, San Juan gaiñontzeko ikasleak baiño maiteago zuena, bere bular santuaren gain atsedean artu zuena!... Katalin Santak ere, anima garbiduna zalako, paradisura joan-etorriak egin oi zituan. Eta il zanean, aingeruek aren gorputza artu, eta Sinai Mendiko gailurrera eramán, Moisesek Legeko Aginduak jaso zitueneko artara. Zer erakutsi nai izan ote digu mirari onekin Jainkoak? Anima garbi bat txit zaiola gogokoa. Eta ez anima bakarrik, gorputza ere bai. Gorputzak, animaren garbitasunean parte izan zuen ezkerro, aingeruek enterratua izateraiño saria irabazi zuen.

Jainkoak berebiziko atsegiñez begiratzen dio anima garbiari, eta onek eskatu dezaioken edozer ematen dio. Nola gauzarik ukatu, Arentzat, Arengatik eta Arengan baizik bizi ez-tan animari? Anima ori Jainkoaren billa badabil, Jainkoa azaldu egiten zaio. Animak ots egin badezaio, an datorkio Jainkoa. Animak eta Jainkoak, bat baizik eztute egiten. Jainkoaren nai eta borondatea ere, anima garbiaren eskuetan dagoela esan ditekete. Anima garbi batek eskubide oso-oso du gure Jaun onaren biotzagan.

Aur bat bere amarekiko zer dan, orixe degu anima garbia Jainkoarekiko. Aurrak laztanak eta maite-agiriak egiten dizkio amari; amak, berriz, laztan eta maite-erakutsi berak biurtzen dizkio aurrari.

XIII

LIZUNKERIAZ

Pekatu au noraiñoko itxusi ta iguingarri dan jakiteko, kristau izatea zer dan jakin bear genuke lenbizi... Kristaua: Jainkoaren irudiko sortua, Jainko baten Odolarekin eresia! Kristaua: Jainkoaren seme, Jainkoaren anai, Jainkoaren ja-begai! Kristaua: Trinitadeko iru personek bere atsegiñak jarririk dauzkaten tokia! Kristaua: Espiritu Santuak bere eliza ta bizi-lekutzat arturik daukan gorputza... orra pekatuak zikintzen eta likisten duena!... Deabruak berek ere, besteai eragin bai, baiña berek ez tute pekatu zatar ori egiten...

Egumen batean zerura errege izatera joateko sortuak izan, eta pekatu loa egitean, etsai-deabruen zulo ta kabi biur-tzen gera. Loi-izpitxorik eztala egundaiño bere erreinuan sartuko, esan du gure Jaunak. Izan ere, loikeri oietan iraul-ka ibilli dan anima, nola azalduko da, ba, Jainko guztiz garbi ta orbangabearen aurrean?

Gu guztiok ispillu txiki batzuk bezela gera, eta Jain-koak ispillu orretan bere aurpegia ikusi nai du. Anima loi batean, ordea, nola nai dezue Jainkoak bere irudia ikustea?

Ba-dira anima batzuk izurri onetan zearo sarturik eta ondaturik bizi diranak, osotoro ustelduak daudenak, eta ori berak oartu ere egin gabe, eta andik ezin ateratzeko eran. Edozein gauzak bultzatzen ditu gaitzerontz, gaitz ori ekar-

(*) Esprit, p. 164.

tzen die gogora, baita gauza santuek, ere. Urdekeri oiek eten-gabe dauzkate begien aurrean, lokatzartean ibiltzen oiturik dauden urde taldeen antzera. Lokatzarte orretan atsegin ar-tu, an irauli, eta artantxe beren loa ta korronka egin oi dute... Alakoak gorrotagarri dira, Jainkoaren eta bere aingeru san-tuen begitan.

Begira, ene semeak, Gure Jauna arantzaz koroatua izan da arrokerizko gure pekatuen zorrak garbitzearren; baiña pekatu madarikatu onen erruz, azote ikaragarriakin bana-tua izan zan, zatitan puskatua ta zeatua, Berberak aitortu zua-nez (zigorraldia ezkeru bere ezur guztiak kontatu zitezke-la adierazi baitzun).

Ots, ene semeak, zenbait anima garbi munduan ezpali-ra, Jainko onaren aserrea ematu, eta aren Justizia geldi-ara-zi egiten duten anima batzuk, alegia, ikusiko zenuteke aren zigorra gure burugaiñera nola letorken!... Gaur pekatu ori egunoroko biurtu baita munduan, eta egiaz, ikara emate-koa da. Itxas-ontziek beren tximinietatik kea bezela, inper-nuak ere bere nazkagarriak, oka eginda, mundura jaurtiki-tzen dituela esan genezake, ene aurrak.


Deabruak alegin guztiak ipintzen ditu gure anima zi-kintzearren, guk, ordea, ekarri dezagun beti gogoan auxe: animagan datzala gure balioa, gure ondasun guztia... eta gorputza ustel-ontzi bat baizik ezuala... Ikus kanposantu batean gorputza maite dutenek zer maite duten.

Sarritan esan dizutedanez, anima loitsu bat bezin itxu-si ta nazkagarriarik eztago. Bein batean santu batek eska-tu zion Jainkoari, arren, oietako bat erakusteko: ikusi zuen anima errukarri ori *abere ler egindako baten antzera*, zortzi egunez eguzki-galdatan kalez-kale arrastaka ekarria izan balitz bezelako itxuran.

Garbi danari, ikusten deguneko ezagun zaio. Aren be-gietan, Jainkoagana eramaten gaituan bakuntasun ta mo-desti-usai bat, lurrun bat nabari baita. Beste batzuk, berriz, sua darion arpegiera izan oi dute... Satanas sartzen

da oien begi-barrenean, besteak erori-arazi eta gaitzera erakartzeko.

Garbitasuna galdu dutenek, oliotan egon dan oiala dirudite: garbitu zazu, txukatu zazu, zikin ura ezta bein ere kentzen. Anima loitsua garbitzeko ere, mirari bat bear genuke.



XIV

ITXAROPENAZ

Itxaropenaz degu gaur autua, ene semeak. Ain zuzen ere, beronek egiten du gizonaren zoriona lurgain onetan. Ba-dira munduan itxaropen edo ezperantza geiegi dutenak; ordea, gutxiegi dutenak ere bai. Ba-dira onako au esaten dutenek: *“Ba noa berriz ere pekatu ura egitera. Lau esatea etzait kostako iru esatea baiño geiago”*. Aur batek bere aitari esango balio bezela: *“Lau belarri-ondoko eman bear dizkizut. Lau ematea etzait kostako bat ematea baiño geiago. Gero barkazioa eskatuko dizut, eta kito”*.

Orra nola ibilli oi geran sarri-askotan Jainkoarekin. Askok gisa onetako kontuak egin oi dituzte beren barrenerako: *“Oraingo urte au ere jolasari eman nai diot. Baltzio-tokira ta etxe txarretara joango naiz. Datorren urtean, berriz, Jainkoagana biurtuko naiz. Jainkoagana biurtu nadin egunean, Jainko onak ongi artuko nau. Ezta Jainkoa apaizek esaten duten bezin gaizto”*.

Ez, Jainkoa ezta gaizto, baiña bai justua. Edo uste al dezu Jainkoa zure esanera egongo dala, ta zure kasketaldi guzietara etorriko dala? Uste al dezu, zure bizitza osoan Jainkoa ezetsi ondoren, zu laztantzera etorriko dala? zu besarkatzera joango zaizula? Ez orixe!... Muga bat, neurri bat izan oi da, bai

(*) Eprit., p. 183.

grazirako eta bai pekatuetarako ere, eta marka pasatu ondoren, Jainkoa urrutiratu egin oi da. Zer esango zenuke zuk, aitag seme sotil bat, eta ain sotil eztan beste bat, bi-biak berdintsu trata balitza? Auxe esango zenuke, noski: “Aita ori ezta justua, ezta zuzena”... Jainkoa ere ez litzake justua izango, baldin Bera serbitzen eta ofenditzen dutenen artean, alderik ipiñiko ezpalu.

Gaurko egunean fede eskasa dago munduan, eta orre-gatik batzuk geiegi itxaroten dute eta beste batzuk, berriz, etsitzeraiño etortzen dira. Ona emen zer esaten duten atzeneko auk: *“Gaiztakeri, pekatu ta oben geiegi eginda nago ni. Jainkoak ezin barka nazake”*. Ene semeak, ori esatea, birao aundi bat esatea da. Ori Jainkoaren errukiari muga bat jar-tzea bezela da, eta Jainkoaren errukiak eztu mugarik, bazter-gabea da-ta. Emagun, parroki bat galtzeko aiña gaiztakeri egiña zerala; ala ere, konfesatzen baldin bazera, gaizki egi-ñaz damuturik baldin bazaude, eta aurrerakoan geiago ez egiteko asmo sendoa artzen badezu, Jainko onak barkatzen zaitu.

Ba-zan bein-batean apaiz bat, itxaropenaz eta Jainkoaren errukiaz ederki mintzatzen zana. Besteak sendotzen ta lasai-tzen zituan, baiña bere buruaz etsita zegoan. Sermoe-ondo-ren etorri zitzaion bein gazte bat, eta esan zion: *“Jauna kon-fesatu egin nai nuke”*. Apaizak erantzuten dio: *“Bai pozik...”*. Egin, zion, bada, gazteak bere pekatu danen aitortza, eta bukatutakoan auxe jaulki zion apaizari: *“Jauna, gaiztakeri geiegi egiña naiz, nereak egin du; galduta nago ni!”*...

—*“Zer diozu, adiskide? sekula ere eztegu etsi bear...”*.

Gaztea jaikitzen da orduan:

—*“Jauna, eztu nai nik etsitzerik, eta berorrek?...”*.

Argi-izpia izan zuen apaizak itz ura. Biotzean ikututa, kendu zuen etsimen-burutazio ura, komentu batean sartu zan, eta santu aundi izateraiño iritxi zan... Jainko onak aingeru bat gazte-itxura artan bidali zion, sekula ere eztugula etsi bear erakusteko.

Jainko ona beti dago prest bere barkazioa guri emateko, guk eskatzen diogun guztietan. Ama bat bere semetxoia su-tatik ateratzeko beti gertu dagoan bezelaxe.

Begira, ene semeak, gu lur onetan bizi bitartean, Jainkoak ama bat iduri du, semea besoetan dakarren ama, alegia. Se-me ori gaizto da, amari ostikoka ari zaio, aginka, atzaparka ta imurtxika egiten dio. Amak ordea, irain oiek eztitu kontuan artzen. Semea eskutatik utziko balu, ba-daki erori egingo litzakela, eta bakarrik ibiltzeko ez litekela gauza izango... Orra or gure Jaunaren irudia... Gure gaizki-egin guztiak go-go onez eramaten ditu. Gure arrokeri danak irentsi egiten ditu. Gure zozokeriak barkatzen dizkigu. Gure ergelkeriok gora-bera, biotz-bera ta errukitsu izan oi da gurekin.



XV

PEKATUAZ

Jainko onaren borrarero eta gure animaren iltzaille: orra zer dan pekatua. Zerutik atera eta inpernura jaurki egiten gaitu pekatuak. Eta ala ta guziz ere, maite egiten degu!... au erokeria! Gauzak bide dan bezela gogora bagenitza, pekatua gorrotatu egingo genuke, iguindu, eta pekatu egitea ezlitzaiguke posible izango.

Eskertxarreko gera gu Jainkoarekin, ene semeak! Jainko onak zoriontsu egin nai gaitu, ezta dudarik! Ain zuzen ere, orretarakoxe eman digu bere legea, Jainkoaren legea aundi, zabal, baztergabea da. David erregek zionez, lege orretantxe billatzen omen zitun bere atsegiñak. Ondasunik aundiena baiño estimagarriago zun berak lege ori. Geiago ere bazion oraindik errege ark: Jaunaren aginduak zearo gorde zituelako, bide zabal-lasai batetik ibilli zala, alegia (Ps. 118, 14-15).

Jainko onak, beraz zoriontsu egin nai gaitu, eta guk ez-tegu nai! Guk Beragandik alde egiten degu eta etsai deabruari ematen diogu gure burua! Gure lagunarengandik iges egin, eta gure borrareroaren billa joan!

Pekatu egiten degu, lokatz-artean ondaturik ibilli oi gera. Eta bein zikiñean sartu ezkeru, eztakigu gero andik irtetzen. Eman degun oinkada txar ori ondasunaren kaltegarri balitz,

(*) *Esprit.*, p. 145.

orduan bai, bereala zuzenduko genuke oker egiña; baiña kaltea animarentzat bakar-bakarrik izan dala-ta, etzaigu bat ere importa...

Bagoaz aitortzera, eta an igaro bear degun lotsak ematen digu ardura ta kezka guztia. Gure pekatuak arin-aringa, korrika bezela esaten ditugu. Asko aitortzen, eta gutxi konbertitzen. Ala esan oi da beinzat, eta ni ere ortan nago. Jakiña, ba; egizko damutasunaren malkoakin konfesatzen diranak, oso gutxi baitira.

Begira, gure zorigaitz guztia ez gogoratzetik dator. Igandetan lan egiten ari diranei, edo bizpairu orduko dantzan ibiltzetik datorren gazte bati, edo ardantegitik ordi irtetzen danari, iñork onako itz au esango balie: "*Ba al dakizute zer egin dezuen? Gure Jauna gurutzean josten ari izan zerate, doakabeok*". Ori entzunda, arritu egingo lirake. Bai ba, ezutete gogoratzen-da...

Gogora bageneza, ikarak artuko ginduzke; ezin izango genuke pekatuak egin. Izan ere, zer egin ote digu Jainko onak Ura orrenbesteraño naigabetzeko, Ari berriz eriotza emateko, inpernura joatetik begiratu gaituan Ari?... On litza-ke pekatari guztiei, beren atsegin gaiztoetara dijoaztenean, gure Jauna bidera aterako balitzakie, San Pedrori gertatu zitzaion bezela, eta aren aotik itz auek entzungo balituzkete: "*Ni ere zerori zoazen toki berbertara nijoa, an berriro gurtziltzatua izatera*". Agian onela zentzatuko lirake.

Jainkoari pekatuaz egiten zaion iraiña, noraiñokoa dan, zein aundia dan, santuek ederki asko ikusten zuten. Santu batzuek, beren pekatuakatik negar egiten igaro zuten bizitza osoa. San Pedrok bizitza guztian negar egin zuen bere pekatu ura, baita eriotz-orduan ere. San Bernardok, berriz, onela zion: "*Jauna! Jauna! Neronek josi zaitut gurutze orretan!*".

Pekatu egitean, Jainko ona arbuiatu, iraindu eta berriro gurutzean josi egiten degu. Gure Jaunak ainbeste oiñaze ta atsekabeen aldera erositako animak, alperrik galtzen uztea! ez alda au tamal, mingarri?... Zer gaitz egin ote digu gure Jaunak Berarekin ala jokatzeko?... Inpernuan dauden erru-

karri aiek lur onetara etortzerik baluteke!... gure lekuan baleude!...

A! Ero burugabeak gu! Jainko onak Beragana ots egiten digu, gu, berriz, igesari ematen! Zorioneko biurtu nai gaitu, eta guk Aren zorionik nai ez! Bera maitatzeko agintzen digu, eta guk etsai deabruari biotza ematen! Animaren salbazioa egiteko ematen zaigun denpora, gure ondamendirako enplegatzen degu. Jainkoak ainbeste bide ta erraztasun eman digu Bera serbitzeko, eta gu laguntza oietzaz baliatzen gera Berari gudu egiteko!...

Pekatuz Jainko ona naigabetzen degun bakoitzean, Jesus Gurutzatuari begiratu bat emango bagenio, an, animabarrenean, ondo ondoan, gure Jaunaren otsa entzungo genuke auxe esaten digula: "*Beraz, zuk zerorrek ere nere etsaiekin batean joan nai dezu? berriz ere gurutzean josi nai nazu?*". Emaiozu begiraldi bat Aita Gurutzekoari, eta esazu zure arterako: "*Orra or Jesusi zeinbat kosta zaion nere pekatuakin Jaunari egindako iraiña ordaintzea, bidegabekeria zuzentzea!...*".

Jainko bat jetxi izan da lurrera, gure pekatuen ordainetan bere bizia ematera, Jainko bat oiñaze gorritan, Jainko bat iltzen! Gure obenen errua beregain artu nai izan due-lako, Jainko bat sekulako oiñazeak, ikaragarritzko alak eramaten!...

Gurutzea ikustean, pekatua zein itxusi ta iguingarri dan jakitera, etortzen gera. Nolako gorrotoa eta bildurra izan bear diogun ere bai. Sar gaitezen, bada, geron barrunbean, eta ikusagun zear bear degun egin, gure bizitza okerra zuzentzeko!...

Jainko onak ara eriotz-orduan zer esango digun: "*Zer dala-ta iraindu ta naigabetu nazu, zergatik egin dezu pekatu nik orrenbeste maite ziñudala?...*". Tamala bai auxe! Jainko ona ofenditzea, ongia besterik egin eztigun Ura!... Eta kontrara, gaizkia besterik egiten eztigun etsai-deabruari, poz ta atsegin eman!... Au erokeria!

Izan ere, ez al da au benetazko erokeria? Zeruko pozak oraidanik probatu zenitzakela (Jainkoarekin maitasuna-bi-tartez elkartuaz), zure burua inpernuko bidean jartzen de-zu, etsai-deabruarekin elkartuaz!...

Egia esateko, orrenbesteko zorakeria ezta asmatzen erra-za, ezta konprenditzeko modukoa, eta bai beti negar eragitekoa... Badirudi pekatari gaixoez ez dutela itxoin inpernuko epaia etorri arte, eta berberak inpernuratzen dirala.

Zeru, Inpernu ta Purgatorioak ementxe berton, bizitz on-tatik asita izan oi dute atari bat, asiera bezelako bat. Pur-gatorioa, berentzat guztiz ta osotoro illik eztauden animetan gertatzen da; Inpernua, berriz, gaizto-biurrien biotzetan iku-siko dezu; eta Zerua, gure Jaunarekin elkarturik, ta bat-egi-ñik bizi diran santuen biotzetan.



XVI

Zuurtziaz ta Neurritzasunaz

Zer jakin-arazten ote digu zuurtziak? Jainkoak atsegiñen duena, eta gure animaren osasunerako onurakorren dana. Obekien dagoena autatu bear da betiere. Azaltzen zaizu bi obra on egiteko egokiera: bata, maite dezun lagun baten alde, bestea kalte egin dizun norbaiten alde. Ots!, azkenengo oni eman bear diozu lehen-tokia.

Gure egite onak eztute batere baliorik berez-berezko joeraz egiñak baldin badira. Andre aberats batek emakume alargun bat euki nai zuan berakin, zaitu ta begiratu egin nai zuan, eta eskatu zion Atanasio Santuari bere pobre tartean billatu zezaiola bat xede orretarako. Geroago, berriz, Apezpiku Jauna ikusi zuanean, etziola mesede onik egin esan zion andre aberats ark. Emakume alargun ura on-ona zan ba, eta ala zerurako etzuen berak ezer irabazten; eskatu zion, bada, arren, beste bat bialtzeko. Orduan Santuak gaiztoena bialdu zion: seta txarreko bat, alegia, aserrekor, gordin, zakar, egiten zitzaionaz bein ere pozik gelditzen etzan bat. Ain zuzen ere, orrelaxe bear genuke egin; ezpataigo meritu aundirik gure gogoko dan bati, edo bere esker ona ta begi ona agertzen digun bati on egitean.

Lagun batzuk bein ere eztira konformatzen. Beren ustez

(*) Esprit., p. 175.

beti izan oi dira gaizki tratatuak. Balirudike dana zaiela zor. Eztute batere kontutan artzen berengatik egiten dana, esker-gaitoz ordaintzen diete guziai... Ain zuzen ere, alakoei egin bear zaie on, beste edonori baiño lehen.

Balia gaitezen zuurtasunaz gure egite guztietan, ez gure atsegiña ta bai Jainkoari gogoko zaiona billatuaz. Komparazio baterako, ba-dituzu txanpon batzuk meza bat agintzeko. Ikusten dezu famili beartsu bat, premia gorritan, zer janik ez-trela: obe dezu diru ori zorritxarreko auei eman, Meza santua ezpaita esan gabe geldituko. Apaizak eztio meza esateari utziko. Jende gaixo ori, berriz, gosez ilko litzake bearbada...

Ba-dezu otoitzean aritzeko gogo bizia, egun osoa elizan igarotzeko nai bizia; baiña gogoratzen dezu mesede aundia egingo zenukela beartsu batzuen alde lan egiñaz, guztia bearrerean aurkitzen dira-ta. Aor, bada, Sagrarioaren oinietan emandako zure egun oso ori baiño atsegiñago izango zaio Jainkoari uraxe egitea.

Oiturei dagozkien birtuteetan, Zuurtziaz gaiñera, Neurritasuna ere ba-degu. Esaterako, irudimena neurtu, gobernatu, berak nai lukean bezin lasai ibiltzen ez laga... Begiakin kontu euki, aoarekin ere beste orrenbeste. Ba-dira beti gauza gozo edo atsegiñen bat aoan eukitzen dutenak... Belarriei ere kontu: au da, alperrikako kanta ta ezertarako eztiran berriketak entzutea eragotzi egin bear zaie... Usaimena ere neurtu: ba-dira usai gozoa dariola dabiltzanak, ingurumarian daudenai biotzean min artu eragiteraiño... Neurtu eskuak: batzuk, bero bada baiña etengabe artzen ibilli bear izaten dute, gauza leunak aztatu ta eskuztatu nai izaten dituzte... Azkenik, neurtu gorputz osoa, makina gaixo au!, ez utzi lege ta jabetasunik gabeko zaldi-antzeria joaten, begiratu ta ezi baizik.

Beste batzuk, berriz, oeak galtzen ditu... Oiek pozik egoten dira lorik egin gabe, ango ondo-egotearen gozoa obeki miazkatu ta jasotzeagatik. Etziran santuak gisa onetakoak. Egia, nik eztakit aien ondoan egoteko nola moldatuko geran... baiña ori bai!... zerura irixten bagera ere, Purgatorioan epe luze-

an egon bearra izango degu. Aiek, berriz, bereala joango dira egan zerura, Jainko ona ikustera.

Karlos Borromeo Santu aundi ark bere bizitegian oe eder bat zeukan, Kardenal bezela zegokiona, eta mundu guztiak ikusten zuena; baiña ondoan ba-zegoan beste bat, ikusten etzana, olzakar batzuekin egiñikakoa, eta onetan etzaten zan. Etzan bein ere berotzen. Bera ikustera zijoaztenak ba-zekiten suaren beroa ez artzeko moduan jartzen zala beti. Orra or zein gisatako ziran Santuak. Aek zerurako bizi ziran eta ez lurre-rako: aek zerutarrak ziran oso. Gu, berriz, zearo lurkoiak gera.

Oi, nik bai diedala lege ta txera ona neke-ildura txikiei, iñork ere ikusten ez dituan oiei, adibidez ordu-laurden bat goizago jaiki, edo gabaz unetxo batean otoitzean egon. Baiña asko ta askok lo egin beste ametsik ez dute izaten.

Ba-zan bein eremutar bat, bere *errege-jauregia* arte baten enborrean zeukana. Gaiñera, barru-aldean arantzak eta goi-aldean iru arri zeuzkan ipiñita, batera naiz bestera mugitzen baldin bazan, arantzak edo arriak naitanaiez sentitze-ko. Eta gu? Gure ardura ta amets guztia ere egoki batzuk eukitzea izaten da, gogora ta lasai lo egiteko.


Gorputza berotu gabe egon. Gaizki eseririk aurkitzen baldin banaiz, obeto jartzerik ez billatu. Baratzean egurastu bat egiten banabil, atsegiñez artuko nituzkean ale-frutu batzuek ez artu. Gure bazkarri-legea egiten ari geranean, pusketa txiki batzuk jan gabe utzi. Ikusgarri dan eta begia eroaten duen gauzaren bat (erri nagusietako kaleetan batez ere), ikusi gabe egon; amaika olako mortifikazio txiki egin ditezke.

Noizik bein jaun bat etortzen da onera. Bi pare betaurreko eramaten ditu, ezer ere ez ikusteagatik... Beste batzuk, berriz, or ibilliko zaizkitzu etengabeko ikusmiran, bai begiak eta bai burua ere batera ta bestera eragiñaz; irrikitzen egoten dira gauza guztiak ikusteko. Kalean gabiltzanean, kokatu ditzagun gure begiak Aita Gurutzekoagan, edo begira degun Ama Birgiñagan, edo-ta, azkenik, Aingeru Zaindariagan, gure aldamenean dago-ta.

Barne-bizitza au, bai-dala eder! Beronek ematen bai-tigu Jainkoarekin elkartzea... Orregatik, anima bat barne-bizitza ortara iritxi-urren dala etsaiak ikusten baldin badu, egiñalak egingo ditu anima ori gibelatzeko, eta ortarako aren irudimena amets zoroakin beteko du. Kristau on batek, ordea, ez-tio batere jaramonik egiten. Au beti dioa aurrera perfeziorako bidean, ur aundien sakon-sakonean dabillen arraia antzo... Gu, berriz, beti narras, izaiña lokatz-artean bezela.

Basa-mortuan bi santa izan ziran, arantzaz guztiz josirik zebiltzatenak. Guk, oster, ondo-egotea beste ametsik eztugu! Zerura joatea nai degu, ori bai, baiña gure gogo guztiak betetzen ditugula, gure burua ezertxo ere nekatu gabe: Santuek etzuten ala egin. Aek beren burua nekatzeko bide guztiak biltzen zituzten, eta neke oien erdian ezin esanalako gozotasuna sentitzen zuten.

Jainkoa maite dutenak, bai dirala zoriontsu! Ongiaren egiteko, era bat bakarra ere eztute alperrik galtzen. Gizon zikoitz diruzaleak, beren altxor-ondasunak geitu ta geitu nola ibilli oi diran? Ba santuek beste orrenbeste egiten dute zeruko ondasunakin: etengabe ari dira biltzen... Arritzekoa izango da, juizioko egunean, anima batzuk orren aberats ikustea!



XVII

ARROKERIAZ

Pekatu madarikatu onek aingeruak zerutik kanpora bota, eta inpernuratu egin zituen. Pekatu au munduarekin batean asi zan.

Ots, ene semeak, modu askotan egin oi da arrokkerrizko pekatua. Arrokeri ori jantzikeran, itz-egikeran, egokeran ta are ibilkeran ere nabari diteke. Gizon batzuk, kalean daudenan, alako arroputz ibilli oi dira, eta ikusmiran daudenai auxe esan nai dietela dirudi: *"Ni bai naizela aundi, lirain, tente... gero! Ederki bai dakidala zangoa botatzen!"*

Beste batzuk, berriz, gauza bat ongi egiten duten guztietan, eztiote bein ere kontatzeari uzten; eta utsegiten badute, guztiz larri, goibel ta biotz-erorita gelditzen dira, beren izen onak betiko lur jo duelakoan...

Beste batzuk pobreekin egoteko lotsa izaten dira, batez ere adiskide edo ezagunekin topo egiten dutenean; eta betiere aberatsekin nai izaten dute ibilli. Munduko aundizkiren batek bein edo bein errezibitzen baditu, poztu egiten dira, eta orrik arrokerirako artzen dute bide. Beste batzuk izkeran dute ezagun arrokeri ori: esan nai duten guztia aztertzen dute, mintzaera ederraz itzegiten saiatzen dira, eta itz soil batean utsegin balezate, guztiz larri eta triste ikusiko dituzu,

(*) *Esprit.*, p. 159.

beren lepotik irri egingo ote dan bildurraz. A, ene semeak, persona umilla ta apala ezta gisa onetakoal!... Artaz irri ta iseka egiten dala, ezertan daukatela, goratua dala, agiraka egiten zaiola, ospe ta ohore ematen diotela, naiz arbuiatua dala, kasu egiten zaiola, baztertua edo alde batera utzia dala: arentzat dana berdin.

Begira, ene semeak, norbait arro dan ala ez jakiteko, itz egiten adi zaiozute: beti nai izango du itzegin; bere buruaz besterik ezta mintzatuko; berak egindako gauzak besteek naiño gorago joko ditu beti; ark bakarrik egiten du dana ongi. Besteek lanak gaitzetsi egiten ditu, orrela bereak geiago nabarmendu, eta txalogarriago atera ditezten.


Ba-dira limosna aundiak egiten dituztenak. Nolako asmoaz, ordea? Beren burua aomen aundiz janzteko asmoaz. Ez dezagun bein ere orrelakorik egin!... Alakoek eztute ondore onik ez irabazirik beren egite onetatik aterako. Kontrara, beren limosnak pekatu biurtuko zaizkie.

Noiznai, toki guztietan eta gauza guztietan sartzen degu arrokeria, gatza egoskarian bezela. Gure ongi-egiañak ezagunak izatea, nai izaten degu. Ongi-egin oiezaz besteak konturatzen baldin badira, orretzek ematen digu poz; gure utsak nabaritzen badituzte, berriz, tristetu egiten gera. Askota asko dira akats ori agiri dutenak: edozein gauza esanda, artaga, ezin egonik muturturik jartzen dira. Etziran santuak gisa orretara tajutuak. Santuek atsekabe izaten zuten beren birtuteen berri jakiten bazan; beren uts eta obenak jakiten ziranen, berriz, poztu egiten ziran.

Persona arroak, berak egiten duen edozein gauza, ezin obeki egiña dagoela uste izaten du; berakin artu-eman duten gainerako lagunak, menperatu ta bere agintepean jarri nai lituzke; arrazoiak beti dago bere alde; bere uste ta iritzia, besteena baiño obeagotzat jotzen du beti... Eztago ori ondo! Persona umilla ta ongi ikasia, bere iritzia galdetzen badiote, agertuko du zinki ta bakunki; agertutakoan, ordea utziko die besteai itzegiten. Besteek arrazoi izan-ez-izan, eztu geiago tutik esango.

Luis Gonzaga Santua, ikasle zanean, zer-edo-zeren errua egozten bazioten, etzan bere burua zuritzera asten; barruko gogoa agertzen zuen, eta etzuen geiago kezkarik artzen besteek pentsatzen zutenakin. Oker egon zala? Okerra aitortzen zuen. Arrazoiak ematen bazioten, onela zion: "Beste askotan oker egonda nago".

Santuak illik zeuden beren buruarentzat. Naiz ta besteak iritzi bateko ez izan, orrek kezka gutxi ematen zien. Munduaren esana da: "*Bai, santuak zozo batzuk ziran!*" Egia, munduko gauzetarako zozo batzuk ziran; Jainkoarekiko gauzetan, berriz, jakite aundikoak. Munduko gauzetan ezer gutxi zekiten; jakina, orrelakoetan arreta gutxi jartzen baizuten. Izan ere, ain ardura gutxiko iruditzen zitzaizkien munduko gauzak Santuei!!



XVIII

UMILTASUNAZ

Jainkoak erakutsi aundi bat eman digu, onako au esatean: *“Bere burua ezertzat eztaukana, ura izando da goratua”*. Begira, ene semeak, lendabiziko birtutea umiltasuna da, bigarre-na umiltasuna, ta irugarrena ere umiltasuna. Birtute onen ederra! Santuek etzuten uste ezer ziranik; Jainkoaren begitan, ordea, oso estimagarri ziran, eta eskatzen zuten guztia lortzen zuten.

Ba-da bazterretan graziren bat lortzeko bederatzi urrenak egiten dituenik, edo egun osoan otoitzean ari danik; alakoak santu aundiak dirala esango luke batek, baiña gero, eskatu duten guztia irixten ezpadute, zapuztu egiten dira, dana bertan-bera lagatzen dute, ta eztute geiago otoitzik egin nai. Gaizki egiña, ene semeak. Nor geran bagenek, izututa biziko giñake. Ezagutze onek ikara araziko ginduke, ili-otzik gelditzeraiño. Gure burua, ordea, eztugu ezagutzen. Degun guztia Jainkoarena da. Jainkoak emana degu. Geurez, pekatua besterik eztegu; eztago, bada, zertan arrotu.

Apaltasun ori Jainkoari bear zaio eskatu. Egin deza-gun barru-barrutik gure eskaria, onela esaten diogula: *“Ene Jainko ori, ona emen anima errukarri bat, ezer ere ezluena, ezertarako eztana; indazu grazia Zu maitatzeko, zu serbi-*

(*) Catéchismes, p. 201.

tzeko eta ni ezer ez naizela jakiteko". Lau urteko aurtxo errugabeen antzera bear degu otoitz egin. Aiek dana esaten diote amari: ba alaxe. Jainkoa gure Aita degu, benetan maite gaituan Aita. Aita batek semearentzat gauza txarrik nai al dezake, ba?...

San Ambrosiok esana da: "*Goratzen zaitunak, burla egiten dizu*", eta au, ene semeak, egi utsa besterik ezta. Arroak alabatua izatea nai du. Batzuk or ibiltzen dira esan zaizkien gorapenak kolkoan gorde nairik; gorapen oiekin ematen diote irudimenari alapide, zer jana. Ori gaizki dago, eta pekatu da. Iñork beroiezaz gaizki esan baleza, min artzen dute, eta itz gaizto oiek etengabe ausnartuz ibilliko zaizkitzute.

Ene semeak, ez izan ainbesteraiñoko bildurrik lotsarazten gaiztuzten gauzei, mesede egiten digute-ta; geiago oraindik, bearrezkoak ditugu. Begira santuei... ostikopean erabilliak izan ziran, eta Jainkoak goratu egin ditu. Jesukristok ere lotsagarririk eta apalgarririk askotxo nai izan zuen ikusi. Batzuk poztu egiten dira iñor beren otoitzetara gomendatzen danean; beren burua goratu nai izaten dute oiek, arroputz utsak baizik eztira. Beste batzuk eztute nai bederatziurrenik egin iñoren alde, esaten baitute: "*Nik eskatutakoa irixten ezpadu, esango du nire otoitzak eztula ezer balio*". Orra arrokeria, aundiustea, gaitz madarikatua.

Obra onik egiten badute edo birtute batzuen jabe badira, sarritan alperrik galtzen dute dana, norbere buruaren aundiuste ta maitakeri orregatik. Obra onak alperrik galdu! Begira, ene semeak, arrokeria non-nai, toki orotan sartu oi degu, gatza bezelaxe. Gure egite onak ezagutuak badira, orretxek ematen digu atsegin. Zuen birtuteak ikusiak baldin badira, orrek ematen dizute poz. Zuen akats eta obenez iñor oartzen bada, orduan tristetu egiten zerate. Askorengan nabaritu det nik ori: utsen bat, akatsen bat arpegiratzten bazaie, goibel eta kezkatu gelditzen dira. Etziran santuak taiu orretakoak. Aiek, beren birtuteak zabalduak baldin baziran, tristetu egiten ziran, eta kontrara, poztu, beren utsegite ta akatsak jakiñak ziranean.

XIX

TENTAZIOAZ

Gure Salbatzailleak gauza danetan nai izan du gure ispillu ta eredu izan, baita tentazioan ere. Ain zuzen, orrexegatik nai izan zuen basamortura eramana izan.

Soldadu ona ezta gerraren bildur. Kristau onak ere ezta tentazioaren bildurrik izan bear. Soldadu guziak dira on kuartelean dauden bitartean; erasoan da ezagun bioztun eta txepe-len artean dagoan aldea.

Tentaziorik aundiena, auxe: tentazio gabe egotea. Geiago ere esango nuke: zorionekotzat jo dezakegu gure burua, tentazioak ditugunean: orduantxe baita espirituarekiko uzta-sa-soia, zerurako frutuak biltzekoa, alegia. Uzta-garai denean, goizalde gordiñean jaiki oi gera, neke-lanbide gogorrak artzen ditugu guregain; ala ere, metatu oi dalako, ezta iñor arrenkuratzen, pozik egin oi degu lana.

Pekatutik irten nai duten animak, eta grazizko bizitzan bizi diranak: oiek bakar-bakarrik tentatzen ditu etsai deabruak. Gaiñerakoak berriz, tenta-bearrik ezta, bere-bereak ditu-ta...

Egun batez santu bat komentu baten aurretik pasatu zan, eta deabru-talde ugaria ikusi zuen ango prailleak zirikatu eta nekatuz, pekatu eragiteko puntura ekarri eziñik. Gero erri baten ondotik pasatu zan, eta an deabru bat bakarra ikusi zuen,

(*) Esprit., p. 223.

eta bera eserita, besoak tolesturik; ala ere, deabru bakar onek ostikopean zekarren erri osoa. Orduan santuak galdetu zion ia nola zegoan bera bakarrik, erri ura aundi-xamar izanik, praille mordoxka arentzat ainbeste zeuden bitartean. Deabruak erantzun zion uri artarako naiko zala batekin. Naiz gorrotorako naiz lizunkerirako naiz ordikerirako grina edo joera zutenai, ortik eldu oi zien, ba, eta etzan an beste eginbearrik. Prailleekin, aldiz, zaillago omen zan lan ori. Deabru-talde ark, praille-tentatzeari ekinaz, alperrik galtzen zuen, bai denbora, ta, bai nekea; ezin lortu zezaketen gauzarik. Orregatik saiatzen ziran deabruok praille aiek beren erregla latzaz gogait-eragiten.

Komentu batean praille batek, mezatako denboran ikusi zituan deabruak praille on aien ingurumarian ibiltzen. Batez ere ikusi zuen deabru bat praille baten burugainean ostikoka; eta beste bat, aldiz aurreraka ta aldiz atzeraka zebillena. Meza bukatzerakoan galdetu zien praille bioi ea elizkizun artean pentsamentua zertan izan zuten. Aurrenekoak esan zion komentuan zurezko zoru bat egin nai zuela, eta artan pensatzen ibilli zala. Besteak, berriz, deabrua tentatzera etorri zitzaiola, baiña berari etengabe gogor egiten egin ziola. Orixe bera egin oi dute kristau on guztiak. Eta ala, tentazioa irabazi aundien iturri biurtzen zaie.

Arrokeria eta lizunkeria izan oi dira, maizenik, gure tentazioak; oiek garaitzeko biderik onenetako bat, auxe: Jainkoaren gloriarako lanean ekitzea, lanari lotutako bizimodu bat eramatea, alegia. Asko askok, ordea, alper bizitzen, ondo egoten eta guri ibiltzen izan oi dute beren ardura guztia. Etsaia orrelakoen nagusi izatea ezta batere arritzekoa.

Praille bat joan zitzaion bein bere Aita Nagusiari, tentazio gorriak ikusten zituelako kezka azaltzera. Orduan Aita Nagusiak, baratzako eta sukaldeko ardura zutenai agindu zien praille orri etengabe ots egiteko, eta beti lanean erabiltzeko. Egun batzuk geroago galdetu zion ea nola zebillen. “A, Aita, erantzun zuen prailleak, *orain ez tet geiago astirik tentatua izateko...*”

Jainkoaren presentzi santua biotz-biotzean eraman bageneza, etsaiari gogor egitea oso errez izango litzauguke.

Onako itz au gogoan degula: “*Jainkoak ikusten zaitu*”, ez genuke bein ere pekatu-rik egingo.

Izan zan bein santa bat (Santa Teresa-edo). Santa ori tentazio gogor bat ikusita zegoan, eta era onetan kejatu zitzaion Jaunari: “*Non ziñan, ba, Jesus maite, ekaitz izugarri ura bitartean?*”. Eta Jaunak erantzuten dio: “*Zure biotzaren erdi-erdian aurkitzen nintzan, zure burruka gogorra ikusten*”.

Tentazioa datorrenean, berri-ru bear dira gogotik norbere bataioko agintzak... Ara, entzun au ongi. Tentatuak zerate-
nean, eskeiñi zaiozute Jaunari tentazio ura, beronen kontrako birtutea irixteagatik. Esaterako, tentazioa arrokerizkoa ba-
ledi, umiltasuna irixteko. Gogorapen txar-lizunetakoa ba-
ledi, garbitasuna zuenganatzeko. Lagun urkoaren aurkakoa ba-
da, alkar maitasuna lortzeko. Baita pekatarien konbersioa es-
katzeko ere eskeiñi dezakezute tentazioa: onekin deabruak
etsitzen du, ta iges egin bearrean aurkitzen da, tentazioa be-
raren kaltetan biurtu baitzaio... Bijoa ordu onean! Lasai utzi-
ko zaituzte.

Kristauak beti bear du gerrarako prest egon. Gerra-den-
poran begirariak or-emen, toki jakiñetan jarri oi dira, etsai-
a urreratzen ote dan ikusteko; guk ere, orobat, beti erne ta
iratzarririk bear degu egon, etsaiak tranparen bat jartzen
ote digun ikusteko, guk gutxien uste degunean itsumustuan
ote datorren jakiteko...

Bata edo bestea: edo kristauak bere griña txarrak men-
peratu, edo griña txarrek kristau menperatu: eztago emen
erdiz-erdizko biderik. Orixe bera gertatzen da bi gizon lepo-
tatik eldu, eta nor geiagoka burrukan asten diranean, alkar
lurrera bota naiean. Ia beti ikusten da azkenean batek bestea
garaitzea, lurreratzea, eta lur jota daukanean, anka jartzen
dio eztarrian. Bein onera iritxi ezker-
o, eztu geiago ajolik, garailari atera baita. Guk ere, gure griñakin degun burruka
onetan, bitatik bat: edo griñak guzaz jabetzen dira, edo
bestela guk oiek ezi bear izango ditugu.

Zeñen lotsagarri dan norbere griña gaiztoen menpeko
izatea! Kristaua aitonen seme da, zaldun-noblea da; beraz,
aundizki-antzera, bere menpekoei agintzea dagokio. Menpe-

ko oiek gure griñak dira. Galdetu omen zioten artzai bati nor zan. Eta bera errege zala erantzun zuan.

—Noren gaiñean agintzen dek bada?

—Nere menpekoen gaiñean.

—Eta nortzuk dituk, bada, ire mfenpeko oiek?

—Nere griñak.

Arrazoaia zuen artzai onek, bera errege zala esateko.

Ontzia itxaso gaiñean bezela, alaxe gaude gu munduon. Zerk sorarazten ote ditu ugin-olatu aundiak? Ekaitzak. Mundu onetan gauden artean, aizea ezta bein ere gelditzen; griña gaiztoak etengabe ari dira gure anima ekaitza eraikitzen: ain zuzen ere, auetxek dira zerua irabaziko diguten burrukak.

Ez uste burruka ori gabeko tokirik lurgaiñean aurkituko dezuenik. Noranai zoaztela, an izango dezue etsaia, zuei zerua arrapatu naiean; baiña garailari izatera etortzea ere, non nai eta beti dago gure eskuetan. Beste burruka oietan ezta ala gertatzen. Bi alderdi asten dira burrukan: nai ta naiez batak galdu bear. An, ordean, guk nai izan eskero, bein ere ukatuko etzaigun zeruko graziarekin, beti atera gindezke garaile.

Dana galdurik dagoela uste degunean, egin dezagun oiua: *“Jauna, begira gaitzazu, galduek gera!”*. Gure Jauna, izan ere, gure aldamenean aurkitzen da, onginaiez beterik begiratzen gaitula, eta irriparre gozoz auxa esaten: *“Bene-benetan maite nazu, oraintxe ezagutzen eta ikusten det maite nazula!...”* Tentazioari gogor egiñaz, probatzen eta agirian ematen baita Jainkoarekiko gure maitasuna.

Ba-da bazterretan makiña bat gizon ta emakume, guk ezagutzen ez ditugunak, eta egunen batean ainbeste garaipenez aberasturik agiriko diranak! Orrelakoei zuzenduko die Jainkoak arako itz ura: *“Zatozte, ene Aitarene bedeinkatuok... sar zaitezte zuen Jaunaren pozkidan”*.

Aingeru zaindaria etengabe degu gure aldamenean, luma eskutan duela, gure garaipenak paperean jartzeko. Goize-ro esaiogun gure buruari: *“Tira, ene anima ori, egin dezagun lan pizka bat zerua irabazteko. Arratserako zure nekeak bu-*

katuak izango dira". Eta arratsean: "Agian biarko, ene anima ori, bizitzako atsekabe guziak joanak izango dituzu..."

Eztegu oraindikan martiriak aña sufritu: galde zaiezu te orain damututa ote dauden... Ezta ainsteraññokoa Jainkoak eskatzen digun lanā. Batzuk itz soil bat asko izaten dute beren umore onetik atera eta naastutzeko. Irain gutxi-goraberako bat egin zaiela ta, orra ontzia zalantzan, edo iraulia... Biotz on, anaiak, biotz on! Atzen eguna eldu dediñean, gisa onetan mintzatuko dezue: "*Zorioneko burrukak, zerua eman baitidate*"!

Burruka gaitezen, beraz gogotik. Gurekin eztagola ezer egiterik ikus dezanean, pakean utziko gaitu etsaiak. Ona emen zein izaten dan etsaiaren asmo ta egikera, Jainkoagana itzultzen diran pekatariekin: konbertitutakoan sentitzen diran gozotasunak, goza ta miazka ditzatela uzten die, orduan ezer ere irabaziko ezlukela ba-daki-ta; jakiña, orduan jainkotiar gartsuak izaten baitira. Itxaroten du, beraz, illabete batzuetan, asierako gar ori moteldu dedin arte. Gero asten zaie zirika otoitzaz ajolagabetu, sakramentuezaz zabartu egin ditetzen; tentazio batzuekin erasoten die. Orduan etortzen dira sekulako burruka bizi-gorriak, orduan bai bear dala indarra eskatu, kukildu ta biotz-erori ez gaitezen!

Tentazio gutxi bat asko dute batzuk, paper ariña beze-la eramanak izateko: ain dira argal, ain dira aulak! Beti aurrera joko bagenu, soldadu onaren antzera, gudua edo tentazioa etortzean biotza Jainkoagana jasoko genuke, gure adorea erraberritu egingo genuke. Baiña atzean gelditzen gera, esanaz: "*zeruratzen baldin banaiz naikoa da, eztet geia-goren bearrik. Eztet santu izateko asmorik*".

Santu ez baldin bazera, galdubearra zera, naita naiez, ezpaitago emen beste bitarteko bidetik joaterik. Bata edo bestea: artu zazu au kontuz! Egunen batean zeruratuko diran guztiak santu baitira. Purgatorioko animak ere santu dira, ezpaitute pekatu mortalik. Beren zikiñetatik garbi ditezen dau de an, baiña Jainko onaren adiskide dira. Leia gaitezen, ene semeak. Egunen batean ikusiko degu eztegula geiegikeririk egin zerua irabazteko.

XX

Lagun-urkoaganako maitasun eta gorrotoaz

Barka zaizkiguzu gure zorrak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela. Beraz, Jainko onak, barkatzen dutenai bakar-bakarrik, barkatuko die: auxe da araua, legea, naita-naiezk baldintza. Batzuk, Aitagurearen zati ori ez esateraino eraman oi dute beren zozokeria, Jainkoak biotz-barrena ikusten ezbalu bezela, eta mingaiñaren ibillerak adierazten duenaz kanpo, beste ezer oartuko ezpalu bezela!

Santuek eztute gorrotorik, ezta beazun-izpirik ere; dana barkatzen dute. Edozein gauza egiten bazaie ere, geiago merezi dutela uste izaten dute, berek Jainkoari egindako pekatuen ordaiñez. Kristau gaiztoak, berriz, mendeku-zaleak izaten dira.

Lagun urkoa gorroto degunetik, Jainkoak gorroto ori guri egozten digu, gure kaltetan bihurtzen da, beraz, tiroa. Bein batean onako au esan nion nik beste bati: "*Baiña zuk ez ote dezu zerura joan nai, urliari orrenbesteko ikusi-eziña diotzun ezkeru?*"

—A, bai... Baiña an ere bata besteagandik urrutitxo egoteko ardura artuko det, elkar ez ikustearren".

Orrelako nekerik eztute artu-bearrik izango, zeruko atea itxirik baitago gorrotoarentzat. Gorrotoa eta iguiña zeruan

(*) Esprit., p. 233.

eztira ezagun. Orregatik, biotz gozo ta apalekoai, iraiñak eta itz beztugarriak pozik artzen dituztenai, mundu onetan bertan asten zaie zerua. Gorroto beltza gordetzen dutenak, berriz, zoritxarreko izan oi dira. Bekokia ere urduri, eta begiak dana irentsi bear dunaren itxurazkoa izaten dute.

Lagun batzuk, naiz ta deboziozko aurpegiera euki, iraiñik txikiena egiten bazaie, beren izen onaren kontrako zer esanik ateratzen daneko, mindu eta asaldatu egiten dira bizi-ki... Ba-zindezke santu, mirariak egiteko lain: karidaderik ezpadezu, etzera, ez, zeruan sartuko. Praille bat il-agiñean aurkitzen zan. Bizimodu leuna, penitentzi aundi ga-bekoa eramana zan; ala ere, lasai ta kezka gabe zegoan. Nagusia, aren pake gozo ori ikusirik, arritu egin zan, eta esan ere esan egin zion. Orra praille ark erantzun ziona: *"Nik, egin dizkidaten irain guztiak aaztu ditut. Nik biotz-biotzetik barkatu det beti. Beraz, Jainkoak ere neri barkatuko didala uste det"*.

Norbaitzuk bidegabekeriren bat egin digutela-ta, etsaiak beroien kontra gorrotozko asmoak sor-arazten badizkigu, ona emen etsai ori azpiratzeko biderik onena: gaitz egin digute-nen alde aguro otoitz egin, Jainkoaganatu ditezten erregutu.

Esanik dago onezkero zein bidetik joan bear degun gaiz-ki egiña ongi egiñaren bitartez garaitzeko; santuak zein mo-duzkoak ziran ere ba-dakigu yadanik. Baiña kristau izena, ta ez izana, duten oiek, eztute ezertxo ere sufritu nai, edozerk asaldatzen ditu; itz mingarriai itz mingarriekin erantzuten diete. Gure senetik ateratzen geranean, barruko gorroto bel-tza botatzen degu kanpora. Orduan gure biotza beazunaz beteriko kutxa bat bezela da, eta beti gaude prest beazun ori urkoengana jaurtitzeko.

Gure burua geiegi ta bide ez dan bezela maitatzeak egi-ten du ori. Jakiña, gorapenak eta alabantzak bakarrik zor dizkigutela uste izaten deguta... Ez, iraiñak zaizkigu zor, oien billa bear genuke ibilli... *"Baiña ni errugabe naiz, diozu, orre-lako tratu gaiztorik nik extet merezi!"* Gaur egin dezunagatik eztezu merezi, egia, bai ordea atzo egin zendunagatik. Egiñik

dituzun pekatu danakaitik merezi izan dezu, eta zure eskerro-
na erakutsi bear zenioke Jainkoari, pekatu oien ordaiñetan, zer-
bait sufritzeko egokiera ematen dizulako.

Deabruak patxada onean eta lasai-lasai uzten ditu kristau
gaiztoak. Oiezaz eztu iñork ere ajolik artzen. Ongia egiten du-
tenen kontra, berriz, amaika irain eta itz laidogarri sortuko dira;
orra or, irabazi ugariak irabazteko meatoki ederra...

Begira, anaiak etzaitezte aserre, eliz-zale esaten dizutee-
nean... Jaunak oien artetik aukeratzen baititu beti bere santuak.

Ni apaiz-lagun izandu nintzan lurraldean, bazan lagun bat
neskatxa pobriai bizibide ematen ziarduen. Askotan gertatzen
zan, itz gaizto eta iraiñakin, jendea beragana etortzea. Ark, be-
re burua apaldurik, esaten zitzaion guztia ontzat artu, eta bar-
kazioa eskatzen zien. Eta jendeak orduan esaten zuan: "*A! san-
tu bat da ori!*". Izan ere, orrelakoxeak izaten dira santuak. Orra
or benetazko debozioak zer egiten duen!...

San Juan de Dios zeritzan Santu aundia, ero balitz bezela
ibilli zan, eta erotzat artua izateko alegiñak egin zituan. Bai-
ña gaixotegiko nagusiari idatzi zion norbaitek, kontu euki-
tzeko esanaz, ero-itxuran zebillen ura, santu bat zala-ta.
Orduan nagusiak barkazioa eskatu zion, eta andik aurrera
naigabe bakar au izan zuan santu ark: ezagutua izatea, ale-
gia, eta len ikusten zitun eramanbear aiek geiago ez ikustea,
au da, makillada, zigor lotsagarri eta usteko bere gaitzari egi-
ten zizkioten sendagai garratzak. Eta sendabideok gogoz ar-
tu bai ark gero!

Emakume bat joan zitzaion bein apaiz bati, bere semea
moruen katibu jausia zala esatera. Nola moldatuko ote, mu-
tilla erosi ta berriz amari biurtzeko? Etzan biderik ageri eta
Aita Mixiolaria zer egin etzekiela aurkitzen zan. Baiña pitin
bat gogoratu ondoren, auxe esan zion ama gaixo ari: "*Ni ne-
roni geldituko naiz zure semearen tokian: sal nazazu, ura
erosteko*".

Emakumeak etzuen ori nai, baiña azkenik, Aitaren eska-
bideak indar geiago izan zuen, eta baietz esan zion. Mutilla ama-
ri itzuli zioten, eta Mixiolaria aren ordezturkoen menpeko

izaten etorri zan, eta fedegabeko aiek naigabe gorri-latzak eta sekulako lan txarrak egin zizkioten. Onek bai zuela goimaitasun edo karidade egin-egitekoa, urregorritzkoa! Maiteago zuan onek lagun urkoa, bere burua baiño. Guk, berriz, damu ta naigabe sentitzen degu, besteen zoriona ikusita.

Zure lagunen bat goraiapatua baldin bada, zutzaz ezer ere esaten ezuala, goibeldu ta tristetu egiten zera. Ikusten baldin badezu, norbait, Jainkoagana biurtu-ta bertatik, aurre-rapen arrigarriak egiten ari dala, santutasun-bidean goiko mailla batera iritxi dala, orretzek ere, zerori atzerago zaudelako, naigabe ematen dizu. Ura goraiatzen badute, min artzen dezu, eta onela diozu: *"A! baiña ori ezta beti olakoa izan! Aspaldi batean besteen iduriko genun ori ere. Pekatu au edo ura egindakoa da ori, baiña arako beste akats ura eukitakoa ere..."*. Arrokeriak egiten du guzti au. Eta karidadearen kontrako gauzetan, arrokeria lendabiziko: ura eta sua nola diran elkarren etsai? ba alatsu.

Kristau benetakoa, ezta oien iduriko: uso baten antzeko dala, esan genezake, ezpaitu beazun-izpirik. Mundu guztia maite du, onak on diralako, gaiztoak erruki ditulako, maitatuz obeago izatera ekarriko dituala uste dualako, eta oengan Jesukristoren odolaz erositako animak ikusten ditualako. Pekatarien alde maiz egiten du otoitz, Jainkoari esanaz: *"Ene Jainko ori, ez laga, arren, anima gaixo oiek galdumendira joaten"*! Orra or zerura zein bidetatik irixten dan. Beste oiek, berriz, deboziozko itxura batzuk egiten dituztela-ta, zerbait ba-dirala uste duten oiek; eta gero beti ikusi-eziñaren, gorrotoaren eta ondamuaren menpean bizi diran oiek, atzen-egunean murriz-soillak aurkituko dira.

Deabrua, pekatua ta gure burua kenduta, eztegu inortxo ere gorrotatu bear.

San Agustiñen karidadea bear genuke. Santu au, zentzu aundiko gizonen bat ikustean, poztu egiten zan bizirokei:

"Onek beintzat, esaten zuen, pagatzen dio Jainkoari nere maitasun eskasaren ordaiñez".

Ba-zijoan bein gizon leiñu argiko bat, aundizki oietako bat, besoanbarrena, eta alako batean bere gurasoen iltzailleakin topo egiten du (1). Eriotz orren bengantza artzeko erabakia amaika aldiz artu zuan gizon ark. Iltzaillea ikustean, bada, ateratzen du ezpata: Bestea orduan belauniko jartzen zaio, auxe esanaz: "*Jainkoaren amodioarren, barka zaidazu, otoi!*". Jainkoaren izena entzun duaneko, ez zu auritzeko biotzik; sartzen du atzera ezpata bere zorroan, eta esaten dio: "*Barkatzen dizut*". Biaramonean joan zan gizon ori eliza batera, eta esan zion Jainkoari: "*Barkatuko didazu gero, nik ere barkatu det-eta?*". Eliza artan Jesus Gurutzatuaren irudi aundi bat zegoan, eta irudi orrek makurtu egin zuan burua, baitz esaten zuelako ezaugarritzat.

Beste gizon bat kartzelara sartu zuten. Gezurrez ezarri zizkioten lapurreta batzuen kulpak, eta orregatik ia-etsia aurkitzen zan. Orduan Jainkoak esaten dio: "*Egia da bai, ezarri dizuten lapurreta ori eztezula egin; orretan eztezula kulparik; baiña ez al dezu gogoan, nola utzi zendun itotzen arako gizon ura, salbatu zenezaken gizon ura? Eta etzendun salbatu. Orrexegatik, bada, ematen zaizu oraingoa*".



(1) Ikus San Juan Gualbertoren bizitza.



Otoitzik onena

XXI

OIÑAZE TA GURUTZEAZ

Naitanaiez sufritu bearra degu. Batzuk lapur onaren antzera sufritzen dute, eta beste batzuk gaiztoaren antzera. Bai batak eta bai besteak orobatsu sufritzen zuten. Baiña batatak ikasi zuen bere eramankizunak sarigarri egiten; bere gaiztakerien ordainetan artu zituen, eta Jesus Gurutziltzatua-gana biurtuta, aren aotik itz eder auek entzun zituen: "*Zu gaur nerekin paradisuan izango zera*". Bestea, berriz, alaraoka ta garraisika ari zan, aiñenak eta biraoak botatzen, eta etsimendurik ikaragarrienenan eman zuen bere azken arnasa.

Bi modutara sufritu dteke: maitatuaz eta maitatzeke. Santuek, maitatzen zutelako, eramana, pozaz ta pazientzi aundiz sufritzen zuten dana. Guk, berriz, maitasun-gabeak gera-ta, aserre, etsi-etsian ta lazokeri aundiz sufritzen degu. Jainkoa maiteko bagenu, gurutzeak ere maiteko genituzke, gurutzeen gose-egarriz izango giñake, gurutzeetan atsegin izango genuke... Gugatik sufritu zuenaren alde sufritzeko eskubidea ematen zaigula-ta, zoriontsu izango giñake. Zertaz keitzzen gera, ba? Fedegabeko errukarriak, Jainkoaren eta beronen bikaintasun baztergabeen berri ez dakitenak, guk bezelakoxe gurutze ta samintasunak sufritu bearrean dira; guk ditugun zogagarririk gabe, ordea.

(*) Esprit., p. 188.

Zail dala? Bai zera. Gozo, pozkor, legun: zoriona berbera da!... Auxe bakar-bakarrik bear da: maitatu, sufritzen dan bitartean, eta sufritu, maitatzen dan bitartean.

Gurutzeko bide onetan, ots, lenbiziko pausua bakar-bakarrik izan oi da neketsu. Gure gurutzerik astunena, gurutzearen bildur izatea...

Eztegu biotzik izaten, gurutzea guregain artzeko. Gaizki egiña. Izan ere, gure alegin guztiak gorabera, gurutzeak ez gaitu utziko, ezin izango diogu ari iges egin.

Beraz, gurutzeak maitatuz eztegu ezer galtzen. Maita ditzagun, bada, eta balia gaitezen beroiezaz zerura joateko... Baiña, tamalez, gizonik geienek gibel egiten diete gurutzeei, beroien igesi ibilli oi dira. Zeinbat eta azkarrago igesean ibilli, ordea, ainbat eta geiago etortzen zaie gurutzea atzetik, ainbat eta astunago ta neketsuago biurtzen zaie aren pisua... Zentzudun izan nai baldin badezute, zoazte gurutzearekin to-poz-topo egitera, San Andres-ek egin zuan bezela. Onek, berretzat prestaturik zegoan gurutzea ikustean, onela zion: "*Agur, gurutze on ori! Gurutze miragarri ori! Amets zindudan ori...! Ar nazazu zure besoen artean, gizonen artetik kendu ta biur nazazu Jaunagana, zure bitartez erosi ninduan Arengana*".

* * *

Entzun au ondo, ene semeak: gurutzearen billa dabilleanak, gurutzearendik iges egiten du. Gurutzeak izan, izango ditu agian, baiña pozpozik. Jakiña, gurutzeak maite egiten ditu. Biotz aundiz eramaten ditu. Oien bidez Jaunarekin bat izatera irixten da. Oien bidez, garbitu egiten da anima zikin guztietatik. Oien bidez, munduko lokarrietatik askatu egiten da. Oien bidez, kentzen dira biotzetik eragozpen guztiak. Ur-gaiñetik igarotzeko, zubiak nola mesede egiten digun? Gurutzeak ere alatsu, bizitza au igaro dezagun.

Begira santuei: Iñoren persekuziorik etzutenean, berberrek persegitzen zuten beren burua... Praille on bat kejatu zitzaion bein Jaunari, persegitzen zutelako. Auxe zion: "*Jauna, zer egin ote det nik, era onetan tratatua izateko?*". Eta Jaunak erantzun: "*Eta Nik, zer egin ote nuen Nik, Kalbariora eraman nindutenean?...*". Orduan ikasi zuen prailleak,

negarrari eman zion, eta barkazioa eskaturik, arrezkero etzan geiago kejtazera ausartu.

Munduzaleak, gurutzeak etortzen zaizkienean, biotz-erori egiten dira. Kristau onak, berriz, gurutze-gabe daudenean egon oi dira goibel. Kristauari gurutze-artean bizitzea dagokio, arraiari uretan egotea bezela.

Begira zaiozute Santa Katalinari. Bi koroe ditu santa onek, garbitasunarena bat, martiriarena bestea. Naiago izan zuen sufritu, pekatuari toki eman baiño, eta bai pozik dagoe-la orain santa maite au!

Praile batek soka zakar bat lotzen zuan gorputzean: aintbesteraíño maite zituan ark neke-ildurak! Soka orrek mintza larrutu zion, eta apurka-apurka, gero ta barrurago ari zan aragian sartzen. Aragitik, berriz, arrak asi zitzaizkion ateratzen. Orduan, beste prailleek praille ura komunidadetik kanpora botatzeko eskatu zuten. Pozarren eta alai joan zan, eta arkaitz-zulo bat artu zuan estalpetzat. Baiña gau berean ots bat aditu zuen praille-etxe artako nagusiak: "*Zer egin dek? Etxeko ondasuna kanpora bota?*". Aguro joan ziran, ba, santu on orren billa. Ar aiek nondik irtetzen ziran ikusi nai zuten. Soka erantzi zioten, naiz ta ortarako aragi guztiak urratu egin bear. Atzenean sendatu zan.

Oi, animak oso-osorik Jainkoarenak diranean, berarizko gozoa nabaritzen dute oiñazetan! Urari olio asko botatzen zaionean bezelaxe. Ozpiña beti gelditzen da ozpin; baiña olioak onen garratza arindu egiten du, ia ez sentitzeko lain.

Emendik urbil, inguru auetako parroki batean, ba-zan mutil gazte bat, zauri bizi egiñik oean zeltzana, eri gaizto batek jota, errukarria. Nik esaten nion:

—Gizagaixo ori, sekulako oiñaze gorriak ikusten ari aiz!

Eta berak erantzuten:

—Ez, jauna, gaur eztet sentitzen nire atzoko miña, eta biar eztet sentituko gaurkoa.

—Nai al zenduke sendatu?

—Ez, ni gaizto nintzan gaixorik erori orduko, eta agian lengora biurtuko nintzake. Ondo nago, nagoan bezela...

Izan ba-zan an ozpiña ugari, ala ere olio zan nagusi...

Guk eztegu konprenditzen, guztiz lurtarrak geralako. Espiritu Santua berekin duten umeak, lotsatu egiten gaituzte.

Jainko onak gurutzerik bialtzen badigu, zapuztu egiten gera, negarzotinga ta muxinga asten gera, gaizki-esaka. Nai-gabetzen gaituan gauzarik eztegu ikusi nai. Luma-tartean jarriarik egon nai genuke beti. Arantza-tartean bai bear gunkela egon!

Gurutze-bidez joaten da zerura. Eritasun-tentazio-eraman-kizunak gurutzea besterik eztira, eta oiek eramaten gaituzte zerura. Gurutzeok azkar asko bukatuko dira... Begira gure aurretik zeruratu diran Santuei... Jainko onak ezdigu eskatzen gorputzeko martirioa, biotzekoa ta borondatearena baizik... Jauna degu gure eredu; gurutzea bizkarreratuz, jarraiki gatzazkion. Napoleon-en soldaduak bezela joka dezagun guk ere. Zubi batetik bear zan igaro. Etsaien metralla ta kazkabarra, ordea, ibaika zetorren goitik beera. Zubia pasatzeko etzuan inork biotzik. Alako batean, Napoleon-ek bandera artu, eta ba-dijoa danen aurretik, eta ondoren danak jarrai zitzaizkion. Egin dezagun guk ere beste ainbeste. Aurretik dijoakigun Jesusi jarraitu gatzazkion.

Militar batek bein kontatu zidanez, eraso-aldi batean ordu-erdi inguru ibilli omen zan gorputz illen gainean. Ez omen zan tarterik, oiña botatzeko. Lurra odolez zearo gorriturik agertzen omen zan. Bizitzako bidean ere, gurutze ta arantza-gainean ibilli bearra degu zerura iritxi nai baldin badegu.

* * *

Gurutza degu zerurako eskillara... Zein en gozo ta kontsolagarri dan Jaunaren begipean sufritzea, eta norbere buruari, arratsean, examina egiterakoan, onako au esatea: "Ederki! Jesukristorekin bi edo iru orduko antza izan dezu gaur, ene anima orrek: zigorkatua izan zera, arantzez korotua, berakin batean gurutzean josia..."! Au daukanak, eztu ondasuntegi makala eriotz-ordurako...! Izan ere, gurutze-gainean bizi ondoren, benetan gogoko ta atsegingarri zaigu iltzea!

Gurutzeen billa ibilli bear genuke, zikoitz-zeken oiek diru-billa ibilli oi diran antzera... Juizioko egunean, gurutzeek bakar-bakarrrik emango digute segurantza. Egun ori etor dadiñean, gure zorigaitz guziezaz poztu ta zoriondu egingo gera, bai orixel! Inoiz lotsatu ginduzten gauzezaz, arrotu ta alaitu, ikusi genitun neke-oñazeekin aberastu!

Norbaitek galdera au egingo balizute: "*Nik aberastu egin nai nuke; amets ori irixteko, ordea, zer egin bear ote det?*". Zuek auxe erantzungo zeniokete: "*Lan egin, orra zer egin bear dan*". Ederki erantzuna! Zerura joateko, berriz, sufritzea, orra zer bear dan. Ikus dezagun Zirene-ko Simon; onengana erakutsi baitigu gure Jaunak bidea. Lagunei gurutzea bere ondoren eramatera ots egiten die Jesusek.

Gurutzea beti-beti begien aurrean izan dezagula, nai du Jainko onak. Ori dala-ta, nonai jarri oi da, bideetan-zear, toki garaietan, erriko plazan, ura ikusita auxe esan dezagun: "*Orra noraiño maite izan gaitun Jainkoak*"!

* * *

Gurutzeak mundu osoa besarkatu du. Lurreko lau bazterretara ditu besoak. Bazter bakoitzak ba-du pere puska.

Arrizko zubi ederrak, ibaia igarotzeko nola mesede egiten digun? Ba mesede orixe egiten digute gurutzeek, zeruko bidean-gora. Sufritzen ez duten kristauek, zubi ausikor bat izan oi dute, ibaia igarotzeko, burdiñarizko zubia, alegia, gure oinpean beti puskatzeko arriskuan dagon zubia.

Gurutzea maite eztuana, salbatu al izango da, bearbada, baiña ozta-ozta ta nekez. Izar txatxarra izango da zeruan. Bere Jainkoagatik sufritu ta gudukatu duenak, eguzki ederren pare argi egingo du.

Gurutzeak maitasun-sugarrez aldatu ezkeru leun biurtzen dira. Arantza-mordoska ere, sutara bota ezkeru, auts biurtzen da. Arantzak, berez latzak dira, baiña oien austerrea, leun-leuna da.

Ipiñi zazute maats-mordo ederra tolarean: eze gozoa aterako da andik. Gure animak ere, gurutz-tolarepean, zumo legun berarizkoa egiten du, animari berari bizitza ta

kemena ematen dion eze-zukua. Gurutzerik eztegunean, leger gera; gurutzeak pazientziz sufritu ezkeru, berriz, sumatzen degu alako gozotasun bat, zorion bat, biguntasun bat!... Zeruairen asiera ta probatzea bezelako zoriona, alegia. Jainko ona, Andre Maria, aingeru eta santuak gure ingurumarian dira, gure aldamenean, guri begira daude. Kristau onaren beste mundura aldatzea, neke-atsekabeak ikusita dagoanaren eriotza, arrosez jantziriko oean dijoanaren irudikoa izango da.

Arantzak usai gozozko ura dario eta gurutzeak ezta dauka barrenean. Baiñan ortarako estutu egin bear dira arantzok eskutartean, eta gurutzea biotz-gaiñean bear da ertsi, barrenean daukaten ur gozo ori eman dezaten.

Neke-atsekabeek gurutzaren oiñetara eramaten gaituzte; gurutzeek, berriz, zeruko atarira. Zerura sartuko bagera, ostikopean erabilliak, ezetsiak, arbuiauak, birrinduak bear degu izan... Ba al dakizute mundu onetan zoriontsu nortzuk diran? Bizitza ontako samiñen erdian, animako pakea gordezten dakitenak: auek bakar-bakarrik, auek miazkatzen baitute Jainko-semeen gozoa... Neke guztiak ezti biurtzen baitira, Jaunarekin bat-egiñik sufritzen danean...

* * *

Oiñazeak eztigu ajolik eman bear. Begi itxi-iriki bateko nekea baizik ezpaita. Zortzi egunerako bakarrik zerura joango bagiña, orduan ikasiko genuke neke-momentu orren balioa. Ez legoke orduan guretzat ez gurutze astunik, ez lanbide samiñik... Gurutzea zer dan nai al dezue jakin? Auxe: Jainkoak bere lagun-adiskidei egiten dien esku-erakutsia, erregalua.

Goizero-goizero norbere burua Jaunari oparitzat eskeintzea, au oitura ederra! Gerta ditezken gora-bera denak ontzat artu bear dira, gure pekatuen ordaiñez izan ditezten. Gurutzeen maitasuna eskatu egin bear da: orduan gozo biurtuko zaizkigu gurutzeok. Lau-bost urteko proba eginda nago ni. Oso beztua, iraindua, persegitua eta ostikopean erabillia izan nintzan. Izan nituen bai gurutzeak erruz ta ugari!... Ia-ia era-

manala baiño geiago! Asi nintzan gurutzeen maitasuna eskatzen: eta egia diotzuet, orduantxe etorri nintzan zoriontsu izatera. Banion ordun nereko: *"Egiazki, eztago beste zorionik auxe baizik..."* Ezgaitezen inoiz ere ari, gurutzeak nondik ote datozen jakin nairik: gurutzeak Jainkoagandik datoz. Jainkoak bialtzen dizkigu beti, beronen bidez berari diogun maitasuna erakutsi dezagun.



XXII

Biotza lurreko atsegiñetatik kendu eta zeruko ondasunetan bear degula ipiñi

Mundua ba-dijoa. Gu ere arekin batean joango gera. Errege, agintari denak dijoaz. Betikotasunean murgiltzen dira, eta andik ezta iñor atzera itzultzen. Beraz, egiteko aundi bat baizik eztago: norbere anima gaixo onen salbazioa, alegia.

Santuak etzeuden lurreko ondasunei lotuak; zerukoetan zeukaten ipiñita beren gogo. Mundutarrek, kontrara, orainaldi igarokor onetan izaten dituzte amets-yoran guztiak.

Kristau on batek, diru-billa atzerrira dijoazten oien irudiko bear luke izan: oiek eztute an gelditzeko asmorik. Diru-pilla bildu ondoren, jaioterrira itzultzea beste ametsik eztute izaten. Edo, nai badezue, erregeen antzera bear da izan. Erregetza kenduko zaiela sumatzen dutenean, aurretik bialtzen dituzte beren diru eta ondasunak. An erbestean dauzkate, bada, ondasun oik, berak noiz etorriko begira. Kristau onak ere ori bera egiten du: egite on guztiak zeruko atera bidali.

Jainko onak lurgain onetan ipiñi gaitu, emengo gure denbora au nola igarotzen degun ikusteagatik, eta Bera mai-

Esprit., p. 242.

te degunentz jakiteagatik; baiña emen ezta inortxo ere gelditzen. “*Galera*” edo itxas-ontzi oitara eun urterako bialdu omen zuten, preso, gizon bat; eta bere sententzia bete ondoren, atzera itzuli omen zan errira. Eta jakiña, jende guztia joana zan; etxeak kendu ezkeru, inor ere etzuen ezagutzen...

Gogoeta pizka bat egingo bagenu, etengabe egongo giñake zerura begira, antxe baitago egotezko gure erria. Baiña munduko aberastasun ta lurrezko atsegiñak urduri, artaga ta arduratsu jartzen gaituzte; gogoan izan bear genuken arazo ta kezka bakarra, orde, alde batera uzten degu bazterturik.

Santu bat joan zan bein perira, jende talde aundi artan animaren salbazioaz arduratzen zanik ba ote zan ikustearren. Etzuen bat bera ere aurkitu. Au mundu gaixoa! Gizon mundduzale errukarriak! Bide zabal ederraren erditik ibilli naitzez, eta astoen antzera, bazterretik ibilli bear izaten dute beti.

Begira santuei: aiek bai zeukatela biotza, munduko gauzetatik aldendua! Mundua eta munduko gauzak etzituzten ezer-tan artzen. Praille bat aberastasun aundiren jabegai utzi zuten bere gurasoek, iltzean. Norbaitek jakinarazi zion albiste ori. Eta ark, ona emen zer galdetu zuan:

—Nere gurasoak il dirala, zeinbat denpora da?

—Iru aste.

—Aizu, ta il dan bat ezeren jabe izatera etorri al diteke?

—Ez, noski.

—Aor, ba! Iru aste da nere gurasoak il dirala. Ni, berriz, orain dala ogei urte il nintzan: ezin, beraz, oiengandik nik ezer artu.

Ba-zan beste santu bat. Ebangelioetako liburua zeukan ondasuntzat. Eskatu zioten. “*Tori, esan zuen, guzia ematen irakatsi didana ematen dizut*”.

A! Santuek ederki asko ikusten zuten mundu onen utsa ta ezer-eza, eta zeruko sari ederraren alde, guzia utzi oi danean, ba-zekiten nolako zoriona irabazten dan.

Ondasun-zaleak bitarikoak izaten dira: zeruko ondasunak, eta lur onetakoak amets dutenak. Lurreko ondasun-zaleak eztaki bere amets ta yorana, bizitz onetatik aruntz eramaten. Bein ere eztu esaten: naikoa det; batu, bildu, metatu..., gero ta geiago biltzea: orra bere asmo bakarra. Baiña iltzerakoan esku-utsik, ezer gabe aurkituko da. Sarritan esan dizutet: Negurako jateko geiegi gordetzen dutenai gertatzen zaiena, orixe bera gertatzen zaie adakoei ere: urrengo uza datorrenean, eztakite jateko oiezaz zer egin, enbarazu egiteko baizik eztira-ta. Eriotza etorri dediñean ere, ondasunak enbarazutarako baizik eztira izango. Ale bat ere eztegu eramango; emen utzi bear dana.

Zer esango ote zenuteke baldin gizon bat, nozbait ustelduko zaizkion, eta etxetik kanpora bota bearko dituen janaribilla ibilliko balitz, eta betiko gorde ditezken, eta beti balioko duten gauzak (esaterako, urregorria, diamanteak, ta arri dizdiratsuak) alde batera utziko balitu?... Aaor ba, ene semeak, gezurra dirudi, baiña guk beste ainbeste egiten degu: mundu ontako ondasun igeskorrai lotzen diegu gure burua, eta egizko ondasun bakarra dan zerua irabazteaz eztegu ajolik artzen.

* * *

Kristau on batek, zeruko ondasunzale batek, kontu gutxi egiten du lurreko ondasunez; amets guztia du ark bere anima edertzen, betiko poza emango diona metatzen, betiko iraungo duena, alegia. Begira errege, agintari, lurreko aundikiei: aberatsak dira oso; zoriontsu dirala uste al dezue? Jainkoa maitte baldin badute, bai; bestela, berriz, ez, eztira zoriontsu. Nere ustez, eztago aberatsa baiño errukarriagorik, Jainkoa maitte ez baldin badu, beintzat.

Santuak etzeuden ondasunei lotuak, gu bezela. Ba al dakizute zeri zenden lotuak? Betikotasun guztian gure poza ta zoriona egingo duanari.

Ibilli zaitez erriz-erri, lurraldez-lurralde, ondasunez-ondasun, atsegiñez-atsegin, zure zoriona eztezu aurkituko. Lur osoa ere ezta gauza anima illezkor bat asetzeko. Goseak illa, eskubete-iriñez ezta asetzen.

Apostoluei, Jesus zerura joaten ikusi zutenetik, lurra illun,

arbuia garri ta gutxiestekoa iduri zitzaien, eta oiñaze-billa ibiltzen ziran; mundu onetatik lenbailen atera, eta beren Jaun onakin alkartzea nai zuten. Makabeotarren amak, bere zazpi umeak iltzen ikusi ondoren, eta bera ere zazpi eriotz ikusita egonarren, itz adoregarri oik esaten zien: "*Begira zazute, arren, zerura...*".

Gure Jaunak, zerua erakutsiz saritzen zuan santuen fedea. Ba-dira paradisua pasio-lekutzat izan zutenak. Esteban Santuak, arrika ari zitzaizkion bitartean, zerua zabalik ikusten zuan bere burugaiñean. Paul Santua ere zerura eramana izan zan, eta an ikusitakoa adierazteko, gauza etzala aitortu zuan. Baita Teresa Donea ere zerua ikusitakoa zan, eta berak zionez, lurgaiñeko gauza oro gorotza bailitzan begiratzen zuan arrezkeroztik.

Gu ordea, ai ene! gu lurkoiak gera oso. Arrastaka ta narras gabilta lurrean; eztakigu gure burua gora jasotzen. Astunegi gera gu.

Lurra zubi bat da, ura igarotzeko zubia.

Kristau gaiztoak ezin konprenitu dezake zeruko itxaropen eder ori, kristau ona ainstesteraiño poztutzen eta bizkortzen duan ezperantza ori. Santuentzat zorion-iturri diran gauza guztiak, alakoarentzat gogor eta garratz baitira.

Entzun, ene semeak, gogorapen pozgarri auk: norekin izango ote gera gu zeruan? Gure aita dan Jainkoarekin, gure anai degun Jesukristorekin, gure ama dan Ama Birgiñarekin, gure lagun- adiskide diran aingeru ta santuekin.

Errege bat il zorian aurkitzen zan, eta naigabez baterik onela zion: "*Beraz, nerea dedan erreinū au, naitanaiez utzi bear, eta lagunik eztedan lurraldera joan bear ote del*"? Ja-kiña, errege au zeruko zorionaz etzan bein ere arduratu. Gaurdanik asita, egin ditzagun, ba, lagunak zeruan, ildakoan an aurki ditzagun. Orduan ez gera, errege ura bezela, bildur izango, an lagun ezagunik eztegula-ta.

XXIII

NORBERE NAIARI UKO EGITEAZ

Norbere naia, Jainkoarena egitearren, utzi: asmo onekin-txe bizi bear degu beti. Etengabeko irabazien iturri izango zaigu, asmo ori. Atsegiñago zaio Jainkoari norbere naiaren ukatze bakar bat, ogeitamar eguneko baraua baiño. Uko egin zaiozute beti zuen naiari, Jainkoarena eta lagun urkoarena egiteko; ez izan arroputz oien antzera, beren uste-iritziak beti nagusi nai lituzketen oien antzera... Ezagutu ditut nik munduan, ukatze ori egunean-egunean pratikatzen zuten animak.

Naia edo borondatea kenduezkero, gurea dan gauzarik eztegu guk: beraz, ezin Jainkoari auxe besterik eskeiñi. Gure borondatea utzi, eta iñorena egiten degun guztietan —borondate ori Jainko legearen kaltetan ez baldin bada, beintzat—, Jainkoak bakarrik dakizkin irabaziak irabazten ditugu. Zeruan aberats izateko, bide guztiak bear dira atzeman. Au ta ori egitea gure esku baldin badago, egin dezagun beti gutxien gustatzen zaiguna. Prailleen biziera, ba al dakizute ain sarigarri zerk biurtzen duen? Ba etengabeko uko-egite onexek, norberarentzat illik egote onek. Begira, enetxoak, askotan pentsatuta nago; danok dakizute neskame baten biziera nola-koa izan oi dan. Biziera ori bada, eginbideak txintxo betetzen baldin badira, nagusiaren borondatea egitea baizik eztuen ez-kero, eta egunoroko uko onetatik protxu ateratzen baldin ba-

Catéchismes, p. 204.

daki, bere erreglaren azpian bizi dan mojarena baiño atsegi-
ñagoa izan diteke Jainkoaren begitan.

Ixtante guziez izaten dira munduan, norbere naiari uko egi-
teko egokierak: ikustaldi bat ez egin, iguin zaigun karidatezko
lanen bat egin, bi minutu beranduago oera joan, bi minutu goi-
zago jaiki... Ezagutu ditut nik taju onetako anima ederrak: etzu-
ten batere borondate propiorik, zearo illak zeuden bere burua-
rentzat: ain zuzen ere, orretzek egiten ditu santuak. Abnegazio-
ko bide onetan bein sartu ezker, gaiñerakoa berez, dijoa, eta
birtute orren jabe izatera etorri bagera, dena daukagu gurekin.
San Luis Gonzagatarrak sarritan eskatzen zizkien nagusiei
baimen batzuk, emango etzizkiotela uste zituanak, alegia: be-
re burua ukatzeko erak billatzen baitzitu. Erdizka baizik
kristau eztiranek, ordea, beti izaten dituzte aitzakiak egifien
santu ori lagatzeko: ni ez naiz gauza, zaillegi da, t. a.

Bein baiño geiagotan aipatu dizutet San Mauro txiki ura:
onen bitartekotasuna aundia zan Jainkoaren begietan, eta na-
gusiak txit maite zuan, bere obedientzi ta bakuntasunagatik.
Gaiñerako prailleak bekaizkeriz zeuden aren kontra. Baiña
nagusiak esan zien: Aguro erakutsiko dizutet zergatik dedan
nik orren estimu aunditan praille txiki au. Egin zuen gelaz-
gelako bisita: denek, atea zabaldu orduko, izaten zuten egiteko-
renbat bukatu bearra; soil soilik San Mauro, Eskritura Santua
kopiatzen ari zanak, bere zeregiña bereala utzi zuen, San Beni-
to-ren otsari erantzuteko.

Beste praille bat ere izan zan, kanpaiak ots egiten zio-
nean, beti otoitzen bat bukatu bear zuala-ta, etorri gabe gel-
ditzen zana. Ama Birgiña agertu, eta esan zion: *Ara, atse-
giñago* izango zintzazkidake, zure naia ukatzen bazeneki. San
Frantzisko Saleskoak, arako santu aundi ark, letra erdi egi-
ña lagatzen zuan kontseju eske zetozkiotenei erantzutearren.

XXIV

JAI EGUNAK JAI EGITEAZ

Begira, ene semeak, igandean asko bildu diteke, zerurako aberats egin gindezke, grazi ta bedeinkazio-eguna baita. Emen gure artean gizon bat bizi zan, aberats-aberatsa bera: erretore jauna ikustera zijoakionean, diru-kutxa iriki eta pobreentzat nai zuan guztia artzeko esaten zion. Ba orixe bera egiten du Jainkoak igandean: bere ganbarak zabaltzen dizkigu: gure kontura gelditzen da gero andik eskubeteka artzea.

Negargarri auxe! Kristau errukarri askok alperrik galtzen dute egun au, Jainkoaren eguna eztute jai egiten. Igitatzen, masti-lanean edo uzta biltzen ari-izaten dira, eta ori meza-tara joan gabe. Nere sorterrian, igandez gauzarik txikiena ere egin nai baldin bazan, baimena eskatzen zitzaion apaiz jaunari, eta karriatze-lanik etzan inoiz ere igandez egiten. Erri onetan erligio apur bat balego, ezlirake karriatzen ibilliko ibiltzen diran bezela.

Emakume batek, igandean uzta biltzeko, baimena eskatzen zion bere apaizari. Apaizak, berriz, etzala bearreko esan zion. "*Beraz, zer nai du berorrek: alperrik galtzen uztea, ala...?*", erantzun zion emakumeak apaizari. Gau arian bertan il zan emakumea. Uzta baiño premia aundiagotan zan bere animaren salbazioa...

Catéchismes, p. 7.

Beste batzuk joan bai, joaten dira mezatarak; baiña elizan sartu baizik eztute egin, eta andik irtetzeko irrikitzen egoten dira. Igandea dalako joaten dira, besteak ere joaten dirana ba-dakite-ta; igandea ez palitz, iñork ez lituzke elizan ikusiko. "*Usadioa*" izan oi da, erligioa baiño geiago, alakoak mezatara eramaten dituenak.

Meza-aurretik on litzake ordu-laurden bat gutxienez prestaera bezela ematea. Prestaera orretan, gure burua Jainkoaren aurrean apaldu eta umildu bear genuke. Ark Aldareko Sakramentuan berea umiltzen duan antzera. Orrezaz gaiñera, gure kontzientziako esamina egin: izan ere, meza bear dan bezela entzuteko, on litzake graziazko izaeran egotea. Baiña alako aiek, aipatu ditugun oiek, nolako prestaerakin etortzen ote dira?

Munduko aundizki baten etxera joan bear badute, nolako ardura ta arreta artzen duten esan gogo dutena ikasteko! Utsik egingo ote duten bildurrez egoten dira.

Mezatara datozenean, eztute ainstesterañoko ajolik artzen: berriketan etortzen zaizkitzute, elkarri zirika, jolas-tokira edo dantzara balijoaz bezela; gogoa zearo dakarte munduko gauzetan sartua, barreatua eta ixuria. Eliz-ateraiño amai-gabeko jardunean datoz. Parrez artzen dute ur bedeinkatua, beatza antoxin batean sartuko baluteke bezela: eztute asko gogoratzen ur bedeinkatuak, biotzeko damutasun eta Jainkoaren maitasunaz artzen baldin bada, pekatu ariñak kentzeko indarra duela. Elizara ezker, ozta-ozta jartzen dira belauniko.

Meza-bitartean, Jainkoa ofenditzera baizik eztirala etorri iduri luke. Gogoa milla gauzakin ta milla distraziokin daukate betea. Gizakumeek beren sal-erosi eta tratuekin, emakumeek etxeko gora-berakin, mutillek beren jolas atsegiñekin, neskatzak beren uskeri ta amets zoroekin. A, fede bizi baten jabe balira, nolako lotsaz ta itzal aundiz egongo liraketen, aldare-gaiñeko Jainkoa adoratzan ari diran aingeru-taldean aurrean! Nork esan, iritxiko lituzketen ondasunak!... Jesu-

kristo aurkitzen da an, aldare-gaiñean, bere eskuak bete-be-teak dauzkala, eta nori eman eztakiala.

Auxe esaten diela ematen du: "*Eskatu zadazute, bai, eta Nik emango dizutet*". Baiña errukarri oiek, ainbeste on-dasunen erdian ibilli ondoren, ateratzen dira andik, sartu diran bezin pobre ta lander, eta ori intenzio jakiñik gabe etorri diralako, eskabide jakiñik egin eztutelako, eta erabaki sendorik artzen eztutelako. Esaten dute bai, eta ongi esan ere: "*Nik konfiantza bete-bete bat det, konbertitu nai det nik*". Ba-dakigu beti bear dala ezperantza izan, eta etsimena peka-tu guzietatik aundiena dala. Baiña konbertitu bear ori ezta egunetik egunera luzatu bear, Jainkoagana biurtzeko asmo edo borondateak zintzo eta eragille bear du izan.

Oi, nork esan meza santuak zeinbat eta zeinbat grazi erakarriko lizkigukuen, artara bear dan bezelako asmoaz joan ezkerro! Gogoan izango dezue, nonbait, ainbeste aldiz konta-tu dizutedan gertatua, eizera zijoazten iru gizon aiena, alegia. Iruretatik bat goiz artan meza entzundakoa zan. Alako ba-tean, ba-dator odeia, oiñaztarriak ler egiten du, lenbizikoa-ren gain erortzen da, eta bigarrena ere iltzen du. Irugarre-na ere garbitzera zijoanean, ots bat aditu zan, auxe ziola: "*Et verbum caro factum est*, gaur goizeon meza entzuna da ori". Meza santuari eskerrak, Jainkoaren babes berezi bat iritxi zuan, eta ala, eriotzatik libratu zan.

Ba-dira bazterretan zeregin guztiak igande-goizerako uz-ten dituztenak, adibidez sega zorroztu, soingaiñekoa garbitu, edo ganadu jatenak egin. Meza santurako prestara polita orixe.

Beste batzuk larunbatean saiatzen dira gogotik, gero igandean zertan jardun izan dezaten. Esaterako, orain, uzta-garaiean, bildu-ala biltzen dute larunbatez, gero igandean galburu-lotzen ekitzogatik.

Oi, eriotzako orduan bai izango geralea damu, Jainkoa-ren eguna gaizki gorde genulako! Jainkoaren ondasunez ba-liatu ez giñalako! Nolako naigabea gure burua inpernurako galdua ikustean, eta ori ain erraz utzi ziteken lan bati lotu gintzazkiolako. Eternidate osoa erretzen!

Jainkoaren eguna ez gordetzetik, ona emen zer datorren: erlijioaren ajolik ez izatea, fedea galtzea, eta azkenean eriotza gaizto bat egitea.

* * *

Aita, ama, ugazaba edo etxeko-andreak agintzen al dute igandean lan egiteko? Aren agindua bildur gabe autsi deza-kezute, eta orregatik eztezue batere pekaturik egiten. Batzuk, ordea, kezka au izaten dute: "*Baiña nik lan egin ezik, aiek biraoka asiko dira, aiñenak botako dituzte...*". Bota ditzate-tela! Ainbat txarrago berentzat!

Martiriak bildur orrekin egon balira (besteak biraoka ipintzeko bildurrakin, alegia) beren fedea ukatu egin izango zuten, eta gaur ez lirake martiri izango. Agintari odol-zale aiek irain, zema! ta biraoz josi egiten zituzten martiriak: auek, ordea, etziran orren bildur. Baiña orain, gure egunotan, ez-tago batere erligiorik, fedea itzali da.

* * *

Batzuk lan egiteko baimen general baten azpian gorde-tzen dira, eta beren burua garbitzen dute, esanaz: "Baimena dago". Ene semeak, baimen ori eztezue aski; zatozte eska-tzera bakoitzeko, etzaizute ukatuko, premiazkoa baldin bada.

* * *

Zeinbat pekatu mortal egiten dituzten nagusi eta etxe-ko-andreak, beren etxetan igandez lan egiten bada? Zeinbat ogipeko ta langille lanean ipiñi dituzten, beste ainbeste peka-tu mortal. Nagusiak errudun dira, berek eragin ezik, aiek ezluteke lanik egingo-ta. Baita etxeko-andreak ere, langillen-tzat bazkaria berek preparatzen baitute.

* * *

Erligioa dutenek, beti aurkitzen dute igandean lan ez

egiteko modua. Alakoak, larunbatean ardura artzen dute, eta urrengo egunerako bear izan ditezken gauza guztiak aldeztetik aurretik ikusirik, orduan egiten dituzte. Igandean, berriz, astetenerako utzi ditekene, utzi egiten dute.

Ta ez al da au bidezko? Aste osoan egin oi da lan gorputzarentzat, bitartean anima gaixoa bazterturik dagola: beraz, ez al da bearreko atsedeen-egun bat ari oso-osorik ematea, aste-barruan egin diran utsegite guztiak ordaintzeko?

Aste osoa Jainkoa ia batere gogoratu gabe igaro ondoren, ez al da bidezko igandea Ari otoitz egiten eta eskerronak ematen enpleatzea?

Kristau on batek, ene semeak, ba-du, bai, lan egin gabe ere, igandez zertan eguna eman. Eguerdira-arte eskerrak egin bear zaizkio Jainkoari, lengo astean artutako mesedeen ordezt, eta eguerditik arratsera bitartean, datorren astea ongi igarotzen lagun dakigula bear zaio eskatu.

* * *

Esan oi da batzuetan: igandean meza entzutea ondo da, obligaziozko baita; bezperak, berriz, eztira, eta utzi ditezke.

Bezperatarara ere joan bear da, edo eragozpenik baldin bada, irakurri bederen. Igande-goiza Meza santuaz, arratsaldean bezperakin santutu bear da. Igande-eguna jai egiteko, lau ordu bear dira otoitzetan eta karidadezko zeregiñetan igaro (1). Aingeru eta Santuek Jainkoa adoratzeko lau ordu baizik ezbaluteke ondo galdutzat joko luteke beren burua!

* * *

(1) Santuak eztu emen esan nai, igandean bezperetara joatea eta lau orduko otoitzean aritzea, obligaziozko gauza danik. Ars-ko bere parrokiari danak joaten ziran garai artan meza nagusira. bezperfetara ta arratsaldeko elizkizunera (au da, erro-sario, otoitz ta sermoira); gelenak etortzen ziran, gainera, Santuak bezperen-aurretik egin oi zituan. Erakusaldietara (Dotrifiara) ere. Eta ala, Ars-ko eliztarrek, guztira, lau ordu ematen zituzten igandero, Jainkoarekiko eginbideetan.

Irutarikoak izan oi dira igandean mezetara datozenak: leenbizi, graziatzko egoeran daudenak (gutxiak dira auek); gero beren konbersioa eskatzera datozenak; eta azkenik, pekatuzko egoeran datozenak, Jainkoagana bihurtzeko batere gogorik eztutela.

Begira, ene semeak, elizara biotz garbi batekin datozen oiek nik esango dizutet nola agertzen zaizkidan: Jainkoa irri-parre gozo batekin begira dagokie; samur, maitekiro ta atsegiñez ikusten ditu alakoak. Besteai, berriz, beren konbersioa eskatzera datozenai, biotz errukitsu batekin, ontasun ta errukizko begiakin begiratzen die.

Baiña besteak, irugarren tokian aitatutako aiek, oi...! oiek berriz ere gurutz-iltzatzen dute Jesukristo beren biotzetan, berriz ere josten dute gurutzean; ura meza entzuteko era egokia! Eta Meza ondoren igande-eguna nola ematen dute? Or joango zaizkizute adiskide gaiztoekin... eta igandean gaiztakeri geiago egingo dute, bearbada, aste osoan baiño: ordua etor dedinean, nola konfiantzarekin azaldu, Jainkoaren aurrean orrela ibilli ondoren?... Orduan ikusiko dute, orduan, egin izan zuten gaitz guztia, eta etsitzera etorriko dira.

Begira, ene semeak, Arsenio Santuarena: berrogei urte basamortuan penitentzitan igaroa zan, eta ala ere bere azken ordua zetorkiola sumatzean, dardara batean jarri zan, Jainkoaren Epai-Juizioa gogoratuaz; oi batzuen gainean etzanda zegoela, izu-laborriak artuta zegoan, oea bera ere dardaraz ipintzeraiño. Galdetzen zioten anaiek: munduko ondasun ta aundiuste guztiak utzi ondoren, bere burua eremuan lurpetu ondoren, ia nola egon ziteken bildurrez. *"A!, erantzun zuan berak, nik gauza bat dakit: pekatu egiña naizela, nire pekatu ori barkatua izan ote dan eztatit!"* Aor bada, santurik gorenak ikaratu egiten ziran, Jainkoaren Juizioa gogoratzean. Zer izango ote da, ba, Jainkoaren egun santua likistu duten oiezaz, bizitza osoa gaiztakeriz josita, pekatuz gainezka daukaten oiezaz?

Igandeen egokiera ederra eskeintzen dizute, bai bizitza

berritzeko, eta bai norbere burua Jainkoaren Juiziora azaltzeko eran jartzeko ere: balia zaitezte, otoi, egokiera onezaz!

* * *

Umeak zaitzearren-edo, mezetara joan gabe gelditzen diranak, meza asteko garaia dala antz-eman dezatenean, belau-niko jarri eta otoitz guztiak esan bitzate, mezetan baleude bezelaxe, eta mezak dirauan arte guztian otoitzean ari bear dute. Aurrak txikiegi diralako, ori egitea posible ezpalitz, orduan egin litzate otoitzok etxeko beste lagunak alde egin orduko, eta meza-bitartean elkartu bitez apaiz eta kristau meza-entzuleekin... Aurtxoari, zerbait itz egiteko gauza dan ezkerotzik, otoitz egin erazi bear zaio. Aur txiki baten *Aitagure ta Agurmari* bakar bat atsegiñago zaio Jainkoari, pekatari baten irurogei *Agurmari* baiño. Aurtxoan otoitzak Jainkoaren bedeinkazioa erakartzen du etxera. Umetxoak otoitz egiten ez jartzea, Jainkoari gloria aundia kentzea bezela da.

* * *

Aurrera ere, Jainkoaren itza begirune ta itzal aundiz aditu bear da, Apaizari aldarean eta pulpitan dagoan bitartean Jainko berbera balitz bezela begiratu bear zaio, Jainkoaren tokian baitago.

Asko eta asko, apaiza sermoi egiten ari dan bitartean, jartzen dira lo egitera lasai, edo parrezka, berriketan eta iseka egiten diardute! Emen gure parroketan, bear bada, ezta au ain sarritan gertatzen; baiña uri koskor-samarretan, sermolaria itzaldi eder bat egin ezpadeza, kanpora ateratzen dira, batere lotsarik gabe. Beste batzuk irakurtzen ekiten dute, edo beren liburuko orrialdeak atzera ta aurrera erabiltzen, pulpitan dagoan apaizaren begi-begitan: ori Jainkoari irain egitea da, apaiza Aren ordezeko ta mandatari da-ta.

XXV

GURASOAK AINTZAT EUKITZEAZ

Gurasoak bildurrez egoten dira beren umeai naigaberik emateko; eta, aldiz naiago izaten dute beren kontzientziari kalte egin, umeai min eman baiño. Semeak, berriz, ajol gutxi izaten dute gurasoakgatik, eta gaizki tratatzen dituzte, batez ere zaartu diranean. Aita ta amak berengatik beñola artutako neke-lanak, ez dituzte konturako artzen: bai, umeok bi eguneko aurtxo ziralarik, amaikatxo buru-auste ta eramankizun samin ikusitakoak dira guraso gaixoak! Etengabe egon bear antxe, gau ta egun, betiere antxe, askotan erdi-jantzirik, ama gaixoa batez ere. Begira, ama batek esaten zidan bein gau batean berrogei aldiz jaikia zala, eta ala ere etzan batere kejatzen! Ba ote da semerik, beren gurasoakgatik berrogei aldiz jaikiko litzakenik? Agian bat bera ere ez geunke aurkituko.

Gurasoak, zaartzaroan, eztira beti ain dotore ta apain agertzen, eta nazka pitin bat ematen dute. A, eta zeinbat zapuzkeri egiten zaien orduan! Eta zuek, iru edo lau illabeteke ziñatenean, garbitasun eta dotorerian aingerutxo batzuk ote ziñaten gero? Orixe bear zenukete beti gogoan euki, eta lotsa, itzal ta arreta aundiagoz tratatuko zenitukete zuen gurasoak!

Aita eta amak, noraiño maite dituzten beren umeak! La-

(*) Catéchismes, p. 26.

nik nazkagarrienak egin bear izaten dizkiete, eta ori etengabe, eta eztira ezergatik ere gibelatzen. Amak bere loa eten bear izaten du, aita ere jaikitzen da askotan, eta gero, eguna etor dediñean, guztiz erkiturik egonda ere, or joango zaizute etxe osoarentzat ogi-billa. Ala ere, eztu ezer esaten, pozik dago beti. Semeek, berriz, sasoi onera eldutakoan, gurasoen ajol gutxi izaten dute, aiekin egon ere eztute nai izaten; aiekin lanera joateko ere, erabe izaten dira. Jakiña, ba, bakunak omen dira, tolesgabeak, orain-aldiko modaen berriz ez omen dakite...

Batzutan, semeak gurasoak baiño ofizio goragoan, gizar-te-mailla obeagoan bizi oi dira, eta dotore jantzirik ibiltzen zaizkitzu: baldin guraso pobreak badituzte, beroiezaz lotsatu egiten dira, eta ez dituzte ezagutu nai. Begira! Ba-zan alaba bat, etxe aundi batean lan egiten zuena; ama berriz, eskean zebilen, ta bein ama ori alaba ikustera joan zan. Esaten diote alabari ama atarian daukala, eta bere zai dagoela. Alabak, ura bere ama zanik etzuan entzun nai izan, gorde egin zan, eta etzan jetxi.

Gizon batek seme bat zuen. Zezakean guztia egiña zan gizon ori bere semea eskolatzeko; ain zuzen, eskola orri eskerrak, baratari (notario) izateraiño iritxi zan semea. Gurasoa, berriz, bere semeagatik dana eralgi ondoren, eskean ibilli bearrean aurkitu zan. Bein, semearenean bazkaldutakoan, bazijoan gizona, bere eskale-zorroa aaztuta utzirik. Semeak etzuan nai, ura bere aita zanik adieraztera eman, eta zein ize-nez otsegin asmatu ezinda, deadar au egin zion: "*E! Zorrodun gizon ori*". Eskalea itzuli zan atzera, eta semea makillaz ondo berotu zuan, auxe esaten zion bitartean: "*Ar zak! Zorrodun gizona neri esaten erakutsi nai diat: Ez al nauk ni, iri eskola eman niana, igatik dana ondatu, eta aizana izatera ekarri indudana*"?

* * *

Esanik dago onezkero, ene semeak, aita ta ama aintzat bear ditugula euki, geran guztia berengatik artua baitugu.

Tamalez, eztegu ori asko pentsatzen! Or ikusiko dituzute aita gaixoa edo ama gaixoa sukalde bazterrean aituaz, seme-alabak kalean edo jolasean dabiltzan bitartean. Askoz obe litzake irakurtze onen bat egin balekie: Noraiño poztuko liraken orrek! Baiño ez, zokondoan egoten dira, bazterturik, eta guraso gaixoak, gogaiturik, beren buruari eriotza opa izaten diote, esanaz: *"Il izan banintz beintzat, ez nuke estorburi egingo"*!

Beste batzuk, beren guraso zaarrek pobreak baldin badira, eta deus ere utzi ezpadiete, aserre egiten diete, ta aoratzen duten jana ere aurpegira botatzeko ausardia izaten dute: *"Jan galanki jaten dute bai, —esaten dute—; egin, ordea, eztute ezer ere egiten"*!

Begira, ene semeak, bein batean mixiolari bat mixioa egiten ari zan. Eta joan zan etxe batera, etxekoai mixiora etortzeko eskatzera. Atea zabaltzean, guraso zaarra ogi-zati bat ebakitzen arrapatu zun:

—*"A! Jauna, esan zuen agureak, guztiz lotsatuta, nere alabari ostutzen ari nintzan"*.

—*"Baiño, erantzun zuen mixiolariak, jana neurtu egiten al dizute?"*

Eta gurasoak:

—*"A! Jauna, nere alabak ikusi baldin banindu, ederrak entzun bearko nitukean! Arentzat nik beti jaten det geiegi! Il izan banintz, bederen, ez nintzake orren zoritxarreko izango!"*

Eta onela, alako seme-alabak, beren gurasoak gaizki esaka jartzen dituzte, etsimenera eramaten dituzte, eta bear bada, beren erruz kondenatuak izatea ere gerta diteke.

Beste batzuk, gurasoak gaixorik daudenean, eta eliza-koak eman zaizkienean, an uzten dituzte bakarrik, eztute geiago beren ardurarik artzen. *"Or konpon, egin zak nai dukana"*! Ene semeak, ezta orrelakorik egin bear. Aitzitik, dana bear da utzi aiengatik; gaixorik daudela, ardura geiagoren premian aurkitzen dira-ta. Izan ere, gaixotasuna pazientziz eramateko, santutasunean goratu-samar bear baita egon, eta orregatik, ezta arritzekoa edozein gauzak pazientziaz atera,

eta aserretzen baditu. Alegiñak egin bear dira, ba, orrelako pekatuei bideak ixteko; bestela, gerta liteke, iltzerakoan, aiek pekatuakin egotea, eta pekatuok aitortzeko egokierarik ez izatea.

Ene seme-alabak, ardura zaitezte zuen gurasoakgatik, maite itzazute. Eta benetan maite badituzute, alegiñak egingo dituzute min-atsekabe danak aiei kentzen. Eta orduan zuen gurasoak pozik biziko dira, bedeinkatuko zaituzte, eta beren miñak pazientziarekin eramango dituzte. Eta gurasoak ildakoan, erregutu Jainkoari beren alde.

Tamala! Errelegio gabeko semeak eztute otoitzik egiten gurasoengatik; ogeitamar, berrogei, baita berrogeita amar urte ere joango zaizkie *aitagure* bat bera ere aien alde esan gabe. Eta pentsa berai zor dietela bizia! Esker txarrekoak alakoak, biotzeko eta justitziatzko eginbide zorrotza ezpaitute ezagun!

* * *

Beste gauza bat oraindik: Gurasoek beren ondasunak ez bitzate utzi, eriotz ordua baiño leen. Entzun, naiko gatza duen histori jostagarri au:

Izan zan gizon bat, bere ondasun guztiak umeai utzi zizkiena. Aurki damutu zitzaion: Seme aiek berakin gogait egiñik, aita elkarri egotzi naiean ibiltzen baiziran.

Baiña gizon onek adiskide bat zuen oso aberatsa. Kontatu zion oni bere zoritxarra, eta gañeratu zion:

—*Mesede bat egingo bazenit, etorkizuna arinduko zenidake.*

—*Nik zuri ezin gauzarik ukatu, erantzun zion adiskideak.*

—*Utzi zazkidazu, ba, ordu gutxirako bakarrik, bost milla franko. Nik bazkari bat egingo det, eta bertara deituko ditut nere lagunak. Bazkalartean azaldu zaitez, eta bost milla franko zuri prestatzeko eskatu zadazu; eta nik, jende guztiaren aurrean, emango dizut diru ori, ordainez ematen dizudalakoan. Nere semeak, txanponak ikus ditzatenean, ez izan bildurrik, aduratuko dira, bai, nizaz.*

Esan ta egin.

Bazkaltzen ari dirala, azaltzen da jaun aren morroia, eta bere nagusiaren izenean, bost milla franko, arren, baitur-
ran emateko eskatzen dio.


—*Bai pozik ere, erantzuten du gure gizonak; bazkalduta-
koan emango dizkizut.*

Bazkaldu ezkeru, badijoa gure gizona diru-billa, eta baz-
kaltiar ororen begietan ematen dio morroiari. “*Ikusi, esaten
zun jendeak, dana utzi zuela ta... Beraz, etzan ori egia*”. Eta
ark jardetsi zuen: “*Bai zera, dana utzi! Eztitut nik nere on-
dasunak ain errez uzten. Ni zaintzen nauenarentzat izango di-
ra gorderik dauzkatan diruak*”.

A! Egun artatik ikustekoa zan nola alegintzen ziran
seme aiek aitaren ingurumarian ibiltzen! Elkarren leian ze-
biltzaten, orotariko kunplimentuak ari egiten. Etzuten nai, ark
ezeren falta izaterik.

Gizon orrek kutxa bat zeukan, eta ziotenez, kutxa orre-
tan omen zeukan gorderik bere dirutza ori. Kutxa au etzan
zabaldur bear gizona il eta berrogei egun igaro arte. Il zan,
ba, gure gizona. Semeak *entierro* eder bat egin zioten. Ondra
edo illetak ere arrigarri ospetsuak izan ziran. Iriki zan gero
kutxa zoriontsu ura... Barruan etzan auxe besterik aurkitu:
iltzeak, maillua, eta paper bat. Paper onek ara zer zekarren:
Gurasoek, il arte, eztutela beren ondasunik utzi bear.

Ark bai ederki ziria sartu! Etzuten asko uste iltzeak to-
patuko zituztenik! Ortik agiri da semeak, sarritan, gurasoei
amaika zurikeri egiñarren, diruagatik, aien ondasunen jabe-
dun izatera etortzeagatik egin oi dituztela itxura oik.



IV Atala, zer artu

XXVI

A P A I Z A Z

Apaizgintzako Sakramentuaz dugu gaur solas, ene semeak. Badirudi sakramentu onek eztuela zer-ikusirik zuetako iñorekin, baiño, egia esateko, mundu osoarekin du zer-ikusi. Sakramentu onek Jainkoaganaiño goratzen du gizona. Ikusagun, bestela, apaiza zer dan: Jainkoaren tokian dagoan gizona, Jainkoaren eskubide guziezaz jantzia ta ornitua azaltzen dan gizasemea. “Zoaz —esaten dio gure Jaunak apaizari—. *Nere Aitak Ni bialdu niñun bezela, gisa berean bialtzen zaitut Nik zu... Eskubide danak emanak izan zaizkit, bai zeruan eta bai lurrean ere. Zoaz, beraz eta nere izenean irakatsi ta eskolatu itzatzu errialde guztiak.... Zu entzuten zaituenak, Ni Neroni entzuten nau; eta zu arbuiaitzen zaitunak, Ni Neroni arbuiaitzen nau*”.

Apaizak, pekatuak barkatzerakoan, eztu esaten: “Jainkoak barkatzen zaitu”. Ona emen zer esaten duen: “Neronek barkatzen zaitu”. Sagarakoan ere eztu esaten: “Au gure Jaunaren Gorputza da”, baizik: “Au neronen Gorputza da”.

Bernardo Donearen esana da, Mariaren bidez etorri zaitula dana. Era berean esan diteke apaizaren bitartez dana datorkigula: zorion guztiak, alegia, grazi guztiak, zeruko doai oro.

(*) *Esprit.*, p. 111.

Apaizgintzako Sakramenturik ezipagenu, ezgeunke izango Gure Jaunik. Izan ere, nork jartzen du Gure Jauna aldarean? Apaizak. Zuen anima bizitzara etortzean, nork artu ote zuan? Apaizak. Bere erbestealdia egiteko bear duen janari indargarria zeñiek ematen ote dio? Apaizak. Jainkoaren aurrean azal dedin, zeñiek gertu ta apaintzen al du? Zeñiek garbitzen al du aurrenengo aldiz anima ori Jesukristoren odolean? Apaizak, berriz ere apaizak. Eta anima ori iltzera baletor, zeñiek atzera piztu? Zeñiek emango ote dio berriz pakea? Aurrera ere apaizak; Jainkoaren mesede bat bakarra ere ezin dezakezute gogora ekarri, oroipen orren ondoan apaizaren irudia ipiñi gabe.

Zoaz aitortzera Ama Birgiña edo aingeru batengana: emango al dizute absoluziorik? Ez. Emango al dizute Kristoren Gorputz eto Odolik? Ez. Ama Birgiñak eztu eskurik, bere Seme Jainkoa hostira jetxi-arazteko. Naiz ta berreun aingeru zurekin euki, eztira gauza zuri absoluzioa emateko. Apaizetan atzenenak ere ba-du ortarako esku. Onek esan dezaizuke: *"Zoaz pokean, Nik barkatzen zaitut"*.

Munduan gauza aundirik bada, apaiza!

Zerura arte eztegu ondo jakingo apaiza zer dan... Lur onetan jakingo bagenu, il egingo giñake, ez noski izu-ikaraz, maitasunez baizik...

Jainkoaren gaiñontzeko mesedeak ezlirake ezertarako izango, apaizik ezipagenu. Izan ere, zertarako degu urrez beteriko etxea, etxe ortako atea iriki dezakenik ezipadegu? Zeruko ondasunen giltza, apaizak du. Atea ark irikitzen du. Jainko maitearen ondasunen arduradun, kontu-artzaille ta banatzaillea, uraxe baita.

Apaiza gabe, Kristoren eriotza ta pasioa alperriko lirake. Begira erri basati eta jentillei: Kristoren eriotzatik, ba al datorkie onurarik edo mesederik? Salbazioko mesede aundian ezingo dute parterik izan, arik eta apaizak Odol orren aplikazioa berai egin arte.

Apaiza ezta apaiz beretzat: apaizak bere buruari ezin absoluziorik eman. Sakramenturik ezin beretzat administratu. Ezpaita apaiz beretzat, zuentzat baizik.

Jainkoaren urrenge, apaizak ditu eskubide danak...! Utzi zazute parroki bat ogei urtetan apaizik gabe, eta piztiak adoraturako dituzte.

Apaiz-laguna (koadjutorea) ta biok emendik joango bagina, zuek esango zenuteke: *"Eta orain, eliza au zertako degu? Eztago geiago mezarik, eztago bertan Gure Jaunik. Berdin-berdin da norbere etxean erreztatzea..."*.

Kampaia elizara ots-egitean, inork galde balezaizu: *"No ra zoaz?"*, zuk auxe erantzun zenezaioke: *"Nere anima azitzera nioa, ari bizigarria ematera, alegia"*. Eta inork, Sagrarioa erakutsiz, galde balezaizu:

—Zer ote da urre-itxurazko ataka txiki ori?"

—Ori janaritegia det, nere animako bizigarriak eukitze-ko tokia.

—Eta zeiniek ote du, ba, bertako giltza, zeiniek banatzen ditu janariok, zeiniek antolatzen du bazkari ori, maira zeiniek serbitzen ote du?

—Apaizak

—Eta janari ori zer ote da, ba?

—Kristo gure Janaren Gorputz-Odol bikainak...

Oi, ene Jainkoa! ene Jainkoa! Zeinbateraino maite izan gaituzun!...

Gogora zazute, apaizaren eskubidea zein aundia dan. Apaizaren mingaiñak ogi-pusketa Jainko biurtzen baitu! Mundua kreatzea baiño lan aundiagoa da ori. Norbaitek onela zion alako batean: *"Beraz, Santa Filomenak ere Ars-ko Erretoreari obeditzen ote dio?"* Ezta ori batere arritzekoa, Jainkoak berak ere obeditzen dio-ta.

Apaiz batekin eta aingeru batekin alkar topo egingo banu, aurrena apaizari egingo nioke diosala, eta gero aingeruari. Aingerua Jainkoaren adiskide baita; apaiza, berriz, Beronen orde zegoana. Santa Teresak mun egiten zion, apaiz bat igarotako lur-bazterrari...

Apaiz bat ikustean, auxe esan bear zenuke: "*Orra or Jainkoaren seme biurtu nauena, eta bataio santuaz zerua zabaldu didana, nik pekatu egindakoa berriro garbitzen nauena, nere animari jaten ematen diona...*".

Kanpantorre bat ikustean, esan bear zenuke: "*Zer ote dago an*"?


—*Kristoren Gorputza.*

—*Nola edo zergatik ote dago?*

—*Apaiz bat andik igaro dalako, eta bertan meza santua eman dualako.*

Pozaren pozaz zeuden Apostoluak Kristoren piztuera-ekero, ainbeste maite izandako Maisua berriz ikusten zutelata! Apaiza ere alatsu bear da poztu, eskutartean daukan Gurre Jauna ikusita... Loretoko katillu artan, Ama Birgiña ta Jesus Aurraren katilluan egon diran gauzak, estimazio aunditan izaten ditugu. Eta apaizaren beatzak ez ote dira, ba, estimagarriago, Jesukristoren Aragi adoragarria, eta bere Odola egon dan kaliza ikutzen baitute...?

Apaizak gauza bat adierazten digu: Jesusen Biotzak digun maitasuna. Apaiza ikustean, gogora zazu Jesukristo gurre Jauna.



XXVII

MEZA SANTUAZ

Egite on guztiak elkar jota, Meza Santuaren balio ez-tute berdintzen, aek gizonen lana baitira; Meza, aldiz, Jainkoaren lana baita. Martirioa bera ere ezta deus, Meza Santuaren ondoan. Izan ere, zer da martirioa? Gizonak Jainkoari egiten dion bere bizitzaren eskeintza. Meza, berriz, Jainkoak gizonari bere Gorputz ta Odolaz egindako eskeintza edo opari santua.

Apaiza baiño arrigarriago, ta bikaiñagorik! Apaiza bera, bere aunditasun orren jakiñean balego, il egingo litzake... Jainkoa aren esanera dago: itz bi esan utsarekin, Gure Jauna zerutik jetxi, eta hostia txiki batean sarturik gelditzen da. Jainkoak aldarean tinkatzen ditu bere begiak. "*Orra or —esaten du— ene Seme maite-maitea, Orrengan ditut Nik nere atsegin guztiak*".

Opari onen irabazien aldera, ezin Ark gauzarik ukatu. Fedea ba-genu, ikusiko genuke Jainkoa apaizagan estalita; argia, naiz ta kristal baten giblean egon, aldean beste ikusten dan bezela; edo ardoa, naiz ta urarekin naste egon, nabari dan antzera. Konsagrazioan, Kristo gure Jaunaren Gorputz adoragarria eskuetan dedala, nere biotz-erori-aldietan, nere burua galdutzat jotzen dedanean, auxe esaten diot ene

(*) *Esprit.*, p. 118.

buru oni: *"Nerekin eraman albaneza, bederen! Inpernua gozo izango litzake Aren ondoan. Elkarrekin egon ezkeru, eznuke erabe izango, betikotasun guzitian miñetan izanda ere... Baiña orduan ez legoke geiago inpernurik. Maitasunaren garrak itzali egingo lukete justiziak piztutako su ori"*.

Zoragarriagorik! Sagara-ondoa, Jainko ona aurkitzen da an, zeruan aurkitzen dan bezelaxe...! Gizonak misterio auongi ezagutuko balu, maitasunez il egingo litzake. Gure auleriari begiratzu, Jainkoak eztiki gobernatzen gaitu.

Apaiz bat, meza-erdiko itzak esanda, zalantzan jarri zan. Itz gutxi aek, gure Jauna aldare-gaiñera jetxi-arazteko indarririk ote zezaketen, ez-siñistu bai-siñistu zegoan. Orduan berean ikusi zuen hostia gorri-gorri eta korporalak odolez bustiak.

lñork esango baligu: *"Onako ordu jakin batean ildako bat berriz piztuko da"*, aguro bai joango giñakela ikustera! Eta konsagrazioa, ogi-ardoak Jainko baten Gorputz-Odol biurtzea, ez ote da, ba, ildako baten piztuera baiño mirari aundia goa?


Meza ondo entzuteko, prestaera bezela ordu-laurden bat gutxienez bear genuke eman. Bear genuke Jainkoaren aitzinean gure burua apaldu ta ezereztatu, Berau Aldareko Sakramentuan ezereztatu dan bezela, eta kontzienziako gure esamíña egin. Izan ere, meza bide dan bezela entzuteko, grazizko izaeran bear baita egon.

Mezako Opari Santuaren balioa bagenek, edo obeki esateko, fedea bagenu, irrikitzen egongo giñake mezatara joateko.

Ene semeak, gogoan izango dezue, nonbait, beñiola kontatu dizutedan arako gertaera ura, bere adiskidearen alde erregetzen ari zan apaizarena, alegia. Itxuraz, Jainkoak adieraztera eman zion adiskide ori Purgatorioan zegola. Beraz, meza santua aren alde eskeintzeko asmoa artu zuen. Sagara-koan, hostia beatz-artean artu, eta esan zuen: *"Aita santu eta betiko ori, truke egin dezagun. Zuk nere adiskidearen ani-*

ma daukazu Garbitokian katibu. Nik, berriz, zure Semearen Gorputza daukat emen nere mende, esku-tartean. Beraz, libra zazu nere adiskide ori, eta nik zure Semea eskeintzen dizut, bere Eriotz eta Pasioko irabazi guztiekin". Eta ordu berean, hostia santua goratzean, ikusi zuen bere lagunaren anima, goi-argiz eta gloriatz jantzirik, zerura igozten zala.

Beraz, Jainkoagandik zerbait tortu nai degunean, egin dezagun guk ere bes ainbeste. Jaunartutakoan, eskeñi dezaio-gun Jainkoari maite-maite duen Seme ori, beronen Eriotz eta Pasioko irabazi ta guzti. Ezingo digu gauzarik ukatu.



XXVIII

Aldareko Sakramentu Santuaz

Sakramentu onetan Gure Jauna aurkitzen da gorderik. Gure begira dago: bera ikustera, berari eskabideak egitera, noiz etorriko gatzazkion, itxaroten dago. Ikusi norainokoa dan Aren ontasuna! Gure izate argalari kasu egiten dio... Zeruan —an garailari ta glorifikaturik egongo baitgera—, bere aintza oso betearekin ikusiko degu. Orain, ordea, aintza orrekin gure begitan azalduko balitz, ez genuke biotzik izango berari urbiltzeko; baiña bere burua gorde ta estali egiten du, espetxean dagon laguna antzo, eta esaten digu: *“Zuek eznazute ikusten, baiña eztio ajolik! Eskatu zaidazute nai-ala, eta emango dizutet”*.

An dago, maitasun-Sakramentu onetan, antsiz, bere burua pekatariokgatik etengabe eskeintzen, eta bitarteko jaritzen duela. Nork esan zeinbat laido eta irain ikusteko arriskuan jarri dan Jesus, gure artean gelditzearekin? Gu konsolatzeagatik dago emen. Beraz, guk ere, Ura maiz ikustera, joan bear genuke. Zein gogoko zaion, gure egikizunei isillean ostutako ordu-laurdentxo, ezgauza batzuei kendutako une txikia, alegia, baldin une ori bere ondoan egoteko, otoitz egiteko, eta artzen dituen naigabe guztietatik konsolatzeko enpleatzen baldin bada!

(*) Esprit., p. 123.

Anima garbiei irribarre gozo-eztia egiten die Jesusek, aien poza ta gogo beroa ikustean... Anima oik, Jaunak ain gogoko duen bakuntasun orrezaz etortzen dira, pekatarien alde barkazio-eske, ainbeste esker txarrekoen iraiñak ordaintzera.

Au zoriona, Jainkoaren aurrean nabaritzen dana! Aren oiñetan Sagrario-aurrean bakar-bakarrik gaudenean...! *"Tira, ene anima ori, berretu zure adorea, azkartu zure biotzeko garra! Bakarrean aurkitzean zera, eztago emen beste iñor, zure Jainkoa gurtu eta adoratzeko; aren begiak zugan ipiñita daude..."*. Salbatzaillea gure billa dabilkigu nonai eta beti. Jakiña, gurekiko maitasunak gaiñez eragiten dio-ta... Ois, ene semeak, gabaz esnätzen zeratenean, espiritualki joan zaitezte azkar Sagrario-ondora, eta esan Gure Jaunari: *"Emen nadukazu, esker onak zuri ematera, zu maitatzera, aingeruekin batean zuri lagun egitera..."* Esan, dakizkizun otoitzak, eta otoitzok esateko gauza ezpazera, gorde zaitez zure aingeru onaren ondoan, eta agindu zaiozu beroni, zure ordeztu otoitz egiteko...

Ene semeak, elizan sartzen zeratenean, eta ur bedeinkatua artzen dezuenean, eskua bekokira *Aitare*n egiteko eramatean, zuzendu zuen begiak Sagrario-alderontz: ordu berean, Jesukristo Gure Jaunak atea erdi-irikitzen baitu, zuek bedeinkatzeko.

Oi, aingeruen begiak bagenitu, Jesukristo Gure Jauna emen aldarean ziñez eta egiaz dagoela ikustean, eta guri begira-begira daukagula jakitean, nolako maitasunaz maite izango genuken! Arengandik ez genuke geiago alde-egin nai, aren oiñetan betiere egotea izango litzake gure ametsa. Zerua aldez-aurretik dastatzea liteke ori. Emengo izan guztiak, berriz, gezak biurtuko litzazkiguke. Baiña, damurik, fedea degu eskas...! Itsu errukarriak gera gu; laiñoa degu begietan.

Fedeak soilki aiza dezake laiño ori. Emendik laister, eukiko det Gure Jauna nere eskuetan; orduan, bada, Jainko onak bedeinkatzen zaituztenean, eskatu zaiozute, arren, zuen biotzetako begiak zabal ditzada. Esan berari Jeriko-ko itsu-

aren arabera: "*Jauna, egizu nik ikusi dezadan*"! Ziñez ta biotzetik ori esan ezkeru, ezta dudarik, uts-egin gabe iortuko dezue argi ori, gure zoriona baizik ezpaitu Ark nai.

Bere eskuak graziz bete-beteak dauzka, grazi oiek nori emango galdezka dago, eta auxe tamala!, grazi oiek iñork nai ez... Au oztasuna! au eskerbeltza...! Ene semeak, doakabeak gera gu benetan, gauza oik ezpaititugu ulertzen! Egunen batean ulertuko ditugu bai ondo, baiña sasoi izango ez-tanean...!

Gure Jauna eskeingai bezela dago an. Begira, ona emen Jainkoak txit gogoko duen otoitz-mota bat. Eskatu Ama Birgiñari, bere Seme jainkozkoa, dana odoldua, dana urratua, Aita Betikoari pekatarien konbersiorako eskeiñi dezala: auxe da egin ditekera otoitzik onena; otoitz guztiak, izan ere, Jesukristoren izenean, eta beronen irabazien indarrez, egiten baitira... Entzun ondo, ene semeak: nik grazi bat eskuratu dedan guztietan, gisa orretara eskatu det; bide onek ezti bein ere utsegin.

Jaunartzero etortzen zeraten guztietan, asmo bat, intenzio jakin bat izan zazute, eta, Gure Jaunaren Gorputza artzerakoan, auxe esan: "*Zeruetan zauden, ene Aita on ori! Orain momentu onetan eskeintzen dizut zure Seme maitea, lotua gurutzetik jexia, Ama Birgiñaren besoen artean jarria, eta beronen bidez gure alde eskeiñia izan zan bezelaxe. Bere Gorputz santua eskeintzen dizut, eta bere Amaren ederragatik, nere pekatuen barkazioa eskatzen dizut, Jaunartzen on bat egitea merezi dezadan, eta grazi au edo ori eskura dezadan, konparaziora, fede, karidate, umiltasuna...*".

Baita indulgentzi edo barkamen oien aldera ere, Jainkoari eskerronak erakutsi bearrean aurkitzen gera, pekatuetatik garbitu egiten gaituzte-ta. Guk, ordea, oiezaz ajolik ez Uzta-denporan nola ibiltzen geran espalez espal? Ba alatsu ibiltzen gera gu indulgentzi oien gaiñean. Adibidez: zazpi urte ta zazpi garizuma kristau dotriña entzutearren, irureun egun, Ama Birgiñaren letaniak edo-ta *Salve Regina* naiz An-

gelus-a erreztatzeagatik (1). Labur: mesedek mesedeen gain egiten dizkigu Jainko onak. Bizitz onen azkenera eltzean, bai izango gerala damu ta garbai, ondasun onezaz baliatu ez giñalako!

Aldareko Sakramentu Santuaren aurrean gaudela, ez gaitetzen alboetara begira ari: begiak itxi, eta biotza zabal dezagun; Jainko onak ere berea zabaliko du. Gu beragana, Bera gugana etorriko zaigu, bata eskatzeko, bestea emateko: bion artean arnas bakarra osatuko balitz bezela. Norbere burua aaztu, eta Jainkoaren billa ibiltzeak nolako gozotasuna dakarren!

Ba-zekian gozo onen berri, auzo onetako gizon batek: Entzun au arretaz, ene semeak, ni Ars-era etorri-berri nintzala berton gertatua da-ta. Ba-zan emen gizon bat, beinere eliz-aurretik igarotzen etzana, barrura sartu gabe. Goizean lanerakoan, arratsaldean etxerakoan, pala ta aitzurra atean utzi, eta luzaroan egoten zan Gure Jaunaren aurrean, adoraziotan. Oi! nik bai nuela poz, ori ikustean...! Galdetu nion bein, ea zer esaten zion Gure Jaunari bere ikustaldi luze aietan. Eta baaldakizute zer erantzun zidan berak? "*Erretore Jauna, nik eztiot ezertxo ere esaten. Ni begira nagokio, eta Bera ere begira dagokit...*". (Emen malkoek eragozten zioten itza Do-trinista Santuari). (Gero jarraitzen zuan:) "*Au bai eder, ene semeak, au bai eder!!!*"

Santuek beren ardura ta yoran guztiak ipintzen zituzten Jainkoagan, eta Jainkoaz landara, etzuten beste ezer ikusi nai; Arentzat izan ezik, etzuten lanik egin nai. Mundu ontako izaki guziezaz aaztuta bizi ziran; Jainkoaz kanpo, etzuten beste ezer euki nai. Ain zuzen ere, orra zerura joateko bidea.

(1) Ikus 34 gn. orrialdeko oarra.

XXIX

J A U N A R T Z E A Z

Jesukristoren itzak dira: “*Nere izenean eskatzen dezuten guztia emango dizute ene Aitak*”. Nori, ordea, gogoak eman, Jainkoari bere Semea eskatzea? Baiño gizonak ezin asma zezakena, Jainkoak egin izan du. Gizonak ezin asma zezakeana, eta opa izatera ere ausartuko ezlitzakena, Jainkoak, bere maitasunean, esan, asmatu eta zertu egin du. Ausartuko al giñake, iñola ere, Jainkoari esatera, bere Semea gugatik gal zezala, edo-ta bere aragia janaritzat, ta bere odola edaritzat eman zezagula? Ori danori egia ezpalitz, nola gizonak asmatu, Jainkoak berak ezin egin ditzaken gauzak dirudite-ta? Maitasunaren asmaketa oitan gizona Jainkoari gailenduko otezaio...? Ez, ori ezta posible.

Eukaristia gabe, mundu onetan ezlegoke zorionik, bizitza au ez litzake eramangarri. Komunio santua artzen degunean, gure poza ta zoriona artzen degu.

Jainko onak, bere burua guri eman nairik, Berberak bakar-bakarrrik ase dezaken egarri bizia, yoran edatua ipiñi du gure biotzean... Ibai baten ondoan egon, ta alare egarriak ilda bizi: orretxen irudiko gera gu, Sakramentu eder onen ondoan bizi geranok. Egarri ori iltzeko, burua makurtze utsa

(*) Esprit., p. 131.

litzake asko, baiña...! Edo-ta ondasuntegi baten ondoan egon, eta pobre izan. Eskua luza, beste zeregiñik etzan bear...!

Jaunartzen duena, Jainkoagan murgiltzen eta galtzen da, ur-tantoa itxasoan galtzen dan bezelaxe. Bata besteagandik ezin geiago berezi. Gogoeta egiten jarriko bagiña, ba degu emen non galdu, maitasun-osin onetan...!

Mundu onetan Jauna bear dan bezelako prestaeraz artu zuten guztiak, juizioko egunean Jaun orren aragia erakutsiko dute beren gorputz glorifikatueta: tupikian urrearen dirdira, eta berunean zillarrarena agiri dan bezela.

Jaunartzetik gatozenean, inork esango baligu: "*Zer daramazute*"?, auxe erantzun genezake: "*Zerua daramat*". Santu batek ara zer zion: *Jainkodun* giñala. Ala da, izan ere; guk, orde, bear dan aiñako federik izan ez... Eztakigu gure bikaintasunaren berri. Mai santutik alde egiterakoan, Errege Maguak baiño zorionsuago gera gu, auek ezpaitzuten Jesus Aurra berekin ekartzeko eskubide izan.

* * *

Ar zazu ontzi bat, ardo gozoz bete zazu, eta estali gero ondo: ardo orrek nai dezun arte iraungo dizu. Era berean, Komunio ondoren gure Jauna biotz bildu batekin gorde badezazu, luzaroan nabari izango dezu zugar alako su gartsu eta azkarra, zure biotzean onerako makurtasuna eta gaitzerako iguiña sor-araziko duen su bortitza, alegia.

Jainko ona biotzean degun bitartean, biotz ori gori-gori egon bear, nai-ta-naiez. Emaus-ko ikasle aien biotza ere sutan jarri baitzan, Jesus entzute utsarekin.

Etzait ondo iduritzen batzuk egiten dutena: mai santutik etorri, ta bertatik irakurtzen astea. Ez. Izan ere, Jainkoa mintzo zaizunean, zertarako dezu gizonen itza...? Orduan ikusgura batek egingo lukena bear da egin, ate-ostean belarri-erne zelatan dagonak egiten duena: gure biotzeko atean Jainko onak esaten digun itza, arretarekin entzun, Berak digun guztia kontu aundiarekin jaso.

Jaunartutakoan sentitzen dezu zure anima garbitua, Jainkoaren maitasun-ugiñetan murgildua ta ase.

Komunio Santua artzen danean, gure ezur-mamitan nabaitzen da oi-ez bezelako zerbait, ondo-izate bere moduko bat; gorputz guztian zear edatu, eta bazterretaraiño zabaltzen dan zorion zirrara bat. Ondo-izate ori zer dala uste dezute? Ain zuzen, gure Jaunak egiten du ori: gorputz-zati guztietaraiño iritxiz, zirrara gozoz astintzen eta inarrostean ditu zatiok. San Juan-ek ziona, guk ere aitortu bear orduan: "*Jauna duk*"!

Ezertxo ere nabaritzen ez dutenak, oiek bai dirala errukarri!



XXX

SARRI JAUNARTZEAZ

Ene semeak, munduan diran izaki denak, bizi al izateko, janari baten premian daude: ain zuzen ere, Jainkoak orretarakoxe sor-arazten ditu zuaitz-landareak. Orra mai bat ongi ornitua, eta jan-gauzez ongi betea. Abereak mai ortara urbiltzen dira, eta bakoitzak berari dagokian jana jasotzen du.

Animak ere ba-du,ordea, janari baten premia ta bearra. janari ori, ordea, non aurkitu? Ene semeak, Jainkoak gure animarentzat jaki bat billatzea erabaki zuanean —bizitz ontako aldian euskarri ta indargarri izan dakigun janaria, alegia—, lurbira oso-zabalari begiratu zion, ta etzuen inon ere izaki egokirik aurkitu. Orduan, bere barrunbean sarturik, bere burua ematea erabaki zuen...

Oi, ene anima ori, noraiñokoa dan zure bikaintasuna! Jainkoaz kanpo, ezpaitago zu asetzeko gai denik...! Jainko baten Gorputz-Odolak dira animaren jakia! Janari zoragarriagorik! Jainkoaz landara, animak ezin du beste janaririk izan! Jainkoa kenduezkero, gaiñontzeko gauzakin eztu ark betetasunik! Jainkoak bakar-bakarrik ase ta bete dezake gure anima! Jainkoaz lekora, aren gosea ezin beste inork itzali! Bear-bearrekoa du ark Jainkoa...!

Doatsu bai dirala, Komunio Santuan gure Jaunarekin al-kartzen diran anima garbiak! Zeruan, diamante ederrak antzo, egingo dute ñir-ñir, berauegan Jainkoa ikusiko baita.

Etxe danetan izan oi da toki bat, etxeko jakiak gordetzeko. Eliza animen etxea degu: kristau geranok gure-gurea degu etxe ori. Etxe onetan, bada, toki berezi bat dago jakiak gordetzeko. Sagrarioa, ez al dezu ikusten? Kristauen animei norbaitek galde balezakie: "*Zer ote da ori?*", zuen animak auxe erantzungo luke: "*Gure jana gordetzeko tokia...*".

Eztago Eukaristia bezin gauza aundirik! Jarri itzazute egite on guztiak komunio on baten aldera: auts-pikorra mendi baten ondoan jartzea bezela litzake. Jainkoa zuen biotzetan aurkitzen dan garai artan, egin erreguka gogotik. Jainko onak ezin izango dizute gauzarik ukatu, baldin bere Semea, eta onen Eriotz eta Nekaldiko irabaziak eskeintzen badizkiozute.

Ene semeak, komunio santuaren balioa bagenek, utsegitte ariñenak ere ebitatuko genituzke, Jauna maizago artzearren. Gure anima etengabe gordeko genuke garbi Jainkoaren begitan. Ots, ene semeak, emagun gaur konfesatu zeratela: beraz, erne zaudete; biar Jainko ona zuen biotzetara etortzeko da, eta gogorapen onek pozkidaz betetzen zaituzte... Biar ere ezin izango dezue Jainkoa ofenditu. Ez, ba: zuen anima Jaunaren Odol bikain jainkozkoaz gantzuturik bezela egongo da-ta... Au bizikza zoragarria!!!

* * *

Gure Jauna usu eta bide dan bezela artu izan duen anima, ura bai izango dala eder beste munduan! Jaunaren Gorputza nabariko zaio gorputzean-zeur, baita aren Odol adoragarria ere bere odolean. Gure anima ta Jaunarena bat egingo baitira beti-betiko... Au bai izango dala zorion oso, garbi ta bete-betea...! Jauna artutako animak, zerura sartzen danean, zeruko poza geitu ta berretu egiten du. Aingeruak eta aingeruen Erregina ere etortzen zaizkio, anima onengan Jainkoaren Semea ikusten baitute. Orduntxe izango du alakoak, bizitza onetan ikusitako neke-samiñ-atsekabe danen ordain saria.

Ene semeak, samur izan oi da, anima batek aldareko Sakramentua bear dan bezela artu duan ala ez jakitea. Osotero maitasunean sartua eta murgildua agiri bada, guztiz aldatua, bere egite ta itzetan lengoa eztala ematen ba du: orra señailea... Apala izan oi da anima ori, biotz gozoa, penitentzizko gauza latzetara emana, lagun urkoari on egitera makurtua, sotil-eradun, mundu guztiarekin etorkor. Anima ori eraman-kizun ta lanbide aundienetarako gai da; labur, etzaio lengo antzik artzen.

Zoazte, beraz, jaunartzera, ene semeak, zoazte Jesusgana maitasunaz eta konfiantza osoaz! Zoazte Arengandik biziartzera Ark bizia eman dezaizuten! Ez esan zeregin geiegi daukazutenik. Ez al du gure Salbatzailleak esan: "*Zatozte Nigana arikaturik eta zama jasan eziñik zeraten oro. Zatozte Nigana eta Neronek arinduko zaituztel*"? Izango al zenukete aurpegi, dei samur eta maitetsu oni ezezkoa emateko?

Ez esan, etzeratela duin. Egia da ori, etzerate duin, baiña Aren premian zaudete. Jaunak gure duintasunari begiratu-ko baldin bazion, Sakramentu eder au etzuen sekula ere sortuko; ezpaitago munduan, Sakramentu onen duin izan ditekunik: ez santu, ez aingeru, ez goi-aingeruak, ezta Birgiña Donea bera ere..., baiña gure premia izan du Jaunak begien aurrean, eta Sakramentu onen bearrean dan-danok gaude.

Ez esan pekatari zeratenik, griña txar geiegiren menpean zaudetenik, eta orregatik eztezuela urbiltzeko ausartziarik. Entzun nai zinduzketet nik, gaitzak geiegi iota zaudetela-ta, sendagarririk eztezuela artu nai, medikuari eztiozuetela-ots egin nai...

* * *

Mezako otoitz danak Komuniorako prestaera bat dira; eta kristau bizitza osoak ere, zeregin aundi onetarako prestaera bat bear luke izan.

Saiatu gaitezen gure Jauna egunoro artzen merezitzeko. Gorritu bear ginduzke oso, gure albokoak mai santura urbiltzen dirala ikusteak, gu gere tokian zirkiñik egin gabe geratzen

geran bitartean! Zeiñen zoriontsu dan Aingeru Zaindaria, anima garbi eder bati mai santura joaten laguntzen dionean! Elizaren asieran egunean-egunean jaunartu oi zuten kristauak. Gero, berri, kristauak zabartu ziranean, ogi bedeinkatua sartu zan, gure Jaunaren Gorputzaren orde. Aldiz pozkarri da, eta aldiz lotsagarri... izan, egizko ogi bedeinkatua baita, gure Jaunaren Gorputz eta Odola, orde, ezta!

Ba-dira egunoro-egunoro gogozko Jaunartzea edo Komunio espirituala ogi bedeinkatuaz egiten dutenak. Sakramentua artzeko ezinduta aurkitzen bagera, egin dezagun guk ere komunio espiritual ori. Au noiznai ta zeinbat-gura aldiz egin diteke. Eta on litzake etengabe egin baledi, Jainko ona errezibitzeko gose-egarri jarraituan bizitzen galararik.

Itzaltzen asitako, baiño alare txingar ugaria duan suari, auspo-eragite batek egin oi diona, orixe berbera egiten dio jaunartzeak animari: putz ematen diozu, eta orra sutegia berpiztua. Sakramentuen urrengo, Jainkoaren maitasuna moteltzera asi dedinean, aguro komunio espirituala...! Elizara etortzerik ezbalidin badegu, jarri gaitezen Sagrarioari buruz. Eztago ormarik, Jainkoa eragotzi dezakenik. Komunio espirituala egiteko, esan bost Aitagure eta bost Agur-Mari...

Egunean bein baizik ezin da gure Jauna artu; anima garbtsuek, orde, une guztietan artzeko yoran biziarekin erremediatzen dute eskasia ori.

* * *

Gizaseme, zu bai zerala aundi...! Jainkoaren Gorputz-Odolak zure jan-edaritzat baitituzu! Au bizitzaren gozoa, Jainko onari elkarturik bizi izatea! Lur gainean Paradisua: eztago geiago atsekaberik, ez gurutzerik! Gure Jauna artutakoan, or, biotz-barrenean, alako pozkida bat, ukendu leun baten artzeko zerbait nabari dezu...! Anima garbiak alakoxeak izan oi dira beti, Jainkoarekin duten artu-emanak baitie indar eta zoriona.

Ene semeak, il-zorian komunio artzen dutenak, benetan dira zorioneko! Il eta bertatik egin oi dan juizioan, Jainko Aitak bere Semea ikusten du oien animetan; ezin ditu, beraz, inpernura galdu. Ez orixe...! Atera zazute ortik zer mesede dakarken elizakoak artzeak.



XXXI

GURE JAUN ALDAREKOARI IKUS- TALDIAK BEAR ZAIZKIOLA EGIN

Jaun aldarekoa gure zai dago, bera ikustera, eta bera-ri eskabideak egitera, noiz joango gatzazkion begira. Ikusi norainokoa dan aren ontasuna! Gure argaltasunak eskatzen duana, egin oi du: zeruan, an glori-az eta argi zoragarri-az jan-tzirik izango geralako, bera ere dirdira bete-bete-az azalduko zaigu. Emen, ordea, dirdira orrekin ager baledi, ez giñake au-sartuko berari urbiltzera; orregatik, bere burua estaldu eta gordetzen du, kartzelan sarturik dagonaren antzera, eta esan oi du: "Ez nazute ikusten, baiña eztio ajolik! Eskatu zadazute nai deuen guztia, Nik emango dizute".

An daukagu bera, maitasun-sakramentu onetan, alegia, etengabeko erreguak eta intziriak Aitari pekatarien alde egi-ten dizkiola. Gure artean geldituaz, amaika irain, laido ta lotsagabekeri ikusteko ta igarotzeko arriskuan ipiñi nai izan zun Jesus onak bere burua! Gu poztu, biotz-altxatu ta kon-solatzeko dago an. Geroztik, Ura maiz bisitatu bearrean aur-kitzen gera gu ere.

Zein gogoko zaion gure zeregin edo ezgauza ba-tzuei ostutzen diegun ordu-laurdentxoak! Bere ondora joan,

(*) Catéchismes, p. 65.

berari erregu egin, eta artzen dituan naigabe guztien ordai-
ñez, Jesusi poz emateko enpleatzen degun tartetxoa! Anima
garbiak bizkor ta leiatsu datozela ikustean, irribarre gozoz
begiratzen die Jesusek... Ura zoriona Sagrarioaren oiñetan
sentitzen dana, bakarrean, isillik egonaz! "*Tira, ene anima ori,
azkartu zazu zure garra! Zure Jainkoa adoratzeko, bakar-ba-
karrik aurkitzen zera; aren begiak zugana dira zuzenduak*"!

* * *

*Aldareko Sakramentu Santuaren aitzinean gaudela, ba-
tera ta bestera begiratzen ibilli bearrean, begi-ezpañak itxi,
eta zabal dezagun biotza: Jainkoak ere berea zabaliko du. Gu
joango egingo gatzazkio, eta Ura etorri egingo zaigu, gu es-
katzeko, Ura emateko; batengandik besteagana dijoan arna-
sa antzo. Nolako gozotasunak izango ditugun, Jainkoa billa-
tzearren gure burua aaztu badezagu! Santuak kezkatu ibiltzen
ziran, Jainkoaz kanpo beste ezer ez jakitearren, Beragatik
izan ezik lan ez egitearren; mundu ontako zer guziak aaztu
egin oi zituten, Jainkoa besterik ez izateagatik. Ziñez, auxe
baita zeruratzeko bidea.*

Itzjario ugariago, otoitza ederrago: orra emakume batzuen
uste okerra. Errosarioa esaten asi diraneko, or ikusiko dituzu
azkena aurki ote datorren begira: ez, ene semeak, otoitza ezta
ala egin bear! Ondo erregutzeko, eztago orrenbeste itzen bea-
rrik.

Jainko ona an, Sagrarioan, dagoela dakigun ezkerro, zabal
dezaiogun nork bere biotza, poztu gaitezen bere aurrean egon
utsarekin: orra otoitzik onena. Bada kristau onik, bizitz osoa ala
emango lukenik, Jainko onaren aurrean murgil eginda. Ala-
koak bai dirala zorioneko! Otoitzean aritzeko astia ba-nu...

Aste Santurako

Aste au Aste Santu degu, Jainkoak bere mesedeak ibaika
zabaltzen dituan sasoia; pekatarien itxaropen-garaia. Zer ote

genun gizona, gure Jauna beronengatik il baiño leen? Ondo beltza zan gizonaren etorkizuna: eternitate osoan Jainkoa-gandik urruti egon-bearra. Onako oiu au egin zezakean gai-xoak: "*Bederen, ezerezean utzi baninduzu!*". Jainkoa ezagun, ta alare Arengandik urruti bizi bear, au patu gaiztoa! Baiña, orra, Jesus dator, bere Odol ta bizitza mundua erosteko ematera, inpernua itxi, ta zerua zabaltzera. Noraiño maite izan gaitun! Iltzea zor etzunak, beñiolako oiñaze gorri-latzak eta eriotza artu nai izan ditu gu salbatzearren!

Baiña aren maitasuna etzan orrenbestekin ase: gugandik alde egiteak min ematen zion. Zerua ots-egiten ziolarik, bere eriotz-aurregunez Eukaristi adoragarria sortu zigun, maite-Sakramentu ori, alegia. Zerura dijoa, bai; baiña era berean gurekin gelditzen da, ez gu konsolatzegatik bakarrik, bere burua guri ematearren ere bai. Labur, Ark eta guk bat baizik egin ez dezagun. Oi Jesus, noraiño maite izan gaituzun!

Aste au, bada, igaro dezagun txit santuki, anaiak. Ostegun ta Ostiralez or izango dezue Jesus, aldare-gaiñean agirian emana: zatozte adoratzera, negar egitera, bere oiñetan biotzetiko asbeherapenak eta zotiñak esatera. Ark, berriz, auxe esango dizue: "*Indazu zure biotza, ene seme orrek*". Oi, zabal zazute orduan zuen biotz oiek, luza, eda itzazute, aren maitasunari maitasunaz erantzuten diozutelarik.

Egun oro daukazute bertan, Sagrarioan gorderik; zatozte, bada, neke ta oiñazeetan ari lagun egitera. Eta lur onetan negar-malkoak ixuri zituten oiek, gero zeruan poztuko dira. Aste au Jesusekin tristuran igarotzen baldin badezue, gero Pazko-egunez, Berarekin poztuko zerate. Pekatari errukarriok, aldiz, egun auek atsegiñetan edo lur-arazoetan, Pazko-aldiko Jaunartzea egin gabe, igaro ditutenak, Pazko-egun zoragarri ori el dediñean goibel, illun eta gozorik gabe aurkituko dira.

Entzun, anaiak: egun santu auetan baztertu pitin bat lurreko lanok. Zatozte gure Jaunaren oiñetara, berari eskerrak ematera, zuen maitasuna adieraztera. Ainbesterañi maite izan gaitu-ta...!

Korpus Kristi-ondoko zortzi egunetan

Atzo igandez, makiña bat mesede artu izan ditugu, ene semeak, gure Jaunaren prozesioan, Jesus Sakramentaduak ainbeste aldiz bedeinkatzen giñun bitartean! Gure zoriona bai dala aundi, batez ere gure Jauna biotzean artu badegu! Ortaz gaiñera, aren bedeinkazioa egunean bi aldiz ematen zaigu aste onetan..

Egun aukerakoak benetan egun auk, mesede-mota guztiak Ari eskatzeko! Gure Jauna arkitzen da Sakramentu onetan, eta pekatariak bide onera ditezen erregutzea nai du. Jainkoa zein ona dan balekite gizonak, ezin izango lukete pekatu egin! Pekatari gaixoenganako errukia dariola daukagu Jainkoaren biotza. Ain ona da, izan ere!

* * *

Izan zan emen, parroki onetantxe, gizon bat: ba-da zenbait urte il zana. Goizean sartu zan gizon ori elizara, bere sorolanetara joan orduko, otoitz egitera. Eliz-atarian aitzurra laga, eta an murgildu zan gure Jaunaren aitzinean. Albokoak ondoko soroan egiten zun lan, eta laguna beti lanean ikustera oitura zegoanez, egun artan agiri etzala ta, arritu egin zan oso. Errira zanean, gogoak eman zion elizan sartzea, badaezpadan, an aurkitzen ote zan jakiteagatik. Ain zuzen, antxe zegoan gure gizona. Galdetzen dio: "*Zer egiten dek emen, ain luzaroan?*" Eta aren erantzuna: "*Jainkoa ta biok, elkarri begira gatxaudek*".

Ura Jainkoari begira zegoan, Jainkoa, berriz, berari. Orra ene semeak, labur esanda, Jainkoa bisitatzen degunean egin bear dana.

XXXII

BATAIO SANTUAZ

Bataio gabe ezin salbatu diteke inor.

Bataioko Sakramentua, beste Sakramentu guztiak bezela, Jesukristo gure Jaunak jarria da.

San Juanek nola Jesus bataiatu zuan? Ba orduantxe sortua degu Sakramentu ori. Jordan ibaiko uretan Jesusek oinak sartzean, lurreko ur denak santutu ziran. Juanek etzuan bere burua duin aurkitzen, Jesus bataiatzeko, eta ala esan zion: "*Ne-ronek bear nuke zure eskuz bataiatua izan*". Jesusek erantzuten dio: "*Ez al dakizu ene Aitaren borondatea bete bear degula*"? Eta Juanek, orduan, burua makurturik, lotsaturik, Kristo gure Jauna bataiatu zuan, eta Espiritu Santuak San Juan argitu zuen.

Kristoren bataioa-ezkero dakigu Trinitate Santuko iru personen berri.

San Juanek Jainkoaren Semea bataiatu zuan; eta Kristo gure Jaunak berberak bataiatu zitun Ama Birgiña eta baita Apostoluen buru San Pedro ere.

Kristo gure Jaunak etzuan bataiatua izateko premiarik.

Ama Birgiñak ere ez, jatorrizko pekatuaren zikiña ezpai-

(*) Catéchismes, p. 43.

tzuen ezagutu; ala ere, Jesukristok bataiatu nai izan zuan Ama, bere Nekaldi ta eriotzako irabazietan parte izan zezan.

* * *

Amek bear dituzte kontu aundiak artu, eta alegin guztiak ipiñi, beren umeak bataio gabe il ez ditezten.

Ba-dira ama batzuk ain biurri ta buru gabeak! Izugarritzko aserre gorritan sartzen dira, zama astun-larriak bizkarrera-tzen dituzte, edo-ta besoak aidean jaso oi dituzte, gauzaren bat arrapatzeko: errudun dira auek, beren erruz ume bat uzten baitute betikotasun guztian Jainkoa ikusi gabe.

Eta gizon batzuk ba-dira basatiagoak...! Beren emazteak belar edo lasto-gurdien gaiñera igo-arazi, batere -errukirik gabe tratatu, eta sorta ikaragarriak bultzaka eramateko agintzen diete. Zuek badakizute, ala ibillita, umea mundura orduko iltzen dana. A! Makiña bat ume ikusiko da Juizioko egunean, zerua beren gurasoei zorrozkiro galde egingo dietenak, eta guztiz ere ama ajolakabeei, parre-algaraz dabiltzanei, eta aurra galdu dalako poztutzen diranei. Ura atseka-bea, umeak esango dietenean: "*Zuen erruz, Jainkoa ikusi gabe egon bear betiko*"! Ura samiña, ume oiek izango duten samiña: Jainkoa bein ere ofenditu ez, ta aren aurpegi ederra ikuzi gabe egon bear! Egia da, bai, inpernura dijoaztenen oiña-zeak ezditutela izaten, ezpaitute pekatu personalik egin; baiña Jainkoaren ikustea debekatzen zaie, eta ez al da ori oiña-zerik asko?

Ama jainkotiarrak kontuz ibiltzen dira, eta mezak ateratzen dituzte, umeak Bataioa artzera iritxi ditezten.

* * *

Iru bataio-mota dira: ur-Bataioa, Odol-Bataioa, nai-Bataioa. Ur-bataioa, Bataioko Sakramentuari esaten zaio; odol-bataioa, berriz, martirioa da; eta nai-bataioa, Jainkoaren mai-

tasun osoa, bete-betea. Maltasun onek, ordea, Sakramentua errezipitzeko asmoa ekarri bear du berekin.

* * *

Estualdietan (esateko, aurra il-zorian dagoenean), edozeinek bataiatu dezake. Baita protestanteek berek ere, edo jansenistek, bataia dezakete orduan, baldin Elizak agintzen duena egiteko asmoa badute.

Aita eta amak bataia dezakete beren umea, premia izan ezkerro; baiña ori egin badute, jakinarazi bear zaio gero apaizari, ala senidetasun berarizko bat artzen baitute arrarekiko.

* * *

Aurra ezta laga bear ogeita lau ordutik gora bataia-arazi gabe; bestela pekatu da. Eta bataiatzean, gauza bati bear zaio begia eduki: ba-dira persona batzuk, emagiti-egikizunak egitera ikasi gabe sartzen diranak, eta oiek, umea pizka bat arriskuan dala antzeman bezain laister, bataiatzera jartzen dira: gaizki dago ori. Eta gaiñera eztakite bataiatzen. Oietako batek esan zidan bein, bost aldiz bataiatu zuela aur bat. Nola bataiatu ordea? Itz soil auek esan omen zitun: "*Aurra, nik bataiatzen zaitut*"! Bataiatzeko, bear bearreko da Irutasun Santuko iru personen izenak aipatzea, eta onako au esatea: "*Aurra, nik bataiatzen zaitut, Aitareen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean*". eta itz oek esatearekin batean, ura isuri bear zaio burugaiñera.

Beste batzuk uste dute bi lagun bear dirala bataiatzeko: bat itzok esateko, eta beste bat ura botatzeko. Ez, eneak, lagun batek bear du danori egin.

Baiña aurren bat bataiatzea gerta bazaizute, apaizari bear diozue esan. Beñola ekarri zidaten aur bat bataiatzeko, eta etzidaten tutik esan. Nik bataiatu nuan, lendik bataiatua ezpailtzan. Lagun ark esaten dit gero:

—Neronek ere isuri nion ura burugaiñera.

—Eta zergaitik eztidazu ori esan?

—Ez nuen uste ta...

Kontu aundia euki bear da onetan; apaizak, ori jaki-nezkerok, umea "*Sub condicione*" bataiatzen baitu. Orrela Sakramentua ezta alperrik ematen. Apaizak esango du orduan: "*Aurra, bataiaturik ezpaldin bazaude, neronek bataiatzen zaitut*". Eta lendik bataiatua balego, oraingoa ur-ustutzea besterik ezlitzake.

Gaiñera, kontu euki bear da, urak aragia ikutu dezan. Aur batzuk, mundura etortzean, ille askodunak izaten dira; eta orduan urak gaiñetik irrist-egiten du, eta aur ori bataiatu gabe geldituko litzake. Urak bekokitik bera bear du jarion. Batzuetan, bataiatzen ari diranak, izutu egiten dira, zer egiten duten ere ezjakiteraino. Ori gerta baledi, on litzake bi lagun egotea: bata bataiatzen duenari begira egoteko, eta utsegiterik egin eztalako ziurtasuna izateko.

* * *

Badakizute, gaiñera, pekatu mortal larria egiten dala, aurrak norberarekin etzaraziaz, urtea bete dezaten orduko. Makiña bat ume ilda aurkitu izan dira, beren gurasoek itota! Beste askori, berriz, oetik jausi ta burua ala bernazurrak autsi zaizkie. Gurasoek, beren errua estaltzeko, esaten dute: "*Aurra il zait; makalik zegon da...*". Baiña edozeiñek daki, eztala iñor miñ artu gabe iltzen. Ona emen egi gordiña: ume ori berek itoa da...


Au tamala! Begira, ene semeak, Frantzisko Xabier Santuaren amak errukia izan ezpalu, ta bere aurra txiki-txikitan il izan balitz, zeinbat eta zeinbat anima, Jainko onari bein betiko ostuak? Aren semeak lurralde ta nazio osoak, Jainkoaganatu baizitun. Begira atzerrira joaten diran apaizak, Jainkoarentzat ainbeste anima irabazten dituten oiek: beren amek ajolik artu izan ezbalute, eta seme oiek il izan balira, zeinbat

eta zeinbat anima zeruratzeko! Beren gurasoen zabarkeriz ta erruz il izan diran ume oien artean, badirateke apaiz, praille ta monja izango lirakenak.

Baiña utzi ditzagun alde batera, nai dadezu, gurasoen erruz oean itotako umeen kontua: oiek zerura baitijoaz zuzen. Baiña jaio orduko iltzen diran ume errukarri oiek, Jainkoa bein ere ikusiko eztuten oiek!!!

Piztiak berak ere biotz samurrago dira, persona batzuk baiño. Begira! Bein katu bat ikusita nago bere kumeekin: bata bestearen ondoren eramaten zitudan, baiño poliki-poliki, goxo-goxo, aiek miñik artu ez zezaten. Eta aipatu dizutedan arako artz ura? Eiztariek aren kumeak arrapatu naiean zebiltzen. Ark, berriz, zer egiten du? Kumeak bere azpian ipiñi, balek miñik egin ez dezakieten. Naiago zuan ark tiroak artu bere kumeak artzea baiño.

A! Ama batzuk eztira gisa orretakoak; ezta urrik ere. Bein ama batek gorotz-artera jaurtiki zuan seia; beste batek, ibaira bota; beste batek ur-suillean ito zuan. Beste batek —oraindik ezta, asko, eta emendik urbil gertatu zan— bi neskato zitun: bata arrika il, eta kanpora egotzi zuan. Au biotz gogorra! Baditute ama oik piztietatik zer ikasi!



XXXIII

Konfirmazioko Sakramentuaz

Espiritu Santuari bear zaiola otoitz egin

Konfirmazioko Sakramentuak Espiritu Santua ematen digu. Ortaz gaiñera, Espiritu Santu onen doaiak ere ugari eman, eta kristau oso-osoak biurtzen gaitu.

Espiritu Santuari maiz bear zaio otoitz egin, onako gauza aukeratzeko eskatzen dizkiogula, alegia: maitasuna, fedea Bera ezagutzeko, eta indarra salbazioko etsaia menperatu eta samitiak eramateko.

Noizetik-noizera jaunartzeak bear dira egin Espiritu Santuaren omenez, baita bederatziurren eta limosnak ere. Pentekostes-aurreko bederatziurrenak mesede aundiak lortzen ditu.

Astelenak bi debozio ditu bere-bereak: Garbitokiko animena eta Espiritu Santuarena. Espiritu Santuari eskatu bear diogu gure egitate danetan gida ta argi gaitzala.

Espiritu Santuak anima bat berotzen duanean, anima orrek Jainkoa miazkatzen du, maitatzen du, eta neke-eramankizunak etzaizkio batere kostatzen. Anima garbi eta Espiritu Santudunak kementsu baitira.

(*) Catéchismes, p. 51.

Gure santutasun-lanean Espiritu Santuak duen tokia

Sakramentuek, Espiritu Santua gabe, ez lukete gu salbatzeko indarrrik izango. Kristo gure Jauna ilarren, ori ez-litzake aski izango, Espiritu Santua gu santifikatzera etorri ezpailtz, grazi-ugolde orrek gugan alea eman dezan etorri ezpailit. Egin dezagun kontu: ondasuntegi bat ematen dizue: baiña gero, ondasun oiek partitzeko, norbait bear... Aitak bere Semea eskeiñi digu; Semeak bere burua gugatik eman du, eta gorriak ikusi ditu; Espiritu Santua Ark irabazitako graziak guri zabaltzera etorri da.

Espiritu Santua gabe, dana da otz. Beraz, barruko sua galtzen asi dala oar bagindez, egin dezagun azkar bederatziturren bat Espiritu Santuari, fedea ta maitasuna eskatzeko. Ongi eskatu ezkerro, ez izan bildurrik, dudik gabe eman-go zaizue.

Begira, gogo-jardunak edo erromeri santu bat egin degunean, gurari ta naikunde onez gainezka egoten gera, otoitz egiteko ekarritasun bat, joera eta erraztasun bere moduko bat nabaritzen degu. Kristau gaiztoentzat, berriz, otoitzak beti izaten dira luze, ta erligioa gogaikarri: Espiritu Santurik gabe egoteak egiten du ori. Zuek, santu aundi izan ezta ere, nabaritzen dezue, alabaiña, sarri-askotan otoitzaren gozoa, eta Jainkoaren ondoan egotetik datorren zoriona. Espiritu Santua degunean, biotza zabal-zabal egiten da, zeruko maitasunean murgildurik bezela egon oi da; arraiak eztu erabe ur geiegi izatea.

Espiritu Santua eztuenak, iguiña ta nazka sentitzen du Jainkoaren itzarekiko, sorgor bailitzan gelditzen da, eta fedeko egietatik eztu tutik ere konprenditzen. Paduako Antonio Santua herejez jositako errian ari zan predikuak egiten; hereje aiek, ordea, Jainkoaren itza etzuten entzun nai, ta belarriak estaltzen zituten. Antonio Santuak, orduan itxas-bazterrrera eraman zitun, arraiei ots egin zien. Azaldu ziran ur-azale-

ra, baita erreskadan jarri ere, txikiak aurrean eta aundiak ondoren. Eta onako galdera au egin zien: “*Ugoldean bizirik gorde ziñutelako, Jainkoari ez al diozute zuen eskerrona erakutsi nai*”? Eta burua makurtu zuten danak. San Antoniok esaten dio orduan erriari: “*Begira, arraiek adimenik ez tuela, eskerroneko dira, zuek berriz esker gaiztoko Jainkoaren mesedeak ezpaidituzute ezertan artzen*”.

Espiritu Santua gabe ezgera ezertarako gauza: ipiñi zazute arrai bat zuaitzetik zintzilika: arraia izango da orduan, ere, baiño urik ez tuela, ezin izango du bizi. Espiritu Santua ez tuenak, otoitz-itxurak egin ditzake: baiño ori ez litzake egizko otoitza, itz-egitea bakarrik litzake.

Espiritu Santuduna ezta bein ere aspertzen Jainkoaren ondoan egoten, aren biotzari etengabe dario maitasuna. Ar zazute esponja bat ur-asetua, eta eskubete arrikirri: estutu itzazute biak: arrietatik eztuzue deus aterako, esponjatik, berriz, ura aterako dezue ugari. Geurez ezin dezakegu ezer: arri-kozkorraren pare gera.

Espiritu Santudunak berebiziko gozotasuna miazkatzen du otoitzean, denpora betiere iruditzen zaio motx; Jainkoaren presentzia eztu bein ere galtzen. Aren biotzak, Salbatzaillearen aurrean aurkitzen danean, dolare-azpian dagoan matsa dirudi.

Ken zazute Espiritu Santua anima batengandik, ezta gei-ago ezertarako gauza. Espiritu Santuaren jabe dan animak lendanaz ikusten ditu deabruak asmatzen dizkion lakioak, eta ba-daki pekaturako bide guztietatik iges egiten. Espiritu Santurik ez tuten kristau gaizto oiek, berriz, itsu-antzo joan dijoaz, eta ez tute arriskurik ikusten, bertan jo arte.

Espiritu Santuari maiz bear zaizkio bere zazpi doaiak eskatu. Zazpi doai auek zazpi pekatu buruen aurkakoak dituzute. Espiritu Santuak ematen digu tentazioei aurpegi emateko indarra. Eta orduan tentazioak sarigarri biurtzen zaizkigu.

XXXIV

AITORTZAKO SAKRAMENTUAZ

Aitortzako Sakramentua artu gabe, oso gutxi zeruraturko dira.

Zeinek sortua ote da Sakramentu au?

Batzuk uste dute Ama Birgiña izan zala Sakramentu au jarri zuena; beste batzuk, berriz, Apostoluak, izan zirala. Zuei galdetzen badizue, Kristo gure Jaunak jarria dala esan. Apostoluengana putz egitearekin batean, onako itz auek esan zitun Jesusek: “*Ar zazute Espiritu Santua. Pekatuak barkatuko dizkiezutenei, barkatuak izango zaizkie; ta lotuko dizkiezutenei loturik geldituko zazkie*”.

Konfesatzen geran guztietan, artzen al da Aitortzako Sakramentua?

Batzuk ala uste dute. Baiño ez, eta euki au ondo gogoan: absoluzioa artu ezik, eztago Sakramenturik.

Eta absoluzioa artzerakoan, zer artzen ote da?

Batzuk uste dute Ama Birgiña edo onen aingeru zaindaria artzen dutela. Uste okerra au ere! Absoluzioa artzean, Kristoren Odol baliotsua ezartzen zaigu; bataio-ondoan egingdako pekatu danen barkazica ematen zaigu. Guk absoluzioa artzen degunean, Jainko errukitsuak gure pekatu danak gibel-aldera botatzen ditu, au da, aaztu egiten ditu, eta pekatuok

(*) Catéchismes, p. 71.

sekula ere eztira berriz agertuko. Jainkoak esana da: Zuen anima ikatza bezin beltz edo gorrimina bezin gorri balego ere, elurra aña txuri biurtuko det Nik, absoluzio-bitartez. Begira, ene semeak zeinbaterainokoa dan Jainkoaren biotz-bera! Jarri zaitezte Berakin pakean, eta zuen pekatu guztiak aienatu egingo dira, utsera etorriko dira, eta juizioko egunean arritu egingo zerate pekatu oiek geiago eztirala ikusita.

Geiago oraindik:

Emagun berriz ere pekatuan erori, eta gero segitun iltzen zeratela: Jainkoak etzaizute juzgatuko, orain atzenean egin-dako pekatuagatik baizik; lengoakgatik, barkatuak daudenak-gatik eztizue konturik eskatuko. Aiek joan ziran, aiek eztira geiago.

Emagun persona bat, egitade on asko egin, eta gero pekatua erortzeko zoritxarra izan duena. Pekatuan dirauan arte guztian, obra on aiek illik bezela aurkitzen dira, ezeztatuak bezela; baiña Jainkoagana biurtu, eta absoluzioa artu bezin laister, obra on aiek berpiztu egiten dira. Pekatua ezta sekula berpiztuko, egite onak, ordea, bai, eta obra oiei zor zaien saria emango zaio, pekatuak egin ezbalдин balu bezela.

O Jainkoaren ruki ori, zeinen baztergabea zeran!

* * *

Aitortzako Sakramentua Eukaristi-Sakramenturako pres-taera bat da. Munduko aundizkiren bat gurea etortzea gerta baledi, aurretik etxea txukundu, apaindu ta erratzaz garbitu egingo genuke. Orobat, gure Jaun eta Jauna errezibitzeko, gu-re anima bear degu garbitu eta txukundu.

Aitortzako Sakramentua bide dan bezela artzeko, *damu-tasuna derrigorrekoa degu*. Etxe batean abere zikin, gorotz eta loikeria franko izan bada, naiz ta etxe ori erratzaz garbi-tu, beti gelditzen da an arako kirats edo lurrin gaiztoa. Gure animarekin ere beste ainbeste gertatzen da. Examinia egin, eta pekatuak aitortuarren, damuaren negarmalkoak bear di-ra, gaiñera; Jainkoa ofenditu izanaren naigabe biotzetikoa, alegia.

Damutasun ori badezu Jainkoa ona dalako, edo zuk Ura maite dezulako, edo Ari min emateak atsekabe egiten dizulako, orduan zure damu ori egiñ-egiñekoa da, oso-oso, eta pekatuen barkazioa absoluzioa artu orduko ematen zaizu; eta il bazindez, zuzen joango ziñake zerura, aurra bataiatu-ondoren joan oi dan legez.

Damu ori badezu Jainkoaren juizioa eta inpernua bildur dituzulako, orduan zure damua ezta alde guzietatik on eta osoa, eta pekatuen barkazioa etzaizu emango, arik eta apaizak absoluzioko itzak esan arte.

Zure pekatuen atsekabe ta damu ori badezu, ez oiekin Jainkoa ofenditu dezulako, baizik apaizari aitortu bear diralako, eta aitortza orretan lotsa aundia igaro bear dezulako, edo beste orrelako zio batengatik, orduan barkazioa etzaizu sekula emango.

Ba-dira damu oso, bete, egiñ-egiñekoa izan dutenak, naigabearen-naigabez iltzeraiño. Konparaziorako, gizon bat aitortu zan, eta guztiz atsekabeturik negarrari eman zion; gorde zan elizako abe baten ostean, eta antxe ari zun negar ta negar, zotinga, bere buruari oiñaze emanaz. Azkenean apaiza joan zitzaion elizatik atera-erazteko, eta illotzik aurkitu zuan. Bere pekatuen damuak bizia kendu zion.

Persona ondo damutuak ikusita nago ni. Batzuetan, oien aitortza entzun-ondoren, apaizak andik alde egin bear izaten zun, lasai eta gogotik negar egin zezaten. Begira! Beiñola etorri zan onera "*gendarme*" bat: ezta oriegunoro ikusten. Idatzirik zekarren bere aitortza osoa; belaunikatu zan lurrean, eta negar ta negar ari zun. Ark bai zeukala pekatuen damua! Aren pekatuak barkatuak, ta zearo ezeztatuak zeuden, aitortu baiño len ere, damu benetako orren indarrez.

Eztet nik esan nai, atsekabeak bizitza galtzera, edo malakoak ixuri-arazteraiñokoa izan bear duenik; baiña bai Jainkoa naigabetu izanaren damua biotz-biotzean ondo sartua ekarri bear dala. Begira, ene semeak. Aitortzako Sakramentua artzeko, iru gauza bear dira: fedea, apaizagan Jainkoa ikusteko; itxaropena, Jainkoak barkazioa emango digula siñis-

teko; eta karidadea, Jainkoa maitatzeko, eta Bera ofenditu izanaren naigabea biotzean izateko.

Ene semeak, Aitortzako Sakramentura urbiltzen geranean, *eskatu dezaiozun bein da berriz Jainkori gure pekatuen damua*. Denpora geiago bear da eman damutasuna eskatzen, azterketa egiten baiño. Eskatzen ezpadezue, etzezue izango.

Anitz konfesatzen, eta gutxi omen da konbertitzen: ni ere ortan nago, ene semeak. Jakiña, benetazko damuaren malkoakin oso gutxi konfesatzen dira-ta...

Eta zuen utsegite danen egizko damu orrekin zaudetenean, urrera zaitezte aitortegira, eta *"Aitaren"* egin zazute. Ederra bai auxe! Pekatuen esateari asiera ematen diozute Trinitate Santuko iru personen izenean; Aita eta Semea eta Espiritu Santuaren izenean, alegia. Gero esan: *"Bedeinka nazazu, Aita, pekatu egiña naiz-ta"*. Profanatua izan dan gauzari ematen zaio bedeinkazioa: apaizak bedeinkatzen zaitu, etsai deabrua zure biotzetik egotzi, eta Espiritu Santua bertora erakartzeko. Eta jarraitu: *"Nik pekatari onek aitortzen diot Jainkoari..."*. Zerutar ororen aurrean aitortzen zera errudun. Aurrera ere esan: *"neronen erruz"*: eztago beraz aitzakirik, eztago pekatuak zuritzen ibiltzerik; bai, neroni naiz errudun, ez beste inor, neronen kulpaz egin det pekatu.

Pekatuen aitortza egindakoan, gaiñeratu: *"Ene aita, pekatu guzti auezaz, eta baita lengo bizitzan egindako guziezaz ere, aitortzen naiz"*: onekin adieraztera ematen da, eza gutzen ditugun eta eztitugun pekatuak ere, aitortu nai ditugula, guk ez dakizkigun pekatuak konta eziñezkoak baitira. Apaizak absoluzioa ematerakoan, egin zazute biotz-biotzetik maite-damutasunezko egintza. Ez egin batzuk oi dutena: maite damu-otoitza al bait ariñen esan, eta segitun apaizari galdetu: *"Jaunartu al dezaket biar"?* Zure maite-damu-otoitza apaizak absoluzioa eman orduko, bukatua badezu, erantsi urrengo Jainkoa maitatzeko otoitza. Gero elizako bazterren betean jarririk, eskerrak eman Jainkoari eta Ama Birgiñari, egin dizkizuten mesedeagatik, eta eskatu laguntza geiago ez erortzeko.

Pekatu mortal dan-danak bear dira aitortu konfesioan; bestela eztago barkaziorik.

Batzuk joaten dira aitortzera ia batere pentsatu gabe; arinki ta jolas-itxuran egiten dute pekatuen aitortza. Ori eztago ondo; examiña arretaz bear da egin, orduan gure bizi-zako gauzarik bear-bearrenetakoa egiten baitegu. Aita aitortleari jakiñarazi bear zaizkio pekatuaren izatea aldatu dezaketen ipi-apa ta xehetasun danak: adibidez, ostu dezula aitortzean, esan bear da ori eliza batean egin ote dan; aserre-sumindu baldin bazera, esan bear da, gaiñera, zure aita edo amaren kontra izan ote dan.

Batzuk ibiltzen dira pekatuak estaldu naiean, apaizak gutxiena uler ditzakean modua billatu naiean.

Beste batzuk gorde egiten dituzte.

Nori, baiña, gorde, ene semeak? Apaizari gordetzen dizkiozute. Baiña apaizak etzaituzte juzgatuko; bearbada, zuek baiña ogeitamar urte geroago ilko da, Jainkoak juzgatu bear zaituzte, zeru-gorenetik pekatu gordeak eta txurizkatuak, dan-danak, ikusten ditunak; Juizioko egunean zeru-lurren bistan, argi zabalera azalduko ditun Ark, alegia. Orduan izango da, bai, lotsaz egoteko garaia!

Esango balizute: *“Bietatik bat: edo leku agiriko batera igo, eta andik zuen aitortza mundu ororen aurrean egin, edo bestela zuen pekatuak apaiz bati bere bakarrean ixillik esan: nai dezuena autatu”*. Esan bearrik eztago, ondo laister joango ziñateke pekatuak apaizari esatera. Entzun, bada, zer esaten dizuten Jainkoak: *“Bietatik bat: edo aitortzako sakramentu ezkutuan zuen pekatuak aitortu, edo bestela mundu guztia-
ren aurrean agertuko ditut Nik pekatuok; zuek itzalpean egindakoa, Nik argi zabalera aterako del”*. Egongo al ziñakete ezbai, zer autatu eztakizutela...? Ene semeak, zuen pekatuak estali nai dituzue? Ba aitortu ondo eta bide dan bezela: ala ondatu egiten baitira, betiko galdu, eta ez baitira geiago azalduko.

Ba-dakit nik ondo pekatuen esateak lotsaarazten zaitutela. Baiña askoz aundiago litzake Juizioko eguneko lotsa,

pekatuak argi zabalera jartzerakoan izango zenuteken lotsa. Gaiñera, ainstesteraiñokoa ote da, ba, pekatuen aitortzak ematen duen lotsa...? Apaizak ba-daki gutxigorabera zuek egin izan dukezuena.

Pekatuak txurizkatzea, estaltzea... au erokeria ta gaiztakeria! Entzun:

Emagun gizon bat, zauriz josia. Esaten diote gaixotegira joateko, sendagilleak ikus dezan. Ba-dijoa, medikuak sendabideak eman dizkio, eta ia zearo sendatu da. Baiño orra! gizonak gaiñibeta bat artu, eta bere zauriak berriz irikitzen ditu, eta len zeukan baiño gaitz aundiagoa egiten dio bere buruari... Ori ikusita, ez al zenukete esango: "*Gizon ori burutik eginda dago: sendatzer egon, eta zoroak alakoak len baiño gaitz aundiagoa eztio ba egin bere buruari?*".

Beste ainbeste egin oi du, bada, konfesioan pekatoren bat txuriztatu edo estaldu egiten duenak. Zuek, Jainkoa ofenditu dezue; zeinbat pekatu, ainbat zauri, norbere animari egiñak. Gauza negargarria, noski; ala ere gaitz egia konpon diteke, sendaketa zuen esku dago, aitortza on bat dala bide. Urbiltzen zera, bada, zure zauriak apai-zari erakustera, barkazioa aukeran dezu, sendatzeko pontuan zaude; baiña pekatu mortal bat gordeaz, sakrilegio bat egiten dezu: orra zauri ikaragarri eskerba bat, lengoai erantsi, eta gaiñerakoen sendatzea galerazen duena. Eroa! Biotz-beltza!

Eta gero pekatu ori konfesatzera etzera ausartuko, beti gauza bera etorriko zaizulako burura: "*Baiña zer esango du nizaz apaizak?*". Eta ala sakrilegioa sakrilegioaren gain pillatuz joango zera.

Ai, ene semeak! Aspaldidanik inpernuan diran errukarri oiei esango balitzakie: "*Inpernuko atean apaiz bat jarrriko da, aitortu nai duten dan-danak kanpora iriengo dira; baiño zortzi eguneko epea besterik etzaizue ematen*". Geldituko al litzake iñor aitortzeke? Ez, ene semeak, ez orixe, ezlitzake bat bera ere geldituko. Beren pekatuak esateko

ezlirake lotsa izango, naiz ta mundu osoaren aurrean dea-
darka esan bear. A! Ondo laister genuke inpernua zearo us-
tua, ta zerua gainez egiña! Aor bada, inpernutarrek eztuten
egokiera ori, guk orain degu: erraztasun oiezaz balia gai-
tezen!

Zeinbat ote dira inpernuan, bearbada guk baiño gaitz
gutxiago egindakoak! Zeinbat, pekatu mortal bat egin on-
doren il, ta inpernuratu izan ote dira! Eztuten damutzeko
astirik izan. Zergatik ez ote nau tratatu Jainkoak oien antze-
ra? Niganako duen maitasunak egin du ori, ez beste ezerk!
Eta guk, arroputz dongeok, gure pekatuak aitortu nai ez! A!
Eriotzako orduan ondo damutuko zaigu!

* * *

Aitortu zaitezte, bada, ondo eta *aitortu zaitezte, gai-
ñera, lenbailen.*

O! Pekatuzko izaeran datzan anima errukarria da oso.
Zerurako eztu deus irabazten, bere egite on guztiak galduak
dira. Izaera orretan dagoela il baledi, bere obra on oietatik
batek ere eztu zeruan saririk izango. Izan zan gizon bat, oso
ongille, bere biziaroan on-egite aundiak egin zituen, baiño
pekatuzko izaeran bizi zana. Iltzeko pontura etorri zan, eta
kondenatua izan zan. Santu batek ba-diotza Jainkoari:

—*Baiño, Jauna, inpernura gizon ori? Ainbeste obra on
egindako gizona...?*

—*Bai —erantzuten du Jainkoak—. Nik ere eman nion
mundu onetan zegokion saria; bere izerdi-lanak bedeinkatu
ditut, bere ondasun ta aberastasunak ugaritu ditut; bere ira-
bazpide ta zer-eginetan egun onak ta ondore zoriontsuak eza-
gutu ditu: zerurako, ordea, eztu deus egin, egindako guzia
galdua da beraz, dana pekatuan egiña izan da-ta.*

Tamala benetan! Amabost-ogei urtetako lana, pekatu
mortalean bizi izan bagera, beti betiko degu galdua! Ura
etsipena, iltzerakoan sentituko deguna, eriotzak egoera one-
tan arrapatzen baldin bagaitu! Bitartean, guk aiña gaiztakeri
egindako beste batzuk ikusiko ditugu zerura joaten. Eta zer-

gatik? Jainkoagana biurtu ziralako, eta beren pekatuak aitortu zitutelako.

Pekatuaren azpian bizi, zer erokeria! Edozein unetan il zindezteke! Entzun bein gertatua: ba-zan gizon bat, aspaldian aitortu gabea; Mixio bat egin zan, bere etxetik ez urruti. Adiskideek esaten diote:

—*Joango al aiz mixiora?*

—*Bai orixe* —erantzun berak—; *biar goizean otsegitera etorri...*

—*Etorriko gaituk*, erantzun zioten lagunek.

Urrengo goizean badijoaz ari otsegitera, eta oean aurkitu zuten illik. Etzun konfesatzeko betarik izan. Gau artan il bear zunik jakin izan balu, ondo laister konfesatuko zan, noski.

Eta arako emakume ura (emendik ez urruti gertatua au ere): gaixo bat ikustatzera nijoan ni, eta arbola baten azpian aurkitu nuan, oiñaztarri batek ler eginda. Ark ere etzuan asko uste, eriotza ain urbil zeukanik.

Ene semeak, il bear deguna ba-dakigu, noiz ilko geran, ordea, ez. Beraz, beti gerturik, beti erne egotea Komeni zai-gu; gure animarekiko kontuak Jainkoarekin garbitzeko beti prest egotea dagokigu. Pekatu-azpian bizi bagera, Luterok ziona esan bear guk ere. Gizon ori bazebillen bein bere emaztearekin egurastu bat artzen, eta zerura begira jarri ziran biak. Alako batean badiotsa emazteak:

—*Zoragarria da gero zerua!*

—*Bai* —erantzuten dio Luterok—, *baiña ezta gu biontzat izango!*

Eta iltzeko garaia iritxi zitzaionean, orixe bera esaten zuan: *Zeru eder ori, etzaitut sekula ikusiko!* Beste orrenbeste bear diogu guk esan gure animari, pekatuan aurkitzen dan guztian: *Anima errukarri ori, zeruko atea itxirik daukazu, inpernukoa, berriz zabalik.* Ori egi-egia baita. Baiña Jainkoagana biurtu bezin laister, zerua iriki, eta inpernua itxi egin oi da. A! Au gogoan ekarriko bagenu, pekatuan bizitzea ezlitzake posible izango.

Eriotzako orduan esango du pekatariak: *Ene anima ori, nai izan bazenu, salbatua ziñake; zure pekatuak aitortzeko borondatea baizik etzan bear; aitortza on bat egin, eta zure eskuan zegon barkazioa.* Inpernutar gaixoez madarikatu egingo ditute apaizak, esanaz: *Apaiz madarikatuok, ezagutu ezba-zifutet, ez nintzake ain errudun izango!*

Batzuk esaten dute: *Ni Jainkoari aitortuko natzaio.* Ots, ene semeak, naiz ta egunean ogei aldiz Jainkoari aitortu, etzenukete barkaziorik iritxiko. Baiña pekatuok, zuen konzien-zian agiri diran bezelaxe, apaizari esan ezkerro, berriz ere Jainkoaren grazi ta adiskidetasunean jartzen zerate, ez dudik izan.



XXXV

ARSKO-ko ERRETORE SANTUAREN BESTE GOGORAKIZUN BATZUK

Austerre-eguneko elizkizunaz

Austerre-eguneko elizkizuna ondo egokia da, guri burua makur-erazteko. Ekarri dezagun beti gogoan arako itz ura: *Gogora zazu, gizon, auts zerala, eta auts biurtu bear dezula*. Itz ori nere buruari esaten diot lenbizi, eta urrengo, zuei.

Orra or, anaiak, zer biurtzen dan gizona: ainbeste arazotan sarturik dabillen ori, zerbait badela iduri duen ori, lur guztia menperatu, eta eguzkiari berari ere agindu nai liokela iduri duen ori: egunen batean azbete auts izatera etorriko da, ibaiez-ibai eramana dan ondar-pikorra!

Egiten dira etxeak, bizileku dotoreak: esango luke edozeinek, gorputzak eztuela bein ere il bear. Ori, orde, egia izan ez, anaiak aitzitik, ondo laister elduko zaio bukatzea. Begira, guk ba-genun aita bat, ama bat, senar bat, emazte bat, anai batzuk, arreba-aizpa batzuk; orain eztira geiago, beazbete-auts biurtu dira.

(*) Catéchismes, p. 224.

Auts biurtze orrek, ordea, zerbait adirazi nai du, beste eriotz baten adigarri da; gugan, gure buruagan zertu bear dan eriotza gogoratzen digu; gure griña txarrak menperatuz ta utsera ekarriz, egin bear dan eriotza, alegia. Lurra, eguzkirik bein ere ikusten ezpadu, euriz bustitzen ezpada, edo landua ez baldin bada, legor ta idor biurtzen da. Egin dezagun beste ainbeste gure griñakin; auei zer jan eman lekuan, indartu ta azkartu bearrean, egin dazaiegun gogor, itotzen saia gaitezen, auts biurtzeko ta ezerezera ekartzeko alegiñak egin ditzagun.

Arroak ezi beza bere arrokeria, umiltasuna eta bere buaren beeratzea pratikatuz. Asper-mendekurako joera duenak, egin bitza alegiñak griña txar ori azpiratzeko. Nola, ordea? Jainkoak berari barkatu dion pekatu-pilla ikaragarria gogoratzuz, edo sekula bengantzarik artu eztuen Jainkoaren maitasuna gogora ekarriz. Loikerira ekarritasuna duena, saia bedi su bildurgarri ori itzaltzen, norbere gorputza ostikopean erabilliz, ustelkorra dala, eta aldi gutxirako baizik lurgaiñean eztala gogoraturik.

Aginduzko eztiran obrak

Begira! Ordua jotzean, *Agur Maria* esatea ezta obligaziozko, eta esan gabe ere zerura gindezke. Ezta obligaziozko errosarioa errezzatu, edo astegunez mezatara joatea. Baiño gauza oiek egiñaz, irabazi aundiak biltzen dituzu Jainkoaren begitan, berekiko dezun maitasuna baita, oiek egitera ekartzen zaituna. Konparazio baterako, emagun morroi bat: ugazabarekiko dituan eginbide danak, zeatz betetzen ditu: ongi da, aginduzkoa bete du. Baiña bere loari zaititxo bat kendu, eta ugazabaren alde lan egitearren goizago jeiki badadi, uki-garri izango zaio nagusiari bere morroi onen leialtasuna, esango baitu: *Ziñez, nereganaiko duen maitasunak eragiten dio ala ibiltzera.*

Jainkoa beti zuzen, bai sariketan eta bai kastiguan ere

Galdu bearra naizela baneki ere, pekatu egitetik gordeko nintzake al baitanez, inpernuko oiñazeak pekatuen aiñaan izaten baitira. Egun batean Teresa Santua inpernura eramana izan zan: an ikusi zuen kondenatu bat sekulako oiñaze gorritan; beste bat ikusi zuen gero, ainbesterañoko oiñazerik sufritzen etzuen. Galdetu zion Jainkoari alde ori ia zergatik ote zan. Jainkoak esaten dio: *Gutxiago sufritzen duen orrek, eztu pekatu mortal bat baizik egin. Jainkoak, justu izanik, eztio pekatu soil orren ordaiña baizik ematen.*

Beste ainbeste gertatzen da zeruan dauden Santuekin. Bakoitzak irabazitakoaren araura izaten da saria ere.

Begira txiki auk: eman bakoitzari bere sortatxoa. Besteak baiño ogei aldiz aundiagoa jasoko lukenik ba-da oien artean. Zergatik? Indar geiago dualako. Baiño txiki edo aundi, danak dute nork berea. Zeruan ere alaxe: anima batzuk besteak baiño ogei aldiz gorago aurkitzen dira; jakiña, obra on geiago egin baitute... Baiño bakoitzak ba-du zorion bete-betea izateko bear duena.



AUR KIBIDEA

	Orrialdea
Atari	5
Ars-ko Erretore Santuaz berri laburra	9
I.—Kristau ikasbidearen premiaz	15
II.—Animaren salbazioaz	20
III.—Jainkoaren maitasunaz	23
IV.—Zeruaz	27
V.—Fedez	31
VI.—Espiritu Santuaz	35
VII.—Andre Mariaz	40
VIII.—Andre Mariaz geiago	43
IX.—Eliza eta Aita Santuaz	51
X.—Otoitzaz	55
XI.—Aita Gureaz	59
XII.—Animako Garbitasunaz	63
XIII.—Lizunkeriaz	67
XIV.—Itxaropenaz	70
XV.—Pekatuaz	73
XVI.—Zuurtzi az ta neurritasunaz	77
XVII.—Arrokieriaz	81
XVIII.—Umiltasunaz	84
XIX.—Tentazioaz	86
XX.—Lagun-urkoaganako maitasun eta gorrotoaz	91
XXI.—Oinaze ta gurutzeaz	97
XXII.—Biotza lurreko atseginetatik kendu, eta ze- ruko ondasunetan bear degula ipiñi	104
XXIII.—Norbere naiari uko egiteaz	108
XXIV.—Jai egunak jai egiteaz	110
XXV.—Gurasoak aintzat eukitzeaz	117
XXVI.—Apaizaz	123
XXVII.—Meza Santuaz	127
XXVIII.—Aldareko Sakramentu Santuaz	130
XXIX.—Jaunartzeaz	134
XXX.—Sarri jaunartzeaz	137
XXXI.—Gure Jaun Aldarekoari ikustaldiak bear zaiz- kiola egin	142
XXXII.—Bataio Santuaz	146
XXXIII.—Konfirmazioko Sakramentuaz	151
XXXIV.—Aitortzako Sakramentuaz	154
XXXV.—Ars-ko Erretore Santuaren beste gogarak- zun batzuk	163

OKERRAK ZUZENTZE

<u>Orrialde</u>	<u>Lerro</u>	<u>Jartzen du</u>	<u>Jarri bedi</u>
11	16	apaitu	aipatu
22	3	genezazioke	genezazkioke
25	14	aen	aren
29	17	ditugute	dituzute
34	13	ea	eta
36	35	koskoren	koskorren
39	18	joate	joatea
60	22	degula	dezagula
65	11	zoragarriagorrik	zoragarriagorik
65	14	tixikia	txikia
66	9	eraman	eraman zuten
73	2	jaurki	jaurti
75	29	zear	zer
76	7	itxoin	itxoin nai
77	18	ezpataigo	ezpaitago
79	20	gogora	gogara
79	24	bazkarri	bazkari
84	2	izando	izango
85	14	gaiztuzten	gaituzten
88	26	kristau	kristaua
89	11	anima	animean
90	20	ditetzen	ditezen
94	1	izaten	izatera
95	2	besoan	basoan
95	4	artu	artua
98	23	gurutzearandik	gurutzeagandik
114	15	igarrotzen	igarotzen
114	28	bezperfetara	bezperetara

Orrialde	Lerro	Jartzen du	Jarri bedi
114	30	zituan.	zituan
116	8	litzate	bitzate
118	9	berriz	berri
124	15	eto	eta
127	1	balio	balioa
129	8	bes	beste
132	26	Jaunartzen	Jaunartze
139	11	biziartzera	bizia artzera,
140	31	baitie	ematen baitie
141	1	komunio	komunioia
143	11	joango	joan
145	19	oitura	oituta
150	4	dadezu	badezu
155	15	pekatua	pekatuan
157	34	betean	batean
160	13	zaiztezte	zaitezte.

Oar garrantzitsua.—36 garren orrialdean lerro oso bat, 32 garrena, alegia, aldatu bear da. Idatzirik dagona-ren lekuan, onela irakurri bedi: "oi da... atsegifiaren atsegifiñaz il-urren jartzeko modukoa!".

55 garren orrialdean, atzenengo lerroaren urrengo, beste bat erantsi bear da, 58 garren orrialde-buruan dato-rrena, alegia; beraz, 58 garren orrialdeko lehen-lerro ori, bere tokitik kanpora dago.